
Euskadi


Hegazti habiagileen atlasa

Atlas de aves nidificantes









aranzadi
zientzia elkartea

Euskadi

Hegazti habiagileen atlasa

Atlas de aves nidificantes

Euskadi

Hegazti habiagileen atlasa

Atlas de aves nidificantes

Juan Arizaga, Maite Laso, Javier Rodríguez-Pérez,

Olatz Aizpurua, Ignacio García-Serna,

Héctor González, Mikel Olano, Brian Webster,

Gorka Belamendia, Iñigo Zuberogoitia, Luis M. Carrascal

aranzadi
zientzia elkartea

Babesleak / Apoyan:

Laguntzaileak / Colaboradores:

Edizioa / Edita:

aranzadi zientzia elkartea

Zorroagagaina 11, 20014 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943466142
Emaila / Correo: aranzadi@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Editoreak / Editores: Juan Arizaga, Maite Laso, Javier Rodríguez-Pérez, Olatz Aizpurua, Ignacio García-Serna, Héctor González, Mikel Olano, Brian Webster, Gorka Belamendia, Iñigo Zuberogoitia, Luis M. Carrascal

Irudiak / Ilustraciones: Alex Mascarell

Itzulpenak / Traducciones: Elhuyar, Esther López Epelde

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación: Javier Arbilla

Inprimatzea / Impresión: Navaprint Gráficas S. L.

ISBN: 978-84-17713-87-4
L.G./D.L. D 00794-2023

Liburua aipatzeko gomendioa / Recomendación para citar el libro:
Arizaga, J., Laso, M., Rodríguez-Pérez, J., Aizpurua, O., García-Serna, I., González, H., Olano, M., Webster, B., Belamendia, G., Zuberogoitia, I., Carrascal, L. M. 2023. Euskadi. Hegazti habiagileen Atlasa / Atlas de aves nidificantes. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Kapituluak edo espezieen fitxak aipatzeko gomendioa / Recomendación para la cita de fichas de especies o capítulos:
Carrascal, L. M. 2023. Mendi-tuntuna - Acentor alpino - *Prunella collaris*. En: Arizaga, J., Laso, M., Rodríguez-Pérez, J., Aizpurua, O., García-Serna, I., González, H., Olano, M., Webster, B., Belamendia, G., Zuberogoitia, I., Carrascal, L. M. (Eds.), Euskadi. Hegazti habiagileen Atlasa / Atlas de aves nidificantes, 366-367. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

HITZAURREA

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria

Euskadi, bere kokapen geografikoagatik, dibertsitate handiko eta habitat-mota ugariko lurraldea da. Aniztasun hori guztia eremu nahiko txiki eta garapen sozioekonomiko handikoan bildua dago, gainera. Hori dela eta, gure ondare naturalaren kontserbazioaren eta gure ekoizpen-sarea osatzen duten sektoreen iraunkortasunaren arteko oreka kontu handiz zaindu beharra dago.

Natura 2000 Sareak gure lurraldearen % 20,5 hartzen du, eta erakunde publikook ondo dakigu biodibertsitatea gure zelai, baso eta hiriguneen parte dela, Sare horren mugez harago. Horiek horrela, Euskadiko Biodibertsitate Estrategia bat dator Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Izan ere, 15. helburuak dio ezinbestekoa dela «lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, lehengoratzea eta sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzeari aurre egitea, lurraren degradazioa gelditzea eta iraultzea, eta aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea».

Datu fidagarri eta egiaztatu nahikoa izatea oinarrizkoa da Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzera eta biodibertsitatea zaintzera bideratutako politika eta kudeaketa-neurriak behar bezala garatzeko eta haien eraginkortasuna ebaluatzeko. Arlo horretan, Euskadiko hegazti habiagileen atlas hau giltzarri izango da, hegazti horien populazioaren banaketari eta ugaritasunari buruz orain arte egin den lan handinahi, zorrotz eta zehatzena baita.

Aranzadi Zientzia Elkartearen ekimena eta proiektuan parte hartu duten erakunde eta pertsonak batzeko gaitasuna goraipatzeko eta eskertzeko modukoak dira. Eusko Jaurlaritzak atlas honetan parte hartzeko eta egindako lana babesteko aukera izan du. Eta horrek argi erakusten du erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana gure gizartea garapen- eta iraunkortasun-maila handiagoetara eramateko funtsezkoa dela.

PRÓLOGO

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria

Euskadi, por su particular posición geográfica, es un territorio diverso que cuenta con una gran variedad de hábitats. Esta diversidad tiene lugar en un espacio relativamente pequeño y con un importante desarrollo socio-económico, lo que obliga a prestar especial cuidado en el delicado equilibrio entre la conservación de nuestro patrimonio natural y la sostenibilidad de los sectores que conforman nuestro tejido productivo.

La Red Natura 2000 cubre una superficie equivalente al 20,5% de nuestro territorio y las instituciones públicas somos conscientes de que la biodiversidad también forma parte de nuestros campos, bosques y núcleos urbanos más allá de los límites de esta Red. En este contexto, la Estrategia de Biodiversidad de Euskadi se alinea con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 de Naciones Unidas, cuyo Objetivo 15 establece la necesidad de 'promover el uso sostenible de los ecosistemas terrestres, luchar contra la desertificación, detener e invertir la degradación de las tierras y frenar la pérdida de la diversidad biológica'.

El aporte de datos contrastados, fiables y suficientes es una herramienta esencial para el buen desarrollo y evaluación de la eficacia de las políticas y medidas de gestión destinadas a cumplir con los Objetivos de Desarrollo Sostenible y conservación de la Biodiversidad. Este Atlas de aves nidificantes de Euskadi está llamado a ser un elemento clave en este ámbito. Nunca hasta la fecha habíamos contado con un trabajo tan ambicioso, exhaustivo y detallado sobre la distribución y abundancia de las poblaciones de aves reproductoras en Euskadi.

La iniciativa de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y su capacidad para aglutinar las diferentes entidades y personas que han colaborado en el proyecto son motivo de elogio y agradecimiento. El Gobierno Vasco ha tenido la oportunidad de apoyar y participar en la elaboración y ejecución de este Atlas. Este es un ejemplo de que la colaboración público-privada es capital para hacer avanzar a nuestra sociedad hacia cotas más altas de desarrollo y sostenibilidad.

HITZAURREA

Jokin Otamendi
Aranzadi Zientzia Elkartea Presidentea

Aranzadi Zientzia Elkartearen estatutuetako helburuetako bat gure natura-ingurunea aztertzea eta sortutako jakintza zabaltzea da. Ornitologia Saila aitzindaria da hegaztien eraztuntze zientifikoan, eta estatuko lehen eraztuntze-bulegoa sortu zuen. Hori dela eta, Europan eraztuntze zientifikoa koordinatzen eta ofizialtzen duen Euring erakundeko kide da, eskubide osoarekin. Gaur egun, Euskadiko erreferentzia zientifikoa gara hegaztien errolden segimenduan eta garapenean. Eta horren adierazgarri diren hainbat proiektu ditugu; besteak beste: ehunka lagunek parte hartzen duten eta herritarren zientziaren eredu bihurtu den Ornitho Euskadi ataria; hegazti-espezieak monitorizatzeko eta aztertzeko programak (Enarak proiektuak, adibidez, herritarrekin elkarlanean enarak eta sorbeltzak babestea du helburu); eta Donostiako, Gasteizko eta Iruñerriko hegazti habiagileen atlasak. Horien artetik proiektu bat nabarmentzen bada, esku artean duzun Euskadiko hegazti habiagileen atlasa da.

Atlas honek autonomia-erkidegoan ugaltzen diren 180 hegazti-espezieen banaketari eta ugaritasunari buruzko jakintza eguneratu du. Inoiz ez genuen datu hain zehatz eta osorik eduki. Gure hegaztien inguruko jakintza izugarri aberastu du, zalantzarik gabe, eta Aranzadin harro gaude egindako lanaz. Gainera, Euskadiko hegaztiak eta natura-ondarea kudeatzeko eta zaintzeko tresna oso erabilgarria da. Funtsean, benetako eta aparteko informazioa ematen du, gizarte bidezkoago eta iraunkorrago bat eraikitzeko.

Presidente gisa, beren babesa eta elkarlana eskertzen dizkiet Eusko Jaurlaritzari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei, udalei, naturalista-elkarteei, Aranzadiko Ornitologia Saileko langileei eta boluntario gisa lanean aritu direnei, proiektu hau egi bihurtzen lagundu digutelako. Lurraldeko eragileekin elkarlanean aritzea eta sinergiak bilatzea ere gure elkartearen helburu estrategikoak dira.

PRÓLOGO

Jokin Otamendi
Presidente de la Sociedad de Ciencias Aranzadi

La Sociedad de Ciencias Aranzadi tiene entre sus fines estatutarios el estudio de nuestro medio natural y la divulgación del conocimiento generado. El Departamento de Ornitología ha sido pionero en el anillamiento científico de aves y constituyó la primera oficina de anillamiento a nivel estatal. Por ello, es miembro de pleno derecho de Euring, entidad que coordina y oficializa el anillamiento científico en Europa. En la actualidad somos el referente científico en el seguimiento y desarrollo de censos de aves en Euskadi. De ello son testimonio diferentes proyectos como el portal Ornitho Euskadi, que se ha convertido en el mejor ejemplo de ciencia ciudadana y en el que colaboran cientos de personas, los programas de monitorización y estudios de especies de aves, como el proyecto Enarak, destinado a impulsar la protección de golondrinas, vencejos y aviones en colaboración con la ciudadanía, o los atlas municipales de aves nidificantes de Donostia, Vitoria-Gasteiz e Iruñerria. Pero, si de entre todos ellos cabe destacar un proyecto, ese es precisamente el Atlas de aves nidificantes de Euskadi que ahora tienes en tus manos.

Este Atlas actualiza el conocimiento existente sobre la distribución y abundancia de las 180 especies de aves que se reproducen en la comunidad autónoma. Nunca antes habíamos contado con unos datos tan precisos y completos. Es, sin duda, un hito en el conocimiento de nuestras aves y un motivo de orgullo para Aranzadi. Además, es una herramienta muy útil en el ámbito de la gestión y la conservación de las aves y el patrimonio natural de Euskadi. En última instancia, aporta información veraz y de calidad para construir una sociedad más justa y sostenible.

Como Presidente, quiero finalmente agradecer el apoyo y colaboración del Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos, las asociaciones naturalistas, el personal del Departamento de Ornitología de Aranzadi y las personas voluntarias que han contribuido a hacer realidad este proyecto. La colaboración y la búsqueda de sinergias con los diferentes agentes del territorio son, también, objetivos estratégicos de nuestra Sociedad.

HITZAURREA

José Luis Tellería
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

1979ko irailean *VI. International Congress on Bird Census Work* biltzarrean izan nintzen; Göttingenen, hain zuzen ere, hamaika urte geroago bateratuko zen Alemaniako herri-aldearen mendebaldean. Garai hartan, Europan atlas ornitologikoak egiten ari ginen, eta, biltzarretan, herrialde bakoitzak bere esperientziaren eta aurrerapenen berri ematen zuen. Britainia Handiko atlasa 1976an argitaratu zuten, eta hurrengoa zein izango ote zen ikusmin handia genuen. Bilera haietan Ekialdeko Europako kideek ere parte hartzen zuten, eta, maiz, eskolta eramaten zuten; bizkartzain zuhurrek, seguru zeudela zaintzeaz gain, haien jardueren berri ematen zuten. Bitxia zen giroa. Hainbeste, harrera egin zigun herrialdea zatitzen zuen gotorleku, alambre-hesi eta polizia sistema ezagutzeko bisita deseroso batek kexak eragin baitzituen. Kide horietako batek, irribarretsua eta ile-kizkurra bera, pasta-betaurrekoak jantzita eta beti trintxera bereizezin bat alboan ibiltzen zena, gure taldearekin bat egin zuen hoteleko tabernan. Bizkartzainetatik urrun eta, beharbada, garagardoak berotuta, atlasa bukatu zutela esan zigun, baina ez zietela argitaratzen uzten. Harri eta zur utzi gintuen. Basoko hegaztien banaketaren hutsune handiek euri azidoaren eragina erakusten zuten, eta agintariak ez omen zeuden prest ingurune-hondamen hura zabaltzeko. «Hegaztiak meatzeetako kanarioak baitira» esan zuen lagun batek, hainbeste txori zituen esaldi hura hain aproposa ere ez ote zen zalantzan. Hitz horiek, ordea, atlasak hegaztien eta beren ingurunearen segimendua egiteko zeinen erabilgarriak diren gogoratzeko balio izan didate ordudanik.

Euskadiko lehen atlas ornitologikoa 1985ean argitaratu zen, Aranzadik koordinatutako zenbait espezialistaren lan goresgarriari esker. Gainerako ornodunak ere aztertu zituzten, gainera. Gertakari gogoangarria izan zen hura. Ordudanik Espainiako hainbat atlas argitaratu dira, eta, orain, liburu honek 2016tik 2020ra ehun ornitologok baino gehiagok bildutako informazioa ematen digu. Haiek bildutako datuak aditu-talde batek landu ditu gero, espezieen ugaritasuna eta potentzialtasuna deskribatzeko, hori jakitea funtsezkoa baita hegaztiak zaintzeko. Kasu honetan ere, Göttingeneko «meatzeetako kanarioen» gogoetak balio du. Atlasak agerian jarri du, adibidez, basoko zenbait hegazti hedatu egin direla eta nekazaritza-inguruneei loturiko hegaztiak, berriz, gainbeheran daudela. Joera horiek etorkizunean zehatzago aztertuko dituzte, zalantzarik gabe.

Azkenik, atlas hau, euskal ornitologoen ahalegin handiaren eta talde-lan itzelaren erakusgarri ez ezik, zientzia-dibulgaziorako tresna bikaina ere bada. Nire ustez, hegaztiak eta beren habitatak ezagutzeak naturaren ezinbesteko errespetua barneratzen laguntzen du, eta baita inguratzen gaituen mundua aztertzeko zientzia baloratzen ere.

Euskal hegazti-faunaren azterketan gertakari gogoangarri berri bat da hau. Bejondeizuela.

PRÓLOGO

José Luis Tellería
Universidad Complutense de Madrid

En septiembre de 1979 asistí al *VI International Congress on Bird Census Work* celebrado en Göttingen, en la parte occidental de una Alemania que se reunificaría once años después. En ese tiempo se trabajaba en la elaboración de los atlas ornitológicos europeos y en los congresos se compartían las experiencias y avances de cada país. El atlas británico se había publicado en 1976 y había cierta expectación por saber quién sería el siguiente el siguiente. A estas reuniones asistían algunos colegas de Europa del este, frecuentemente escoltados por unos discretos hombretones que velaban por su seguridad e informaban de sus actividades. El ambiente era raro. De hecho, hubo quejas por lo embarazoso de una visita al sistema de fortificaciones, alambradas y policías que dividían al país anfitrión. Uno de estos colegas (sonriente, pelo rizado, con gafas de pasta y una inseparable trinchera) se unió a nuestro grupo en el bar del hotel. Lejos del escolta y tal vez animado por las cervezas, nos confesó que ya habían terminado el atlas pero que no les dejaban publicarlo. Ante nuestra extrañeza, respondió que los grandes huecos en la distribución de las aves forestales reflejaban el impacto de la lluvia ácida y que sus autoridades no estaban dispuestas a divulgar ese desastre ambiental. 'Es que las aves son el canario de la mina' comentó alguien no muy seguro de la brillantez de una frase con tanto pájaro. Pero ese comentario me ha servido desde entonces para recordar la utilidad de los atlas en el seguimiento de las aves y su entorno.

El primer atlas ornitológico de Euskadi se publicó en 1985 gracias al meritorio trabajo de unos cuantos especialistas coordinados por Aranzadi. Todo un hito por incluir, además, al resto de vertebrados. Posteriormente, han aparecido sucesivas entregas en los atlas españoles y, ahora, este volumen nos ofrece la información recogida por más de cien ornitólogos entre 2016 y 2020. Los datos han sido posteriormente elaborados por un equipo de expertos para describir la abundancia y potencialidad del hábitat de las especies, dos aspectos clave para su conservación. Y, también en este caso, el "canario de la mina" de Göttingen ha funcionado. El atlas evidencia, por ejemplo, la expansión de varias aves forestales y el preocupante retroceso de las ligadas a los ambientes agrícolas, tendencias que sin duda suscitarán estudios más detallados en el futuro.

Finalmente, me gustaría resaltar que este atlas es, además de un canto al esfuerzo del colectivo ornitológico vasco, un potente instrumento de divulgación científica. Creo que conocer las aves y sus hábitats ayuda a interiorizar el necesario respeto a la naturaleza y a valorar la utilidad de la ciencia en el estudio del mundo que nos rodea.

Enhorabuena por este nuevo hito en el estudio de la avifauna vasca.

PARTE-HARTZAILEAK

Atlas hau egiteko iturria ornitologo ugarik bildutako datuak izan dira. Segidan, 2016 eta 2019 artean zentsu estandarizatuetan —kualitatibo eta kuantitatiboetan— parte hartu zuten 59 pertsonen zerrenda aurkezten da.

Aginako, Igor
Aizpurua, Olatz
Alfonso, Mikel
Andrés, Juan Carlos
Arbeloa, Lukas
Artíguez, Gorka
Azkue, Eneko
Beñaran, Haritz
Borrego, Julia
Caramés, José
Cortajarena, Cayetano
Diaz, Beñat
Díaz, Eneko Julen
Etxezarreta, Jon
Galarza, Aitor
Galdos, Aitor
Gallagher, Richard
Garayo, Juan Ramón
García-Serna, Ignacio
Garitagoitia, Unai
Garmendia, Iñaki
Garston, Harold
Gimón, José María
Gómez, Jordi
González, Carmen
González, Héctor
Guerrero, Marina
Gutiérrez, Óscar
Herrero, Alfredo
Herrero, José Antonio
Hidalgo, Jon
Hurtado, Roberto
Laso, Maite
Leiza, Aitor
Lekuona, Aitor
López de Armentia, Alfonso
López de Luzuriaga, Javier
Luengo, Alberto
Márquez, Germán
Martín, Ramón
Martínez, Francisco
Martínez, Iñaki
Mazuelas, David
Miguélez, Andrea
Múgica, Jon
Olano, Mikel
Pérez de Ana, Juan Manuel
Ruiz, Julio
Salvador, Mikel
Salvatierra, Emilio
Saralegi, Xabier
Sarasua, Asier
Unanue, Azaitz
Unzueta, Juantxo
Urruzola, Aitzol
Vázquez, Javier
Webster, Brian
Zufiaur, Francisco
Zuluaga, Álvaro

PARTICIPANTES

Este Atlas se nutre de datos recolectados por un gran número de ornitólogos. A continuación se incluye el listado de 59 personas que participaron en los censos estandarizados llevados a cabo durante el periodo 2016-2019.

ESKERTZAK

Begi-bistakoa bada ere, nabarmendu behar da Atlas honen moduko proiektu bat ezin dela gauzatu jende askoren lankidetza gabe eta erakunde askoren laguntza gabe. Testuinguru horretan, gainera, adierazi behar da laginketa-eskalak, orain arte egindakoetan baino zehatzagoa denez, ahalegin are handiagoa eskatu duela (zentsuak 5×5 km-ko UTM gelaxkatan egin dira).

Hasteko, lan hau eskaini behar zaie zentsuen bidez eta ugaltzen diren espezieen aipamenen bidez proiektuan parte hartu duten ehunka pertsonari, baita Ornitho Euskadi atariari ere, hura izan baita, zentsu estandarizatuekin batera, Atlas honetarako informazio-iturri garrantzitsuena. Eskerrak ematen dizkiegu, gainera, era batera edo bestera protokolo espezifikoen bidez espezie jakin batzuen jarraipena egiten duten ornitologoei eta erakundeei; izan ere, datu horiek eskuratzea ahalbidetu dute, eta horri esker osatu ditugu lan honetan erakusten diren datuak.

Atlas honetan landu den espezie bakoitzak banaketa-eremuaren aldaketa-mapa bat darama, zeinean alderatzen baitira egungo banaketa eta Espainiako hegazti ugaltzaileen 2003ko atlasean lortutakoa. Analisi hori egin ahal izateko,

AGRADECIMIENTOS

Por obvio que pueda resultar, hay que destacar que un proyecto de la naturaleza de este Atlas no es factible sin la colaboración de mucha gente y el apoyo de muchas instituciones. En este contexto, además, debe señalarse que la escala de muestreo, más precisa que lo que se había hecho hasta la fecha ha requerido, si cabe, un esfuerzo mayor (los censos han sido llevados a cabo en celdas UTM de 5×5 km).

Empezamos esta sección agradeciendo a las centenas de personas que han colaborado con el proyecto a través de los censos así como el reporte de citas de aves reproductoras, incluyendo las que utilizan el portal Ornitho Euskadi, el cual ha sido, junto con los censos estandarizados, la fuente de información más importante para este Atlas. Extendemos el agradecimiento a los ornitólogos y las instituciones que, de un modo u otro, llevan a cabo el seguimiento de determinadas especies, a través de protocolos específicos, y han facilitado el acceso de esos datos para complementar los datos que se muestran en esta obra.

Cada una de las especies tratadas en el Atlas lleva un mapa de cambio en el área de distribución, en el cual se compara la distribución actual con la obtenida en el atlas de aves re-

10×10 km-ko UTM gelaxken eskalan detektatutako espezieen zerrenda helarazi zigun SEO/BirdLife-k.

2016an Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia Sailak Atlasa egitea planteatu zuenetik, zenbait erakundek konfiantza jarri zuten koordinazio-taldean. Hasierako laguntza hori gabe, proiektu hau ez zatekeen posible izango. Eskerrak ematen dizkiegu Arabako Natur Institutuari, Lanius Ornitologia-Elkarteari, Itsas Enara Ornitologia-Elkarteari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gainera, elkarte horiek probintzia mailako zentsu estandarizatuen koordinazioaren buru izan ziren.

Proiektuan zehar, erakundeen laguntza behar izan zen Atlasaren zati bat finantzatzeko. Eusko Jaurlaritzak ahalegin nabarmena egin zuen lurralde osoan gaueko hegaztien zentsu bat babesteko, eta Araban hegazti arrunten zentsu estandarizatuak egiteko. Zentsu horien beste zati bat Arabako Foru Aldundiak finantzatu zuen. Hori gabe, probintzia horretako laginketa-estaldura eskasa izango zen. Arabako Foru Aldundiak, gainera, finantzaketaren zati handi bat babestu zuen, datuak berrikusteko, analizatzeko, modelizatzeko...

Arlo honetan, Aranzadi Zientzia Elkarteak Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzarekin duen lankidetza-hitzarmenaren balioa azpimarratu nahi genuke.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako lankidetza eta konfiantza eskertzen dugu.

productoras de España de 2003. Para poder hacer este análisis, SEO/BirdLife facilitó la relación de especies detectadas a escala de celdas UTM de 10×10 km.

Desde que en 2016 el Departamento de Ornitología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi planteara llevar a cabo este Atlas, fueron varias las entidades que confiaron en el equipo de coordinación. Sin aquel primer apoyo, este proyecto no hubiera sido posible. Gracias al Instituto Alavés de la Naturaleza, la Sociedad Ornitológica Lanius, Itsas Enara Ornitologi Elkartea y la Diputación Foral de Gipuzkoa, quienes, además, se pusieron al frente de la coordinación de los censos estandarizados a escala provincial.

A lo largo del proyecto fue necesario el apoyo institucional para financiar una parte del Atlas. El Gobierno Vasco hizo un esfuerzo destacable al apoyar un censo de aves nocturnas en todo el territorio, parte del censo de aves comunes en Araba así como una parte significativa del trabajo de oficina (revisión de datos, análisis, modelización…).

En este ámbito, quisiéramos destacar el valor del convenio de colaboración que la Sociedad de Ciencias Aranzadi mantiene con la Dirección de Biodiversidad de Gobierno Vasco. Por su lado, la Diputación Foral de Araba financió otra parte del censo de aves comunes en esta provincia.

Asimismo, agradecemos la colaboración y confianza con la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

AURKIBIDEA ÍNDICE

SARRERA	17	INTRODUCCIÓN
METODOLOGIA. 1. Lan honetan barneratutako eremua, denbora-tartea eta espezieak	19	METODOLOGÍA 1. Área, periodo de estudio y especies consideradas en esta obra
Aztertutako eremua	19	Área de estudio
Aztertu den denbora-tartea	20	Periodo de estudio
Obra honetan kontuan hartutako espeziak	20	Especies consideradas en esta obra
METODOLOGIA. 2. Zentsuak	21	METODOLOGÍA 2. Censos
Zentsu kualitatiboak	21	Censos cualitativos
Zentsu kuantitatiboak	23	Censos cuantitativos
Beste iturri batzuk	24	Otras fuentes
METODOLOGIA. 3. Mapak, ereduak eta estimazioak	26	METODOLOGÍA 3. Mapas, modelos y estimas
Banaketa-mapa, 5×5 km-ko gelaxken eskalan	26	Mapa de distribución a escala de celdas de 5×5 km
Presentzia-probabilitatearen banaketa modelizatuaren mapa	30	Mapa de distribución modelizada de la probabilidad de presencia
Aldaketa-mapa	37	Mapa de cambio
Populazio estimazioak	41	Estimas poblacionales
ESPEZIEEN FITXAK	57	FICHAS DE ESPECIES
Espezieen fitxen interpretazioa	58	Interpretación de fichas de especies
Espezie autoktonoak	60	Especies autóctonas
Espezie exotikoak	410	Especies exóticas
Espezie desagertuak nahiz ugalketa ziurgabea, irregularra edo aldizkakoa dutenak	420	Especies extintas y de reproducción incierta, irregular u ocasional
EUSKADIKO HEGAZTI HABIAGILEEN BANAKETA ETA HAIEN ABERASTASUNAREN ALDAKETA	429	DISTRIBUCIÓN Y CAMBIO DE LA RIQUEZA DE AVES NIDIFICANTES EN EUSKADI
Sarrera	429	Introducción
Metodologia	429	Metodología
Emaitzak	431	Resultados
BIBLIOGRAFIA	442	BIBLIOGRAFÍA
ERANSKINAK	462	APÉNDICES
ESPEZIEEN AURKIBIDEA	472	ÍNDICE DE ESPECIES

SARRERA

Zergatik Euskadiko hegazti habiagileen atlasa?

2010eko hamarkadaren erdialdean, hegazti habiagileen zenbait atlas martxan zeuden; besteak beste, Europakoa[1], Espainiakoa[2] eta Kataluniakoa[3]. Gauzak horrela, Aranzadi Zientzia Elkartea ohartu zen Euskadirako ere beharrezkoa zela gaur egungo atlas bat edukitzea, lurraldean ugaltzen diren hegaztien banaketari eta ugaritasunari buruzko ezagutza eguneratzeko. Kontuan izan behar da Euskadiko hegazti ugaltzaileen atlas bakarra 1980ko hamarkadakoa zela[4]. Ondoren, ekimen batzuk egin ziren probintzia mailan[5]. Haietako asko, 2003an argitaratutako Espainiako hegazti habiagileen atlaserako[6] egindako araketen babesean. Kasu guztietan, 10×10 km-ko UTM gelaxkadun lauki batean oinarritutako lanak ziren, zeinetan soilik espezieen presentziari eta ezari buruzko datuak erakusten baitziren, ugaritasun-estimaziorik gabe, eta banaketa-eremuan egoteko probabilitatea edo banaketa-eremuko aldaketak zehazteko kuantifikaziorik gabe.

Testuinguru horretan, eta Euskadiko hegazti habiagileen atlas berri bat egiteko erabakia hartuta, Espainiako atlaserako bildutako datuak erabiltzea pentsatu zen, besteak beste. Hala ere, sakon analizatu ondoren, diagnostikatu zen estatuko lan-eskala (10×10 km-ko UTM) oso larria zela Euskadikoaren moduko azalera duen lurralde baterako (7000 km^2 inguru; konparazio gisa, Gaztela eta Leonek 94000 km^2 baino zertxobait gehiago ditu). Eskala xeheago batek informazio zehatzagoa eman zezakeen, eta, ondorioz, baliagarriagoa, Euskadiren tamaina kontuan hartuta. Euskadiko hegazti habiagileen atlas berria sortzeko, beraz, 5×5 km-ko UTM gelaxkadun laukia hartu zen oinarritzat. Hori dela eta, informazio xehatua ematen du atlasak, lurralde honetarako inoiz egin ez zen modukoa.

Aranzadi Zientzia Elkartearen ekimenetik abiatuta, Atlasak laster aurkitu zuen talde ornitologikoen babesa: Arabako Natur Institutua, Bizkaiko Lanius ornitologia-elkartea eta Gipuzkoako Itsas Enara ornitologia-elkartea prest azaldu ziren probintzia mailako zentsuetan parte hartuko zuten boluntarioen koordinazioa beren gain hartzeko. Gainera, Gipuzkoaren kasuan, Aldundiak ere parte hartu zuen basozainen kidegoaren bidez. Bestalde, Atlasak Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du bi lan finantzatzeko: Arabako lurraldearen zati batean egin ziren zentsuak eta gaueko hegaztiak zentsatzeko proiektu espezifiko bat (batez ere, estrigiformeetan ardaztua)[7]. Gainera, Eusko Jaurlaritzak bulegoko lanaren zati bat finantzatu zuen, datuak

INTRODUCCIÓN

¿Por qué un atlas de aves nidificantes en Euskadi?

A mediados de la década de 2010 estaban en proceso de desarrollo varios atlas de aves nidificantes, entre ellos el de Europa[1], España[2] o Cataluña[3]. En este marco, desde la Sociedad de Ciencias Aranzadi se identificó la idoneidad de contar, también para Euskadi, con un atlas moderno que pudiera actualizar el conocimiento sobre la distribución y abundancia de las aves que se reproducen en el territorio. Téngase en cuenta que el único atlas de aves reproductoras de Euskadi databa de la década de 1980[4]. Posteriormente, se llevaron a cabo cierto número de iniciativas a escala provincial[5], muchas de ellas al amparo de, principalmente, las prospecciones que se hicieron para el atlas de aves nidificantes de España publicado en 2003[6]. En todos los casos, fueron obras realizadas sobre la base de una cuadrícula con celdas UTM de 10×10 km y en donde se mostraban, únicamente, mapas con datos de presencia.

Tomada la decisión, una de las primeras opciones fue la de utilizar los datos que se habían recopilado para el atlas de España. Pero, tras un análisis profundo, se vio que la escala de trabajo estatal (UTM de 10×10 km) era muy amplia para un territorio con una superficie como la de Euskadi (unos 7000 km^2; a título comparativo, Castilla y León cuenta con algo más de 94000 km^2). Una escala más fina podría aportar información más precisa y, en consecuencia, más útil dado el tamaño de Euskadi. El nuevo atlas de aves nidificantes de Euskadi (en adelante, Atlas) se concibió, en consecuencia, bajo la base de una cuadrícula con celdas UTM de 5×5 km. Aporta así información con un nivel de detalle como nunca antes había habido para el territorio.

A partir de la iniciativa de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, el Atlas pronto encontró el apoyo de colectivos ornitológicos dispuestos a asumir la coordinación del voluntariado que participaría en los censos a escala provincial: el Instituto Alavés de la Naturaleza en Araba, la Sociedad Ornitológica Lanius en Bizkaia e Itsas Enara Ornitologi Elkartea en Gipuzkoa. En el caso de Gipuzkoa participó, también, la Diputación Foral a través del cuerpo de guardas forestales. Por otro lado, el Atlas ha contado con el apoyo de la Diputación Foral de Araba y el Gobierno Vasco para financiar los censos que se llevaron a cabo en una parte del territorio alavés y un proyecto específico para censar aves nocturnas (centrado, principalmente, en estrigiformes)[7]. El Gobierno Vasco, además, también financió una parte del trabajo de

berrikusteko, iragazteko eta analizatzeko, baita banaketa modelizatzeko eta populazio-tamainak kalkulatzeko ere.

Lan honek bost urteko (2016-2020 epea) laginketen eta landako aipamenen bilketaren emaitzak aurkezten ditu, bulegoan beste bi urte gehiagoz analizatu eta deskribatu ondoren. Euskadin ugaltzen diren hegaztien banaketaren analisi sakona egiten du, eta 5×5 km-ko UTM gelaxkek ahalbi-detzen duten adinako xehetasun-maila du. Gainera, eta lehenengo aldiz, espezieak egoteko probabilitatea eskala xehean modelizatzen da (1×1 km baino gutxiagoko gelaxkak), haien ugaritasuna estimatzen da, eta banaketa-eremuan aurreko atlasekiko izandako aldaketa-ehunekoa kalkulatzen da.

oficina, llevado a cabo para revisar, filtrar y analizar los datos así como modelizar la distribución y estimar tamaños poblacionales.

Esta obra presenta los resultados que se derivan de 5 años de censos y recopilación de citas en campo (periodo 2016-2020), analizadas y descritas a lo largo de otros dos años más de trabajo de gabinete. Aborda un análisis exhaustivo de la distribución de las aves que se reproducen en Euskadi con el nivel de detalle que permite las celdas UTM de 5×5 km. Además, por primera vez se modeliza la probabilidad de presencia de especies a escala fina (celdas de menos de 1×1 km), se estima su abundancia y se estima el cambio en su área de distribución respecto a atlas previos.

Juan Arizaga

METODOLOGIA 1

AZTERNALAREN EREMUA ETA DENBORA-TARTEA, ETA LAN HONETAN AINTZAT HARTUTAKO ESPEZIEAK

Aztertutako eremua

Atlas honek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoa hartzen du (aurrerantzean, Euskadi), baita beste bi lurralde ere, Euskadikoak ez izan arren *administrazio-uharteak* osatzen dituztenak. Haiek Atlas honetan sartzeak zentzu osoa du ikuspegi biogeografikotik, ekologikotik eta hegazti-faunaren kontserbazioaren ikuspegitik (1. ird.).
Hauek dira lurralde horiek:

(1) Trebiñuko Konderria, Burgos probintziakoa (Gaztela eta Leon), 260 km^2-ko azalera duena, eta, gutxi gorabehera, Arabako erdigune geografikoan kokatua dagoena.

(2) Villaverde Turtzioz, Kantabriakoa, 20 km^2 inguruko azalera duena eta Enkarterriko eskualdearen erdian kokatua dagoena.

METODOLOGÍA 1


ÁREA, PERIODO DE ESTUDIO Y ESPECIES CONSIDERADAS EN ESTA OBRA

Área de estudio

El presente Atlas abarca todo el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca (en adelante, Euskadi), junto a otros dos territorios que, aun no perteneciendo a Euskadi, conforman 'islas' administrativas dentro de ella y cuya inclusión en este Atlas tiene pleno sentido desde un punto de vista biogeográfico, ecológico y de la conservación de la avifauna (Fig. 1).
Estos territorios son:

(1) El Condado de Treviño, perteneciente a la provincia de Burgos (Castilla y León), que ocupa una superficie de 260 km^2 y se localiza, aproximadamente, en el centro geográfico de Álava.

(2) El Valle de Villaverde, perteneciente a Cantabria, que ocupa una superficie de unos 20 km^2 y se sitúa en mitad de la comarca de las Encartaciones.



1. ird. Azterketa-eremua, 5×5 eta 10×10 km-ko UTM gelaxka-sarean oinarritua. Trebiñuko konderria eta Villaverde Turtzioz gris argiz adierazita daude.

Fig. 1. Área de estudio, con la malla de celdas UTM de 5×5 y 10×10 km. El Condado de Treviño y el Valle de Villaverde se indican en color gris claro.

Lurraldea 5×5 km-ko 370 UTM (*Universal Transversal Mercator*) gelaxkatan banatu da (1. ird.). Gelaxka horietan guztietan hainbat iturritako aipamenak biltzeaz gain, lurralde osoko 1×1 km-ko UTM gelaxken %7,6 ere lagindu da: 606 gelaxka zentsu kualitatiboetarako eta 464 gelaxka zentsu kuantitatiboetarako, laginketa-protokolo estandarizatuak erabiliz.

Tokiak izendatzeko, Eusko Jaurlaritzaren geoeuskadi atarian (www.geo.euskadi.eus) adierazitakoa erabili da erreferentziazko toponimia gisa.

Aztertu den denbora tartea

Landa-lan guztia 5 urtez jarraian egin zen, 2016 eta 2020 artean. Salbuespenak salbuespen, Atlas hau egiteko erabili diren aipamen guztiak, beraz, denbora-tarte horretakoak dira. Ia aipamen guztiak, gainera, urtearen oso epe zehatz batean bildu ziren: apirilaren 15etik ekainaren 15era bitartean. Espezie egoiliarrei dagokienez, negutarrak diren edo pasean dauden ale kanpotarrik gehitzen ez bazaie edo lehenago ugaltzen badira, epe horretatik kanpo lortutako aipamenak ere kontuan hartu dira.

Obra honetan kontuan hartutako espezieak

Atlas honek hartzen ditu kontuan, soilik, aztergai duen epean (2016-2020) Euskadin aske ugaldu diren hegazti-espezieak, autoktonoak zein exotikoak izan (azken kasu horretan, itxian edo erdi-askatasuneko baldintzetan ugaldu ez direnak bakarrik).

Atlasean bi espezie-talde hartu dira kontuan:

(1) Ugalketa probableko edo seguruko espezieak.

(2) Espezie osagarriak.

Lehenengo blokean, autoktonoen kasuan, azterketa-epeko urte batean edo gehiagotan ugalketa probablea edo segurua izan duten espezieak sartu dira. Exotikoei dagokienez, 2016-2020 epean ugalketa jarraitua izan dutenak bakarrik hartu dira kontuan. Espezie osagarrien multzoan, zalantzazko edo baieztatu gabeko ugalketa (adibidez, ugalketa posiblea) duten espezie autoktonoak sartu dira, baita espezie exotikoak ere, baldin eta aztertu den denbora-tartean oso noizbehinka soilik ugaldu baziren. Bigarren multzo horretan, gainera, 2016-2020 epean ugaldu ez arren azken 20 urteetan ugaldu ziren espezie autoktonoak gehitu dira.

Taxonomiari dagokionez, atlas honek Nazioarteko Biltzar Ornitologikoak (ingelesez, *International Ornithological Congress, IOC*) gomendatutako zerrenda patroiari (13. bertsioa) jarraitzen dio. Espezie bakoitzaren ordena sistematikoa eta izen zientifikoa (latinez) hartzen dira bertatik. Espainierazko izenetarako 2022ko Rouco *et al*.[8]-en zerrenda erabili da. Euskarazko izenak Euskadiko hegaztien zerrendan oinarritzen dira; zerrenda hori Euskadiko Ornitologia Batzordearen bidez argitaratu da (www.ornitologia.eus).

El territorio se ha dividido en 370 celdas UTM (*Universal Transversal Mercator*) de 5×5 km (Fig. 1). Al margen de la recopilación de citas de diversas fuentes en todas estas celdas, se ha muestreado, también, aproximadamente un 7,6% de las celdas UTM de 1×1 km de todo el territorio: 606 celdas para censos cualitativos y 464 celdas para censos cuantitativos utilizando protocolos de muestreo estandarizados.

A la hora de nombrar lugares se ha utilizado como toponimia de referencia la referida en el portal geoeuskadi (www.geo.euskadi.eus), del Gobierno Vasco.

Periodo de estudio

Todo el trabajo de campo se llevó a cabo durante un periodo de 5 años (2016-2020). Salvo excepciones, todas las citas que se han utilizado en este Atlas provienen, en consecuencia, de este intervalo de tiempo. Casi todas ellas, además, se recolectaron entre el 15 de abril y el 15 de junio. En especies residentes para las que no existe un aporte de individuos foráneos invernantes o en paso, o en las que su reproducción tiene lugar antes, se consideraron, adicionalmente, citas obtenidas fuera de este periodo.

Especies consideradas en esta obra

Este Atlas abarca aquellas especies de aves que han criado en libertad en Euskadi durante el periodo 2016-2020, tanto si se trata de especies autóctonas como exóticas.

En el Atlas se han considerado dos grupos de especies:

(1) Especies de reproducción probable o segura.

(2) Especies complementarias.

En el primer bloque, en el caso de las autóctonas solo se han incluido las especies de reproducción probable o segura en uno o más de los años del periodo de estudio. Para las exóticas han sido consideradas sólo aquellas en las que se ha registrado su reproducción continuada durante el periodo 2016-2020. En el bloque de especies complementarias se han incluido las especies autóctonas de reproducción dudosa o no confirmada (*e. g.*, reproducción posible), así como las exóticas que se reprodujeron sólo ocasionalmente durante el periodo de estudio. En este segundo bloque, además, se han añadido las especies autóctonas que, no habiendo criado en el periodo 2016-2020, sí lo hicieron durante los últimos 20 años.

En cuanto a taxonomía, este Atlas sigue la lista patrón (versión 13) recomendada por el Congreso Ornitológico Internacional (en inglés, *International Ornithological Congress, IOC*), de la cual se toman el orden sistemático y el nombre científico (latín). Para los nombres en español se ha empleado la lista de 2022 de Rouco *et al*.[8]. Los nombres en euskera se basan en la lista de aves de Euskadi publicada por el Comité Ornitológico de Euskadi (www.ornitologia.eus).

Juan Arizaga, Maite Laso

METODOLOGIA 2
ZENTSUAK

Datuak biltzeko oinarria bi bloke handi izan dira, osagarriak: zentsu estandarizatuak, Atlas honetarako berariaz eginak lurraldearen estaldura nahikoa eta egokia bermatzeko, eta beste iturri batzuetatik datozen hegazti habiagileen han-hemenkako aipamenen multzoa, hala nola Ornitho Euskadi ataria edo beste zentsu espezifikoak –habitat, espezie edo espezie-talde oso zehatzetan ardaztuak–. Datu-iturri horiek zerrenda honetan zehazten dira:

– Zentsu estandarizatuak, maila kuantitatiboan zein kualitatiboan.
– Zentsu espezifikoak, probintzia edo autonomia mailakoak, hegazti ugaltzaileen populazio absolutua zehaztera bideratuak.
– Han-hemenkako aipamenak, iturri hauetakoak: Ornitho Euskadi, Aranzadi Zientzia Elkartearen Eraztuntze Bulegoa eta ENIS (Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema).

Zentsu estandarizatuen arloko landa-lana errazteko, probintziako koordinatzaile bat edo batzuk ezarri ziren, boluntarioak biltzeko eta konpromiso metodologikoak betetzen zirela zaintzeko ardura izango zutenak. Bestalde, koordinazio orokorra Aranzadik egin zuen, lurraldearen estaldura nahikoa eta egokia egiten zela bermatzeko. Gipuzkoako koordinazioa Aldundiak egin zuen, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko basozainen eta Itsas Enara ornitologia-elkartearen bidez. Bizkaiaren kasuan, koordinazio hori Lanius ornitologia-elkarteak hartu zuen bere gain, eta Arabaren kasuan, Arabako Natur Institutuak. Beste bi probintzietan ez bezala, Araban ezin izan zen behar adina boluntario bildu, eta, beraz, administrazioen laguntza eskatu behar izan zen probintzia osoa behar bezala lagintzen zela bermatzeko. Laguntza hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren kontratazio bati (2019) eta Arabako Foru Aldundiak egindako bi kontratazio gehiagori (2019 eta 2020) esker gauzatu zen.

Zentsu kualitatiboak

Helburua zen ahalik eta espezie gehien detektatzea, ordubetez, 1×1 km-ko UTM gelaxka batean. Zentsu hori bi aldiz egin zen gelaxka bakoitzean: laginketa bat apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitartean, eta bigarren laginketa bat maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean. Laginketa-protokoloari jarraituz, 1×1 km-ko bi gelaxkaren laginketa egin zen 5×5 km-ko gelaxka bakoitzaren barruan. Horren arabera, guztira 1×1 km-ko 740 gelaxka daude Euskadi osoan lagindu daitezkeenak. Errealitatean, zenbaki hori pixka bat baxuagoa da. Izan ere, 5×5 km-ko gelaxka asko mugakideak dira, eta araketa ornitologikoa egin beharreko eremuak, askotan, 1×1 km-ko gelaxka bakarra sartzeko aukera baizik ez zuen ematen, edo bat bera ere ez zenbaitetan. Landa-lana egiteko ardura zuten behatzaileek 1×1 km-ko bi gelaxka aukeratu behar zituzten, haien bidez

METODOLOGÍA 2
CENSOS


La recogida de datos se ha basado en: (1) censos estandarizados, exclusivos para este Atlas, cuyo objetivo es garantizar una cobertura del territorio suficiente y adecuada, y (2) la recopilación de citas de aves nidificantes procedentes de otras fuentes tales como el portal Ornitho Euskadi o censos específicos. Estas fuentes de datos se detallan en el siguiente listado:

– Censos estandarizados, tanto a nivel cuantitativo como cualitativo.
– Censos específicos, orientados a determinar el tamaño absoluto de poblaciones de aves reproductoras.
– Citas casuales, procedentes de Ornitho Euskadi, la Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y el SINE (Sistema de Información de la Naturaleza de Euskadi).

Para facilitar el trabajo de campo en el ámbito de los censos estandarizados se estableció uno o varios coordinadores provinciales, encargados de reclutar voluntarios y velar por el cumplimiento de los compromisos metodológicos. La coordinación en Gipuzkoa fue realizada por la Diputación, a través de los guardas forestales del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, así como por Itsas Enara Ornitologi Elkartea. En el caso de Bizkaia esta coordinación fue asumida por la Sociedad Ornitológica Lanius y en el de Araba, por el Instituto Alavés de la Naturaleza. A diferencia de las otras dos provincias, en el caso de Araba no se pudo reclutar un número suficiente de personas voluntarias, de tal modo que fue necesario solicitar el apoyo de las Administraciones con el fin de garantizar que toda la provincia se muestreara adecuadamente. Tal apoyo se llevó a cabo gracias a una contratación del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente de Gobierno Vasco (2019) y a la Diputación Foral de Araba (2019 y 2020). La coordinación general se realizó desde Aranzadi, con el fin último de garantizar la viabilidad de todo el proyecto.

Censos cualitativos

Consistieron en detectar el mayor número posible de especies, durante un periodo de 1 hora, en una celda UTM de 1×1 km. Este censo se realizó dos veces por celda: un primer muestreo entre el 15 de abril y el 15 de mayo; un segundo muestreo entre el 16 de mayo y el 15 de junio. El protocolo de muestreo consistió en la prospección de dos celdas de 1×1 km dentro de cada celda de 5×5 km, lo que arroja un total potencial de 740 celdas de 1×1 km a muestrear en el conjunto de Euskadi. En realidad, este número es algo más bajo, ya que muchas celdas de 5×5 km son limítrofes y la superficie de territorio sujeta a prospección ornitológica, a menudo, sólo permitía incluir una o ninguna celda de 1×1 km. Los observadores responsables de llevar a cabo el trabajo de campo debían elegir dos celdas de 1×1 km que representaran razonablemente bien el o los



2. ird. 5×5 km-ko eta 1×1 km-ko UTM lauki-sarea. Bertan, zentsu kualitatiboaren (goian) zein kuantitatiboaren (behean) xede izan ziren gelaxkak erakusten dira. Baliozkotutako gelaxkak bakarrik adierazten dira mapa honetan; hau da, gertatze-ereduak (zentsu kualitatiboen kasuan) eta populazio-tamainen kalkuluak (zentsu kuantitatiboak) egiteko erabilitakoak.

Fig. 2. Cuadrícula UTM de 5×5 km y 1×1 km en la cual se muestran las celdas que fueron objeto de censo, tanto a nivel cualitativo (arriba) como cuantitativo (abajo). Sólo se consideran en este mapa celdas validadas y, en consecuencia, utilizadas para la elaboración de modelos de ocurrencia (en el caso de censos cualitativos) y estimas de tamaños poblacionales (censos cuantitativos).

5×5 km-ko gelaxkako habitatik ugarienak behar bezala ordezkatzeko. Logistika errazteko, 1×1 km-ko gelaxkek sarbide egokiak izan behar zituzten laginketa ahalbidetzeko. Guztira, 1×1 km-ko 606 gelaxka zentsatu ziren, 5×5 km-ko 304 gelaxkatan zeudenak. (2. ird.). Hori, gutxi gorabehera, lagin-du zen eremuaren %8 da. Zenbaketa horretan, bi laginketak eginda dituzten gelaxkak bakarrik hartzen dira kontuan. Beraz, baztertu egiten dira edozein arrazoi dela-eta laginketa bakarra egin zitzaien gelaxkak.

Lagindutako 1×1 km-ko gelaxken denbora-banaketa 3. irudian aurkezten da. Ikus daitekeenez, araketa gehienak 2019-2020 epean egin ziren, neurri batean arrazoi honengatik: Araban, zentsuen kontratazioa ez zen 2019 arte hasi, eta lurralde horrek, duen tamaina handia dela eta, pisu handiagoa du zentsatutako gelaxkak zenbatzerakoan.

Zentsu kuantitatiboak


500 metroko trantsektua egin behar zen, gutxi gorabehera 2 km/h-ko abiadura homogeneoan (hau da, 15 min/trantsektua). Trantsektuan zehar, bertan zeuden espezieetako bakoitzean detektatutako ale-kopurua zenbatu behar zen, eta, horrez gain, trantsektuaren ardatzaren alde banatan 25 metroko zerrenda baten barruan edo kanpoan behatzen ote ziren adierazi behar zen, baita (ahal zen neurrian) aleen sexua ere. Atlasaren ardatza hegazti ugaltzaileak direnez, hegazti helduak baino ez ziren zenbatu, eta, ondorioz, ez ziren kontuan hartu txitak eta urte horretan jaiotako hegazti gazteak (EURING 3 adina)[9]. Trantsektuak egiteko, 1×1 km-ko bina gelaxka aukeratu ziren 5×5 km-ko gelaxaka bakoitzeko, zentsu kualitatiboetako gelaxka berak izan gabe (2. ird.). Era horretan zentsatutako trantsektu-kopuruari (*n* = 425) 2021ean hiriguneetan egindako 500 m-ko luzerako 25 trantsektu gehitu zitzaizkion (behatzaileak: O. Aizpurua, L. M. Carrascal, A. Galarza), bai eta beste 14 ere, 2014an mendi-eremu garaietan egindako zentsuetatik

hábitats más abundantes de la celda de 5×5 km. Para facilitar la logística, las celdas de 1×1 km debían contar con accesos adecuados que posibilitaran su muestreo. En conjunto, se censaron 606 celdas de 1×1 km, incluidas en un total de 304 celdas de 5×5 km (Fig. 2). Esto supone, aproximadamente, un 8% de la superficie que fue objeto de muestreo. En este cómputo sólo se consideraron las celdas con los dos muestreos. Se descartaron, por tanto, aquellas celdas para las que, por las razones que fueran, sólo se hizo un muestreo.

La distribución temporal de celdas de 1×1 km muestreadas se presenta en la Fig. 3. Como puede verse, el grueso de las prospecciones fue realizado en 2019-2020, en cierto modo debido a que no fue hasta 2019 cuando se inició la contratación de censos en Araba que, por su gran tamaño, adquiere un peso superior en el cómputo general de las celdas censadas.

Censos cuantitativos

Consistieron en la realización de un transecto de 500 m, que había que recorrer a velocidad aproximadamente homogénea de unos 2 km/h (esto es, 15 min/transecto). A lo largo del mismo se debía contar el número de individuos detectados de cada una de las especies presentes, indicando además si eran observados dentro o fuera de una banda de 25 m a cada lado del eje del transecto, así como (en lo posible) el sexo de los ejemplares. Puesto que el Atlas se centra en aves reproductoras, sólo se contabilizaron aves adultas, descartándose en consecuencia pollos o aves jóvenes nacidas en el año en curso (edad EURING 3)[9]. Para realizar los transectos se escogieron sendas celdas de 1×1 km por cada una de 5×5 km, que debían ser diferentes a las de los censos cualitativos (Fig. 2). Al número de transectos censados de este modo (*n* = 425) se añadieron 25 procedentes de transectos de 500 m de longitud realizados en núcleos urbanos en 2021 (observadores: O. Aizpurua, L. M. Carrascal, A. Galarza) y otros 14 procedentes de censos llevados a cabo en 2014



3. ird. Atlasaren laginketa-epean urte bakoitzean zentsatutako 1×1 km-ko UTM gelaxken kopurua.

Fig. 3. Número de celdas UTM de 1×1 km censadas por año durante el periodo de muestreo del Atlas.

etorritakoak (L. M. Carrascal) –Atlas honen jatorrizko laginketa kuantita-tiboan gutxi agertzen diren habitatak erakusten dituzte–. Guztira, 464 trantsektu erabili ziren ugaritasunak kalkulatzeko.

Beste iturri batzuk

Zentsu espezifikoak

Monitorizazio espezifikoa duten espezie bat baino gehiago daude Euskadin. Zentsu estandarizatuen protokoloaren bidez detektatzen zailak izaten dira espezie horiek. Ondorioz, haien zentsua optimizatzeko, berariazko metodologiak behar izan dituzte. Jarraian, Atlasean erabili diren Euskadin egindako zentsu espezifikoak deskribatzen dira.

2005-2017 epean, hegazti urtarrak ugaltze-garaian monitorizatzeko programa bat egon zen aktibo lurralde osoan[10,11]. Programa hori HAZIk koordinatu zuen Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-gomendio baten bidez. Batez ere sistema urtar lentikoetan oinarritua zegoen, hau da, nagusiki, urtegietan, legar-hobietan, urmaeletan, ureztapen-putzuetan edo aintziretan[10]. Horrez gain, programa horrek ibai-zati batzuk ere barne hartu zituen, bereziki Bizkaian, baina, argi eta garbi, estaldura espaziala eta laginketa-puntuen kopurua ez ziren nahikoak izan ibaietako hegaztifaunaren estimazio fidagarriak lortzeko.

Atlas honen testuinguruan, 2018an gaueko hegaztiei (bereziki, estrigiformeei) buruzko zentsu espezifiko bat finantzatzea sustatu zen Euskadi osoan. Horri esker, lurralderako lehen aldiz, espezie bakoitzaren banaketa espaziala modelizatzeko datu estandarizatuak lortu ziren (xehetasun gehiagorako, ikus presentzia-probabilitatearen modelizazioen atala)[12].

Gainera, badaude epe luzerako monitorizazio-programa espezifiko batzuk, pertsona edo erakunde publiko zein pribatuek aldizkakotasun aldakorrarekin gauzatzen dituztenak, zonen eta espezieen arabera:

(1) Zikoina zuria. Urtero zentsatu da, bai Araban (G. Belamendia), bai Bizkaian (Foru Aldundiko zaintza-zerbitzuak).

(2) Kolonietako ardeidoak. Urtero zentsatu dira Araban (G. Belamendia).

(3) Ubarroi mottoduna. Itsas Enara ornitologia-elkarteak Gipuzkoan egindako zentsuak[13] (aldizkakotasun aldakorra: 2003, 2007, 2011, 2015, 2019) eta azken urteetan Bizkaian J. Hidalgo eta M. Zárraga buru izan dituen talde batek egindakoak[14] (aldizkakotasun eta laginketa-ahalegin aldakorra, kolonien arabera: 1989, 1990, 1996, 2006, 2008, 2011, 2014-2017, 2019). 2019an, populazioaren zentsu oso bat egin zen lurraldean.

(4) Harrapari harkaiztarrak. Eguneko harrapari harkaiztarren eremuen edo kolonien zentsuak: sai arrea, sai zuria eta belatz handia. Gipuzkoan Aldundiko basozainek egiten dituzte zentsuak, eta, Araban eta Bizkaian, berriz, zabalagoa da kasuistika, lankidetza publiko-pribatuaren bidez egiten baita. Bestalde, ugatza ere espezifikoki monitorizatzen da (Gipuzkoako Foru Aldundia).

en zonas altas de montaña (L. M. Carrascal), que muestran hábitats infrarrepresentados en el muestreo original cuantitativo de este Atlas. En conjunto, el número de transectos utilizados para la estima de las abundancias fue de 464.

Otras fuentes

Censos específicos

Son varias las especies que son objeto de monitorización específica en Euskadi. Suelen ser especies con baja detectabilidad que, por ello, demandan metodologías propias orientadas a optimizar su censo. A continuación se describen los censos que, dentro de este contexto, han sido utilizados en este Atlas.

Durante el periodo 2005-2017 estuvo activo en todo el territorio un censo de aves acuáticas en época de reproducción[10,11]. Coordinado desde HAZI por una encomienda de Gobierno Vasco, se centraba fundamentalmente en sistemas lénticos (embalses, graveras, lagunas, balsas de riego o lagos, principalmente)[10], aunque también incluía tramos fluviales, especialmente en Bizkaia, pero con una cobertura espacial y número de puntos de muestreo insuficientes para obtener estimas fiables de la avifauna asociada a ríos.

En el contexto de este Atlas, en 2018 se realizó un censo específico sobre aves nocturnas (particularmente, estrigiformes) en todo Euskadi. Gracias a ello, por primera vez para el territorio se obtuvieron datos estandarizados con los que se modelizó la distribución espacial de cada una de las especies (para más detalles ver el apartado de modelizaciones de la probabilidad de presencia)[12].

Existen, además, varios programas de monitorización a largo plazo que son llevados a cabo por diferentes personas o entes, tanto públicos como privados, con una periodicidad variable, según zonas y especies:

(1) Cigüeña blanca. Censada anualmente, tanto en Araba (G. Belamendia) como en Bizkaia (guardería de la Diputación Foral).

(2) Ardeidas coloniales. Censadas anualmente en Araba (G. Belamendia).

(3) Cormorán moñudo. Censos llevados a cabo por Itsas Enara Ornitologi Elkartea en Gipuzkoa[13] (periodicidad variable; 2003, 2007, 2011, 2015, 2019) y un equipo que durante los últimos años han liderado J. Hidalgo y M. Zárraga en Bizkaia[14] (periodicidad y esfuerzo de muestreo variable por colonias: 1989, 1990, 1996, 2006, 2008, 2011, 2014-2017, 2019). En 2019 se realizó un censo total de la población en el territorio.

(4) Rapaces rupícolas. Censos de territorios o colonias de rapaces rupícolas diurnas: buitre leonado, alimoche común y halcón peregrino. En el caso de Gipuzkoa los censos son llevados a cabo por los guardas forestales de la Diputación, mientras que en Araba y Bizkaia existe una casuística más variada, que incluye colaboración público-privada. Por otro lado, el quebrantahuesos es objeto de monitorización específica (Diputación de Gipuzkoa).

(5) Aguiluchos. Censados anualmente en Araba (A. F. Rodríguez), por una encomienda de la Diputación.

(5) Mirotzak. Urtero zentsatu dira Araban (A. F. Rodriguez), Aldundiaren kudeaketa-gomendio baten bidez.

(6) Miru gorria. Gipuzkoan, urteroko jarraipen-programa bat dago.

(7) Kaio-koloniak euskal kostaldean. Gaur egun, bi urtean behin zentsatzen dira kostaldean dauden kolonia guztiak, hau da, populazioaren ia %100 (badaude bikote bakan batzuk Salburuan eta Arabako erdialdeko urtegietan)[15]. Programa hori Aranzadi Zientzia Elkarteak koordinatzen du, eta kaio iluna eta hankahoria ditu ardatz. Kaio beltz atlantikoa programa honetatik kanpo monitorizatzen da, oso eskasa baita[16].

Horrez gain, zentsu puntualak egiten dira, populazio-tamainak eta/edo banaketa-eremuak estimatzeko, baina epe luzerako monitorizazio-programetatik bereizita. Iturri-mota horiek "Beste datu batzuk" atalean sartu dira.

Ornitho Euskadiren aipamenak

Euskadin Ornitho Euskadi (www.ornitho.eus) da erreferentziazko ataria fauna-aipamenak biltzeko eta biltegiratzeko. Batez beste, 150000 erregistrotik gorako ekarpena du urtean, eta haietatik %92 baino gehiago hegaztienak dira. Horrela, protokolo estandarizatuak aplikatzearekin batera, sustatu zen ataria erabiltzea Atlasera datuak bidaltzeko, era horretan nahi zuen behatzaile orok eman zitzan espezie ugaltzaileen aipamenak. Atariari eta hari lotutako NaturaList aplikazioari esker, berehala eta xehetasunez egin zitekeen bidalketa hori, baita landatik bertatik ere. Horrela, Ornitho Euskadi izan da atlaserako informazio-iturri garrantzitsuena, zentsu estandarizatuekin batera.

Erastuntze-proiektuak

Atlas honek kontuan hartu ditu, halaber, lurraldean eraztunak jartzeko kanpainetatik datozen aipamenak (iturria: Aranzadi Zientzia Elkartearen Eraztuntze Bulegoa). Bereziki, kontuan hartu dira hegaztien adinari, ugaltze-egoerari eta lumaberritze-egoerari erreferentzia egiten zioten datuak, 2016-2020 epean lortuak.

Beste datu batzuk

Azken buruan, hegazti-atlas baten helburua da lurralde batean ugaltzen diren espezieen aipamen eskuragarri guztiak biltzea, espezieen banaketaren irudikapen geografikoa ahalik eta errealena eta zehatzena izan dadin. Gauzak horrela, Atlasak beste jatorri batzuetako datuak ere sartu zituen aipatutakoez gain. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

(1) SEO/BirdLife-k Espainiako hegazti ugaltzaileen atlaserako egindako zentsuak[2] eta ugaltze-aldian dauden hegazti arrunten jarraipenerako SACRE programa, populazioen ugaritasunaren joerak estimatzekoa[17].

(2) Hainbat behatzailek adierazitako han-hemenkako aipamenak, Ornitho Euskadiren moduko datu-bilketako sistema estandarizatuez kanpokoak, partikularren koadernoetan bildutako landa-oharrak barne hartzen dituztenak.

(3) Erakunde publikoek zein pribatuek (aholkulariek, elkarteek edo partikularrek) sortutako baliabide bibliografikoak, bereziki txosten argitaragabeak[18,23].

(6) Milano real. Existe un programa de seguimiento anual en Gipuzkoa.

(7) Colonias de gaviotas en la costa vasca. En la actualidad se censan cada dos años la totalidad de las colonias que se ubican en la costa, lo cual supone prácticamente el 100% de la población (existen algunas parejas, testimoniales, en Salburua y los embalses del centro de Araba)[15]. Este programa lo coordina la Sociedad de Ciencias Aranzadi y se centra tanto en la gaviota sombría como en la patiamarilla. El gavión atlántico se monitoriza al margen de este programa, dada su escasez[16].

Adicionalmente, se suelen llevar a cabo censos puntuales, orientados a estimar tamaños poblacionales y/o áreas de distribución, pero desligados de programas de monitorización a largo plazo. Este tipo de fuentes se consideran en el apartado "Otros Datos".

Citas de Ornitho Euskadi

Ornitho Euskadi (www.ornitho.eus) es el portal de referencia en Euskadi para la recopilación y almacenamiento de citas de fauna. Cuenta con una aportación media anual que supera los 150000 registros, de los que más del 92% son de aves. Así, en paralelo a la aplicación de protocolos estandarizados se promovió el uso del portal para el envío de datos al Atlas, de tal modo que todo observador que lo deseara pudiera aportar citas de especies reproductoras. Tanto el portal como la aplicación NaturaList (asociada al portal) facilitaban dicho envío de manera inmediata y detallada, incluso desde el campo. De este modo, Ornitho Euskadi se ha constituido en la fuente de información principal, junto con los censos estandarizados.

Proyectos de anillamiento

Este Atlas también ha tenido en cuenta las citas que provienen de campañas de anillamiento (fuente: Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi). Se han considerado los datos que, obtenidos durante el periodo 2016-2020, hacían referencia a aves nidificantes a partir de su edad, estado reproductor o muda.

Otros datos

Un atlas aspira a recolectar todas las citas disponibles de las especies que hay en un territorio para que la representación de su distribución sea lo más real y precisa posible. Por esto, el Atlas también incluyó datos de otras fuentes al margen de las ya mencionadas, destacando:

(1) Censos llevados a cabo por SEO/BirdLife para el atlas de aves reproductoras de España[2] y el programa SACRE para el seguimiento de aves comunes en periodo de reproducción, destinado a la estima de tendencias en la abundancia de poblaciones[17].

(2) Citas casuales, reportadas por diferentes observadores, al margen de sistemas estandarizados de recogida de datos tales como Ornitho Euskadi, que incluyen las notas de campo recolectadas en cuadernos de particulares.

(3) Recursos bibliográficos, particularmente informes inéditos, llevados a cabo tanto por entes públicos como privados (consultoras, asociaciones o particulares)[18,23].

METODOLOGIA 3

MAPAK, EREDUAK ETA ESTIMAZIOAK

Banaketa-mapa, 5×5 km-ko gelaxken eskalan

Ugalketa-banaketa eta -ebidentzia

Euskadin hegazti-espezie habiagileetako bakoitzak betetzen duen eremu geografikoa zehazteko –5×5 km-ko UTM gelaxken eskalan–, hegazti ugaltzaileen aipamen guztiak hartu ziren kontuan, datu-iturria edozein zela ere. Iturrien heterogeneotasuna dela eta, kasu bakoitzean jatorrizko informazioari tratamendu bat aplikatu behar izan zitzaion, era horretan, eremu bakoitzean ugaltzeko oso probabilitate handia zuten aipamenak soilik hautatzeko Atlaserako; hau da, ugalketa-ebidentzia moduan ezagutzen dena betetzen zutenak (1. taula). Hori guztia kontuan hartuta, hegazti habiagileen atlas baten erronka nagusia da alderdi jakin batean ugalketa gertatzen dela zehaztea, nahiz eta kasu jakin horretarako horren zantzu argirik ez izan (C kodeak). Hori gertatzen da ugalketa gertatzen dela onartzeko banako baten (edo batzuen) presentzia hutsa nahikoa ez den espezieetan. Migrazio-pasean dauden banakoena da kasu tipikoa. Izan ere, ale bat ugalketarako habitat eta garai egokian ikusteak ez du esan nahi, nahitaez, ugaltzen ari denik. Beste kasu tipiko bat ez-ugaltzaileak diren aleena da. Sarritan espezie handietako helduaurrekoak dira, eta Euskadin geratzen dira ugalketa-garaian, baina horrek ez du esan nahi lurraldeko talde ugaltzailearen parte direnik. Mota horretako balizko alborapenak murrizteko (hau da, migrazio-paseko hegaztien eta/edo udako hegazti ez-ugaltzaileen aipamenak sartzea Atlasean), iragazki fenologiko bat aplikatu zitzaion espezie bakoitzari. Funtsean, mota horretako iragazki bat erabiltzen da zehazteko ea hegazti bat, gelaxka jakin batean egotean, ugaltzailetzat har daitekeen edo ez, behatzen den urteko garaia kontuan hartuta[1,3].

Jarraian, Euskadin habia egiten duten hegazti-espezie guztiei iragazki fenologikoaren bidez aplikatutako irizpideen zerrenda zehazten da, hainbat kategoria kontuan hartuta. *A priori*, 1. taulan (hau da, Atlas-kodean) azaltzen diren irizpideek determinatzen dute edozein espezieren aipamen bat ugaltzaile posibletzat, probabletzat edo segurutzat hartzea. Iragazki fenologikoak, funtsean, A1 kodea (ugalketarako habitat eta garai egokietan egotea) esleituta daukaten aipamenei eragiten die. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, taxon batzuentzat, ez da posible presentzia-datetan oinarritutako datuen iragazki bat ere erabiltzea ugaltzailetzat hartzeko. Horrela, bada, kategoria bakoitzerako adierazten da noiz (iragazki fenologikoa) eta zein

METODOLOGÍA 3

MAPAS, MODELOS Y ESTIMAS

Mapa de distribución a escala de celdas de 5×5 km

Distribución y evidencia de reproducción

Para determinar el área geográfica que cada una de las especies presenta en Euskadi, a escala de celdas UTM de 5×5 km, se tuvieron en cuenta todas las citas de aves reproductoras, fuera cual fuera la fuente de datos. Debido a la heterogeneidad de fuentes, se aplicó un filtro a todos estos datos con el fin de seleccionar para el Atlas solo las citas con, como mínimo, una probabilidad muy alta de reproducirse en cada zona, lo que se conoce como evidencias de reproducción (Tabla 1). En este contexto, el principal reto consistió en determinar la reproducción en una zona dada sin que para ese caso particular se dispusiera de signos claros de ello (códigos C). Esto ocurre en especies en las que la sola presencia de un individuo (o varios) no es suficiente para asumir su reproducción. Caso típico es el de individuos en paso migratorio, en los que el hecho de observar un ejemplar en hábitat y periodo adecuados para la cría no indica, necesariamente, su reproducción. O de ejemplares no reproductores, a menudo subadultos en el caso de especies de gran tamaño, que pueden llegar a quedarse en Euskadi en época de cría pero sin por ello ser parte del núcleo reproductor en el territorio. Para paliar posibles sesgos de este tipo (esto es, incorporar al Atlas citas de aves en paso migratorio y/o estivales no reproductoras), se aplicó un filtro fenológico para cada una de las especies. En esencia, un filtro de esta naturaleza es una herramienta que se usa para determinar si la presencia de un ave en una celda dada puede (o no) considerarse como reproductora según la época del año en que se observa[1,3].

A continuación se detalla la relación de criterios aplicados al conjunto de especies de aves nidificantes en Euskadi, considerando diferentes categorías. *A priori*, la consideración de toda cita como especie reproductora posible, probable o segura responde a los criterios que se explican en la Tabla 1, o código Atlas. El filtro fenológico afecta, fundamentalmente, a las citas que tienen asignado el código A1 (presencia en hábitat y periodo adecuados para la cría). No obstante, existen algunos taxones para los que ni siquiera un filtro por fechas para datos de presencia se puede dar por válido para considerar su reproducción. Así pues, para cada una de las categorías se indica cuándo (filtro fenológico) y a partir de qué código una cita se valida como evidencia de reproducción posible, probable o segura.

Kodea	Azalpena
Ugalketa posiblea	
A1	Espeziearen presentzia, ugalketarako habitat eta garai egokian
A2	Arra ugalketa-garaian kantari
Ugalketa probablea	
B3	Bikotea, ugalketarako habitat eta garai egokian detektatua
B4	Jokaera lurraldekoia, leku berean egun ezberdinetan behatua
B5	Eztei-errituala, gorteatzea
B6	Ugalketa-leku probable batera joaten
B7	Jokaera larritua, habia baten presentzia iradokitzen duena
B8	Emea/arra, txitatze-plaka duena
B9	Habia egiten
Ugalketa segurua	
C10	Predatzaileak nahasteko jokaera
C11	Habia, uneko urtean erabiltzen ari den zantzuak dituena
C12	Txitak edo hegan egiten hasi aurreko hegaztiak
C13	Habia bat, hegazti bat txitatzen duena edo edukia ikusten ez zaiona
C14	Heldua, janaria edo gorotz-zakuak eramaten
C15	Habia, arrautzak dituena
C16	Habia, txitak dituena (ikusitakoak edo entzundakoak)

1. taula. Ugalketa-ebidentziak.

Código	Explicación
Reproducción posible	
A1	Presencia de la especie en hábitat y época adecuados para la cría
A2	Macho cantando en época de cría
Reproducción probable	
B3	Pareja detectada en hábitat y periodo adecuados para la cría
B4	Comportamiento territorial, observado en el mismo lugar en días diferentes
B5	Parada nupcial, cortejo
B6	Visitando un sitio de cría probable
B7	Comportamiento agitado que sugiere la presencia de un nido
B8	Hembra/macho con placa incubatriz
B9	Construcción de nido
Reproducción segura	
C10	Comportamiento de distracción de depredadores
C11	Nido con signos de uso en el año en curso
C12	Pollos, volantones
C13	Nido con un ave incubando o que no se ve el contenido
C14	Adulto llevando alimento o sacos fecales
C15	Nido con huevos
C16	Nido con pollos (vistos u oídos)

Tabla 1. Evidencias de reproducción.

kodetatik aurrera baliozkotzen den aipamen bat ugalketa posible, probable edo segurutzat.

(1) Espezie sedentario arruntetan, Euskaditik kanpoko hegazti negutarren ekarpena nulua edo baztergarria izaten da; gainera, laster ugaltzen dira, eta, sarritan, urteko errunaldi bat baino gehiago izaten dute. Horrelakoetan, martxotik abuztura arte lortutako aipamen orori A1 kodea esleitu zitzaion (A2, B edo C Atlas-koderik ez bazuen). Haiei buruzko aipamenak, beraz, ugaltzaile posibletzat hartu ziren. Ugalketa are goiztiarragoa duten espezie jakin batzuetan irizpide hori aplikatu zen, baina urtarrila-ekaina epea hartuta. Espezie horietan guztietan, adierazi den epeko A2 kodea eta B kodeak ugalketa probableko ebidentziatzat hartu ziren (kasu horietan, kantari ari den ar batek oso probabilitate handiz adierazten du lurralde iraunkor bat, B4 kode baten baliokidea). C Atlas-kode bati lotutako edozein aipamen, urteko unea edozein zela ere, ugalketa seguru gisa baliozkotu zen zuzenean. Adibidea: paridoak, garrapoak eta txolarreak.

(2) Seguru antzean tokiko egoiliarrak izanda tokiko jatorria ez duten hegazti negutar edo pasekoen ekarpen handikoak diren espezieetan, maiatzetik ekainera arteko aipamen orori A1 kodea esleitu zitzaion (beste Atlas-koderik esleituta ez bazuten, hala nola A2, B edo C). Egoera hori gertatzen da kontinentearen hegoaldeko penintsuletan eta Afrika iparraldean negua igarotzen duten espezie askoren Europa erdialdeko eta iparraldeko

(1) En especies residentes, comunes, en las que el aporte de aves invernantes de fuera de Euskadi es nulo o marginal, que además suelen criar pronto y que con frecuencia tienen más de una puesta por año, a toda cita obtenida desde marzo hasta agosto se le asignó el código A1 (en caso de que no tuviera ya asignado un código Atlas A2, B o C). Tales observaciones se consideraron, en consecuencia, como reproductores posibles. En determinadas especies de reproducción aún más temprana se aplicó este criterio, pero considerando el periodo enero-junio. En todas estas especies, el código A2 así como los códigos B dentro del periodo que se ha indicado se consideraron como evidencia de reproducción probable (en estos casos un macho cantando indica con muy alta probabilidad un territorio permanente, equivalente a un código B4). Cualquier cita asociada a un código Atlas C, fuera cual fuera el momento del año, se validó directamente como reproducción segura. Ejemplo: páridos, trepador o gorriones.

(2) En especies que posiblemente son residentes a nivel local, pero para las que existe un aporte importante de aves de origen no local en paso y/o en invernada, a toda cita obtenida desde mayo hasta junio se le asignó el código A1 (en caso de que no tuviera ya asignado otro código Atlas, como A2, B o C). Esta circunstancia se da con las poblaciones del centro y el norte de Europa de muchas especies que invernan en las penínsulas del sur del continente y el norte de África, cuyo paso migratorio en

populazioekin. Izan ere, espezie horien migrazio-pasea apirila arte luzatzen da maiz Euskadin[24]. Aipamen horiek ugaltzaile posibletzat hartu ziren. Aurreko kasuan bezala, espezie horietan guztietan, adierazi den epearen barruko A2 kodea eta B kodeak ugalketa probableko ebidentziatzat hartu ziren (izan ere, kantari ari den ar batek, epe horretarako, oso probabilitate handia du ugalketalurralde bat defendatzen aritzeko, eta hori B4 kode baten baliokidea da). C Atlas-kode bati lotutako edozein aipamen, urteko unea edozein zela ere, ugalketa seguru gisa baliozkotu zen zuzenean. Adibidez: buztanikarak, txantxangorriak, Saharaz iparraldeko txinboak, fringilidoak edo enberizidoak (berdantza miarritza izan ezik).

(3) Espezie transahararrak –hau da, negua Saharaz hegoaldeko Afrikan igarotzen dutenak– sarritan berandu igarotzen dira udaberrian; horrelakoen A1 kodeko aipamen guztiak Atlas honetatik kanpo utzi ziren, eta soilik sartu ziren, ugaltzaile posible gisa, maiatzetik ekainera bitarteko A2 kodea hasieratik esleitu zitzaienak. Espezie urrienetan edo migrazio-pasean kantatzen dutenetan ere (urretxoriak eta urretxindorrak, adibidez) B4 kodea edo goragokoa zuten aipamenak bakarrik hartu ziren kontuan.

(4) Anatido, zikoniforme, ubarroi, kaio eta harkaitzei lotutako harraparien kasuan, ugalketa seguruko puntuak baizik ez ziren sartu Atlasean, hau da, C kodeko aipamenak. Izan ere, horrelako espezieetan maiz agertzen dira hegazti ez-ugaltzaileak, baita ugaltze-garaian ere –bai ale helduaurrekoak direlako, bai helduak izanik edozein arrazoi dela kausa eskualdean ugalduko ez direlako–. Nolanahi ere, banako horiek ezin dira populazio ugaltzaile gisa zenbatu. Irizpide horren salbuespen basahatearen aipamenak izan ziren. Lurralde osoan oso hedatuta dago espezie hori. Kasu horretan, martxotik ekainera bitarte lortutako aipamenak ere ugalketa posibleko banakotzat hartu ziren.

Eraztuntze-datuen kasuan, ugalketa segurutzat hartu ziren habian eraztuna jarritako hegaztien aipamen guztiak zein lumak oraindik hazi gabeko hegan egiten hasi aurrekoenak (EURING 1 adina), bai eta arrautza bat zutelako zantzuak erakusten zituzten emeak ere, hau da, umedun zeudenak (EURING 4 adina eta ugaltze-egoeraren kodea 6). Ugaltzaile probabletzat hartu ziren ugalketa-kodea honela ebaluatu zitzaien hegaztien aipamen guztiak: 1-4 (garatzen ari diren emeen txitatze-plakak, irrigazio maximoa edo erregresioa hasia) edo 7-8 (arretan, kloaka-protuberantzia nabarmena edo txitatze-plaka; B8 kodearen baliokidea), baita ugaltze-garaian behin eta berriz harrapatu zirenak ere (B4 kodea). Azaldu berri ditugun ugaltze-zeinurik gabe ugaltze-garaian azaldutako hegazti eraztundunei A1 kode bat esleitu zitzaien, gorago azaldu diren iragazkiak aplikatuz.

Ugaritasuna

Atlaseko espezieen ugaritasuna, kasuen arabera, banakoetan (ban.), bikoteetan (bik.) edo lurraldeetan (lur.) estimatu da. Zenbait azterlanetan, bikote heldu ugaltzaileen kopuruaren arabera estimatzen da ugaritasuna[25,26], eta beste batzuetan, berriz, banako kopuruaren arabera[27]. Atlas honetan, ahal izan den guztietan, banakoa hartu da ugaritasun-unitatetzat. Horren arrazoia da, besteak beste,

Euskadi se prolonga, a menudo, hasta el mes de abril[24]. Tales observaciones se consideraron como reproductores posibles. En todas estas especies el código A2, así como los códigos B dentro del periodo que se ha indicado, se consideraron como evidencia de reproducción probable (ya que un macho cantando tiene, para este periodo, una probabilidad muy alta de defender un territorio de cría, equivalente a un código B4). Cualquier cita asociada a un código Atlas C, fuera cual fuera el momento del año, se validó directamente como reproducción segura. Ejemplo: lavanderas, petirrojos, currucas de carácter presahariano, fringílidos o emberízidos (salvo el escribano hortelano).

(3) En especies transaharianas, invernantes en el África subsahariana, cuyo paso en primavera a menudo es tardío, se excluyeron de este Atlas todas las citas con código A1 y sólo se incluyeron, como reproductores posibles, aquellas a las que se asignó de origen un código A2 desde mayo hasta junio. Incluso en las especies más escasas o las que cantan en paso migratorio (como oropéndolas y ruiseñores) sólo se consideraron las citas con código B4 o superior.

(4) En anátidas, ciconiformes, cormoranes, gaviotas y rapaces ligadas a roquedos sólo se incluyeron en el Atlas los puntos de cría segura, esto es, las citas con código C. Esto es debido a que en este tipo de especies es frecuente la presencia de aves no reproductoras, incluso durante la época de reproducción, por tratarse de aves subadultas o adultos que por el motivo que sea no se van a reproducir en la región. En todo caso, son individuos que no se pueden computar como población reproductora. Excepción a este criterio fueron las citas de ánade azulón, una especie muy extendida por todo el territorio, en cuyo caso se consideraron como individuos de reproducción posible también las citas que se obtuvieron entre los meses de marzo y junio.

En el caso de datos de anillamiento, se valoró como reproducción segura todos los datos de aves anilladas en nido o volantones con plumas aún en crecimiento (edad EURING 1), así como las hembras con signos de tener un huevo, esto es, grávidas (edad EURING 4 y código de estado reproductor 6). Como reproductores probables se consideraron todos los datos de aves cuyo código reproductor se evaluó como 1-4 (placas incubatrices de hembras en desarrollo, irrigación máxima o comenzando su regresión) o 7-8 (en machos, protuberancia cloacal acusada o placa de incubación; equivalente a un código B8), así como las que se recapturaron en repetidas ocasiones a lo largo de la temporada de cría (código B4). A los anillamientos que se obtuvieron en periodo de cría, sin los signos de reproducción anteriores, se asignó un código A1 mediante la aplicación de los filtros que se han explicado más arriba.

Abundancia

La abundancia de las especies del Atlas se ha estimado, según casos, en individuos (inds.), parejas (ps.) o territorios (ts.). Mientras que algunos estudios estiman la abundancia en parejas de adultos reproductores[25,26], otros lo hacen teniendo en cuenta el número de individuos[27]. En este Atlas, siempre que fue posible se consideró el individuo como unidad de abundancia. Esto es debido, entre otras cosas, a

askotan ale *higikorrak* hartu behar direla kontuan; hau da, lurralde bat ezartzera iritsi ez eta lurralde batetik bestera mugitzen diren tokiko helduak[28,29], edo banako berriak, hutsik zegoen edo hutsik geratutako lurralde bat (adibidez, predazioaren ondorioz) okupatzen dutenak. Ugaritasuna neurtzeko unitatetzat lurraldea hartzen badugu, inplizituki onartzen dugu hegazti habiagileen populazioa, soilik, lurraldea duten bikoteek osatzen dutela. Higikor horien pisu erlatiboa oso handia izan daiteke (> %20)[28,30], eta, gainera, urte, eskualde edo espezieen artean aldatu egiten da[31]. Hegazti higikor horiek funtsezko zeregina izan dezakete demografiaren ikuspegitik, ugalketan ere parte har baitezakete[32,33]. Errealitate hori alde batera utzita, kontuan hartu behar da bikote-kopurua estimatzeko funtsezkoa dela, lehenik eta behin, lurralde-tamainak ezagutzea. Hegazti kolonialetan, horrek ez du arazorik sortzen, lurraldea habiaren inguruko oso erradio murritz batera mugatzen baita, eta, ondorioz, egoera horretan nahikoa da txitatzen ari diren hegaztiak edo erabiltzen direla egiaztatzen den habiak zenbatzea (adibidez, hori gertatzen da enara azpizurien edo erle-txorien kolonietan). Hegazti ez-kolonialetan, zoritxarrez, ez da beti jakiten habia non dagoen (hain zuzen, salbuespena izaten da hori), eta, beraz, kasu horietan beharrezkoa izaten da eremu jakin bateko lurralde-kopuruaren estimazioa egitea. Lurralde bat zehaztea ez da lan erraza, bereziki jarraipenaren xede izango diren banakoek ez badute identifikatzeko markarik (adibidez, eraztunak). Kasu horietako gehienetan, behatzailea ezin da erabat ziur egon zentsu batean ikusitako alea (adibidez, geraleku batetik kantari ari den arra) ez dela aurreko edo ondorengo laginketa batean ikusitako bera. Hori alde batera utzita, eremu batera behin eta berriz egindako bisitak dira lurraldeen mapaketaren oinarria, hegaztien kokapen zehatza ezartzeko, eta, horren ondoren, datu horiek beren lurraldea kalkulatzeko erabiltzeko. Hori zaila bada markatu gabeko hegaztiekin, are konplikatuagoa da laginketa-kopurua txikia bada; izan ere, sarritan behaketa asko behar izaten dira (batzuetan, 30 baino gehiago ere bai) ale jakin baten lurraldea zehazteko[34,35]. Aipatutako guztia dela eta, bai eta kolaboratzaileen prestasun mugatua eta lurraldeen laginketa egiteko epe laburra ere, iruditu zitzaigun Atlas honetan ugaritasuna estimatzeko erarik hoberena detektatutako heldu-kopurutik abiatzea zela.

Irudikapen grafikoa

Banaketa- eta ugaritasun-mapak goian deskribatutako informazio guztia biltzen du, eta 5×5 km-ko UTM gelaxken sare baten gainean irudikatzen du, sintetizatua.

Espezie bakoitzaren presentzia (behatua) zirkulu baten bidez adierazten da (halakorik ez egoteak adierazten du espeziea ez dela gelaxkan detektatu). Zirkuluaren koloreak ugalketa-ebidentzia adierazten du, bi kategoriatan bakarrik bildua: berde argia, ugalketa posiblea bada; berde iluna, ugalketa probablea edo segurua bada.

Gainera, zirkuluaren tamainak gelaxkako populazio-tamaina adierazten du, lau kategoriatan banatua: <1-9 banako (edo bik. edo lur.), 10-99, 100-999 edo 1000-9999. Gainera, populazioaren tamaina ezezaguna denean, zirkulu *hutsak* erabiltzen dira.

que muy a menudo debe considerarse la existencia de ejemplares "flotantes": adultos locales que no llegan a establecer un territorio y se mueven de un territorio a otro[28,29] o de nuevos individuos que pueden ocupar un territorio que estaba o se hubiera quedado vacante (*e. g.* en caso de depredación). Si consideramos el territorio como unidad de medida de la abundancia, asumimos, implícitamente, que la población de las aves nidificantes estaría formada, exclusivamente, por parejas con territorio. El peso relativo de estos flotantes puede llegar a ser muy importante (>20%)[28,30] y, además, este suele variar entre años, regiones o especies[31]. Estas aves flotantes pueden desempeñar un papel clave desde el punto de vista demográfico, pues pueden llegar a participar en la reproducción[32,33]. Además, para estimar el número de parejas es fundamental, primeramente, conocer los tamaños de territorio. En aves coloniales esto no supone un problema, porque el territorio se limita a un reducidísimo radio en torno al nido y, en consecuencia, basta en estas circunstancias con contar aves incubando o nidos donde se constata su uso (como ocurre en colonias de aviones o abejarucos). En aves no coloniales, desafortunadamente no siempre se sabe dónde está el nido (de hecho esto suele ser la excepción), por lo que en estos casos es necesario llevar a cabo una estima del número de territorios. Esto no es tarea fácil, particularmente si los individuos que van a ser objeto de seguimiento no tienen marcas que los identifiquen (*e. g.*, anillas). En la mayoría de estos casos, el observador nunca puede estar totalmente seguro de que el ejemplar avistado en la visita (*e. g.*, macho cantando desde un posadero) es el mismo visto en un muestreo anterior o posterior. Al margen de esto, el mapeo de territorios se basa en la visita reiterada a una zona con el fin de establecer la posición exacta de las aves que hay y, posteriormente, utilizar estos datos para calcular su territorio. Si esto ya es complicado con aves sin marcar, aún lo es más si el número de muestreos es bajo, pues con frecuencia son necesarias muchas localizaciones (a veces hasta más de 30) para determinar el territorio de un ejemplar concreto[34,35]. Debido a todo lo mencionado, además de la disponibilidad limitada de personal y el corto plazo en que se ha de llevar a cabo el muestreo de territorios, para este Atlas se optó por una estimación de la abundancia a partir del número de individuos adultos detectados.

Representación gráfica

El mapa de distribución y abundancia aglutina toda la información arriba descrita y la representa, sintetizada, sobre una malla de celdas UTM de 5×5 km.

Para cada una de las especies, su presencia (observada) se indica mediante un círculo (la ausencia de éste indica que la especie no ha sido detectada en la celda), cuyo color representa la evidencia de reproducción, agrupada en tan solo dos categorías: verde claro, si es reproducción posible; verde oscuro, si es reproducción probable o segura.

Adicionalmente, el diámetro del círculo indica el tamaño poblacional en la celda, agrupado en cuatro categorías: <1-9 individuos (o ps. o ts.), 10-99, 100-999 o 1000-9999. Además, cuando el tamaño de la población es desconocido se utilizan círculos 'vacíos'.

Presentzia-probabilitatearen banaketa modelizatuaren mapa

Ohar orokorrak

Gaur egun, hegazti-banaketaren atlas moderno guztiek, behatutako espezieen presentzia erakusten duten mapekin batera (Atlas honetan, 5×5 km-ko UTM gelaxken eskalako behaketa-mapa), presentzia- edo ugaritasun-probabilitatearen mapak gehitzeko ahalegina egiten dute. Era horretan, batezbesteko batean, landan datuak biltzeak dakarren detektagarritasun ez-homogeneoak sortzen dituen alborapenak zuzendu daitezke[1-3]. Aurrerago azalduko dugun moduan, bi arrazoik justifikatzen dute modelizazio-metodoak aplikatzea: lortutako datuen banaketen arteko aldeek, batetik, eta espero diren estimazioak modu sendoagoan lortzea ahalbidetuko duten irtenbideak eduki beharrak, bestetik. Hala ere, teknika horiek erabiltzeko, ezinbestekoa da datu-kopuru nahikoa izatea, haien kantitateak eta kalitateak eragin zuzena baitu estimazio horien sendotasunean, aztergai den lurraldean. Beraz, Atlas honetan erabilitako presentzia- edo ugaritasun-probabilitateen estimazioak lortzeko, espezie arrunten eta gaueko harraparien zentsu estandarizatuen bidez lortutako datuak soilik erabili ziren. Datu-bolumena behar bezain handia izan ez zen espezie askotarako, ez zen presentzia-probabilitatearen maparik egin. Hori bereziki nabarmena da espezie arraroenentzat: lagin-tamaina txikiegia denez, adierazgarriak ez diren emaitzak lor daitezke. Obra honetarako, sendotasun-irizpide gisa ezarri zen zentsatutako gelaxken %10ean, gutxienez, hegaztiak aurkitzea.

Atlas honek, eskualde[3], estatu[2] edo Europa[1] mailako beste atlas batzuen moduan, espezieen banaketa modelizatzeko metodoak aplikatzen ditu (ingelesez *SDM, Species Distribution Models*). Metodo horien bidez, espezieen presentzia/gabezia edo ugaritasunari buruzko datuak eta ingurumenari buruzkoak (habitat jakin baten ugaritasuna, altitudea, tenperatura edo ur-ibilgu batekiko distantzia) lotu daitezke. Horregatik, metodo horiei nitxo ekologikoko ereduak ere deitzen zaie (ingelesez *ENM, Ecological-Niche Models*). Izan ere, jotzen dute ugaritasuna edo banaketa-ziklo biologikoa ahalbidetzen duten ingurumen-faktoreen konbinazio batera mugatzen dutela espezieek beren presentzia[36]. Metodo horien arabera, gainera, nitxo ekologikoa homogeneoa da zentsatutako lurralde osoan, zeren eta espezie bakoitzaren populazioak orekan mantentzen baitira ingurumen-ezaugarririk egokienekin. Adibidez, antzandobi arrunta nekazaritza-paisaiekin lotzen da. Landazabal askoko gelaxka batean egindako zentsu batean espeziea ikusten ez bada ere (adibidez, halabeharrez edo gelaxka horretan laginketarik egin ez zelako), presentzia-probabilitatearen mapak probabilitate-balio handia kalkulatuko du zona horretarako, jotzen baitu lotura handia eta homogeneoa dagoela antzandobi arruntaren lurraldearen eta paisaia-mota horren ugaritasunaren artean.

Mapa de distribución modelizada de la probabilidad de presencia

Generalidades

Actualmente, todos los atlas de distribución de aves tratan de añadir, junto a los mapas que muestran la presencia observada de especies (en este Atlas, el mapa de observaciones a escala de celdas UTM de 5×5 km), mapas de probabilidad de presencia o de abundancia que corrigen los sesgos que se crean por una desigual detectabilidad durante el proceso de toma de datos en campo[1-3]. La diferencia de distribución entre los datos observados y la necesidad de disponer de soluciones que permitan obtener estimas esperadas de manera más sólida es lo que justifica la modelización. Para utilizar dichas técnicas es imprescindible disponer de un número suficiente de datos, ya que su cantidad y calidad influye directamente en la robustez de nuestras predicciones. Para obtener las estimas de probabilidad de presencia o de abundancia utilizadas en este Atlas se consideraron únicamente los datos que se obtuvieron a través de censos estandarizados de especies comunes y rapaces nocturnas. En muchas especies para las que el volumen de datos no fue lo suficientemente elevado, se renunció a calcular mapas de probabilidad de presencia. Esto es especialmente evidente para las especies más raras, que pueden dar lugar a resultados poco representativos debido a tamaños de muestra demasiado pequeños. Para la presente obra se estableció como criterio de robustez, la presencia en al menos un 10% de las celdas censadas.

El presente Atlas, al igual que otros predecesores a escala regional[3], estatal[2] o continental[1], utiliza métodos de modelización de distribución especies (abreviado en inglés *SDM, Species Distribution Models*). Estos tienen la capacidad de establecer relaciones entre los datos de presencia/ausencia o abundancia de especies con los de información ambiental (como la abundancia de un cierto hábitat, altitud, temperatura o distancia a un curso de agua). Por ello, dichos métodos son también llamados modelos de nicho ecológico (abreviado en inglés *ENM, Ecological-Niche Models*), ya que asumen que las especies restringen su presencia, abundancia o distribución a una combinación de factores ambientales que posibilitan su ciclo biológico[36]. Dichos métodos asumen, además, que el nicho ecológico es homogéneo en todo el territorio censado, como consecuencia de que las poblaciones se mantienen en equilibrio con las características ambientales más favorables. Por ejemplo, el alcaudón dorsirrojo es una especie que se asocia a paisajes de carácter agrícola. Aunque la especie no se observe durante un censo en una celda con alta abundancia de campiñas (por ejemplo por azar o porque no se detectó estando presente), el mapa de probabilidad de presencia calculará un valor de probabilidad alto para esa zona, al asumir que existe una relación alta y homogénea para el conjunto del territorio del alcaudón dorsirrojo con la abundancia de este tipo de paisaje.

Aldagai iragarleak

Presentzia-probabilitatearen mapa bat eraikitzeko, ingurumenari lotutako aldagai iragarleen multzo batean oinarritutako ereduak erabiltzen dira. Aldagai horiek honi buruzko informazioa jasotzen dute: espezie bakoitzak lurraldean duen banaketa *a priori* baldintzatzen duten faktoreak. Beste alderdi interesgarri bat da ingurumen-faktore horiek lortzeko erabiltzen den eskala espaziala (edo bereizmena). Izan ere, ondo dakigu espezie bakoitzaren presentzia/absentzia edo ugaritasuna eskalaren mende dagoela, eta eskala hori metro gutxi batzuen eta kilometro batzuen artekoa izan daitekeela[37]. Atlas honetarako, informazio-geruzak atera ziren –hau da, mapak–, espezie bakoitzaren ingurumen-eskakizunekin zerikusia izan dezaketen aldagai iragarleei buruzkoak. Geruza bakoitza Geografia Informazio Sistemen (GIS) bidez prozesatu zen, informazioa gure Atlasaren lan-eskalara doitzeko: 1×1 km-ko UTM gelaxkak, hau da, laginketa estandarizatuetarako erabiltzen den eskala edo ebazpenari dagokiona.

Nabarmentzekoa da ateratzen diren aldagai iragarleen geruzetan aurkitu daitezkeela korrelazio lineala duten aldagai-bikoteak. Horrek zaildu lezake presentzia-probabilitatearen ereduak lortzea[38]. Elkarren artean lotura handia zuten aldagaiak sartzea saihesteko, aldagai-bikoteen arteko Pearsonen korrelazioa kalkulatu zen, eta 0,7tik beherako balioa zutenak bakarrik atxiki ziren. Kategoria hauetan sailka daitezke:

(1) Habitat-aldagaiak. Habitat-mota da, oro har, espezieen banaketaren baldintzatzaile nagusietako bat; bereziki, hegaztien banaketarena, edozein eskala espazialetan. Habitata adierazteko hurbilketarik fidagarrienetako bat lurzoruaren erabilerari buruzko informazio-geruzen bidezkoa da. Atlas honetarako, *CORINE Land Cover* (*CLC*) proiektuko lurzoru-erabileren geruza baliatu dugu, hau da, Europako Ingurumen Agentziak sortu eta garatutako inbentarioa. Sei urtean behin eguneratzen da, eta Landsat satelitetik datozen irudien hautapen batetik elikatzen da. *CLC*k lurzoru-erabileren 44 mota edo kategoria ditu, gutxienez 100×100 m-ko bereiz-menekoak. Gure atlasean 2018ko datuen geruza erabili zen. Geruza horretatik, aldagai-bikoteen (kasu honetan, erabilera-motak) arteko korrelazioak aztertu ondoren, honako hauek hautatu ziren: hostozabalen basoa, zuhaixka-landaredia, eremu artifiziala, ur-eremua, nekazaritza-eremua eta hezegunea. *CLC*k harrapatu gabeko informazioa osatzeko, geruza bat kalkulatu zen *NDVI* balioekin (ingeleseko *Normalized Differential Vegetation Index*), Landsat 8ko (USGS) irudietatik abiatuta sortua –gutxienez 30 m-ko bereizmeneko irudiak–. Udako (2017ko ekaina) eta neguko (2017ko azaroa) *NDVI*ak kalkulatu ziren. *NDVI* indizeak baso-landarediaren motak bereiz-teko aukera ematen du: hostozabalak (*NDVI*ren balio altua udan eta txikia neguan) eta koniferoak (*NDVI*ren balio altua udan zein neguan).

(2) Aldagai klimatikoak eta topografikoak. Klima, topografiaren moduan, hegaztien banaketaren beste baldintzatzaile bat da, batez ere eskala espazial zabaletan. Atlas honetarako zenbait geruza-mota sortu ziren, honako hauetan oinarrituak: (1) Euskadiko estazio

Variables predictivas

Un mapa de probabilidad de presencia se construye a partir de modelos basados en un conjunto de variables predictoras de carácter ambiental que contengan información sobre los factores que, *a priori*, condicionan la distribución de cada una de las especies en el territorio. Otro aspecto de interés es la resolución para la que se obtienen estos factores, ya que es bien sabido que la presencia/ausencia o abundancia de cada especie está condicionada a la escala, que puede variar entre unos pocos metros y varios kilómetros[37]. Para este Atlas, se extrajeron mapas o capas de información de factores ambientales o variables predictoras potencialmente relacionados con los requerimientos ambientales de cada especie. Cada una de las capas fue procesada con herramientas de Sistemas de Información Geográfica (SIG) con el fin de ajustarla a la escala de trabajo de este Atlas: celdas UTM de 1×1 km, que corresponde a la resolución empleada para los muestreos estandarizados.

Cabe destacar que, de todas las capas extraídas, puede haber correlación lineal entre pares de variables, lo cual podría dificultar la modelización[38]. Para evitar la inclusión de variables altamente relacionadas entre sí se calculó la correlación de Pearson entre pares de variables y se retuvieron sólo aquellas que mostraron un valor de correlación por pares menor a 0,7 y que se pueden agrupar en las siguientes categorías:

(1) Variables de hábitat. El tipo de hábitat es en general uno de los principales condicionantes de la distribución de las especies, y en particular de las aves a cualquier escala espacial. Una de las aproximaciones más fidedignas para representar el hábitat es a través de capas de información relativas a los usos del suelo. Para este Atlas usamos la capa de usos del suelo del proyecto *CORINE Land Cover* (*CLC*), que es un inventario desarrollado y generado por la Agencia Europea de Medioambiente, actualizado cada seis años, que se nutre de una clasificación de imágenes que proceden del satélite Landsat. *CLC* consta de 44 clases o categorías de usos del suelo con resolución mínima de 100×100 m. En nuestro Atlas se utilizó la capa de datos de 2018, de la cual, una vez analizadas las correlaciones entre pares de variables (en este caso, coberturas de tipos de usos), se seleccionaron las siguientes: bosque de frondosas, vegetación arbustiva, superficie artificial, superficie de agua, zona agrícola y zona húmeda. Para complementar la información no capturada por *CLC*, se calculó una capa con valores *NDVI* (del inglés, *Normalized Differential Vegetation Index*), generada a partir de imágenes de Landsat 8 (USGS) a resolución mínima de 30 m. Se calculó el *NDVI* de verano (junio, 2017) e invierno (noviembre, 2017). El índice *NDVI* permite separar vegetación forestal de frondosas (*e. g.*, valor *NDVI* alto en verano y bajo en invierno) y de coníferas (*e. g.*, valor *NDVI* alto en verano y en invierno).

(2) Variables climáticas y topográficas. El clima es, al igual que la topografía, otro condicionante de la distribución de las aves, especialmente a escalas espaciales amplias. Para este Atlas se generaron varios tipos de capas, basadas en (1) la red de estaciones meteorológicas de Euskadi

meteorologikoen sarea eta eskualde mugakideetakoa; hau da, Euskalmet eta AEMET, hurrenez hurren. Azken sare horrek 1971-2000 epeko tenperatura eta prezipitazio-serie historikoak ditu; horrela, interpolazioen bidez, tenperatura ertaineko (Tg), minimoko (Tn) eta maximoko (Tx) geruzak lortu ziren 0,9 km-ko bereizmenean. (2) Lurraren eredu digitala (www.geoeuskadi.eus ataria); horren bidez, malda minimo (Pn) eta maximoen (Px) geruza topografikoak lortu ziren 25 m-ko bereizmenean. (3) Ibai-ibilguen sarearen geruza (geoeuskadi), zeinaren bidez ibairik hurbilenerako (Dr) eta itsasertz-lerroarekiko (Dc) distantzia kalkulatu baitzen.

(3) Espazialki kutsatzen diren aldagaiak. Azaldu ditugun bi aldagai-multzoak alde batera utzita, gerta daiteke haietako batek ere ez azaltzea, behar bezala, egungo banaketa. Hori askotan gertatzen da ingurunearekin orekan ez dauden populazioak dituzten espezieetan. Horrelakoetan, badira lurraldeko zenbait eremu, zeinetan, ingurumen-baldintza egokiak izan arren, ez baita espeziea ageri arrazoi demografiko edo historikoak direla eta. Adibidez, atzeraldian nahiz hedatzen ari diren populazioetan, egon daitezke eremu batzuk *a priori* okupatuak izateko egokiak izan arren okupatu gabe daudenak, bai bertan desagertze-prozesu bat egon delako, bai espezieak ez duelako oraindik eremua kolonizatu, hurrenez hurren. Errealitate horrek ez du zerikusirik habitatarekin, klimarekin edo topografiarekin, eta, normalki, autokorrelazio espazialeko neurrien bidez sartzen da ereduetan. Autokorrelazio espazialak kontuan hartzen du espezie baten presentzia lotua dagoela inguruko beste leku batzuetan agertzeari edo ez agertzeari[39]. Gure Atlaserako egin ziren ereduetan errealitate hori txertatzeko, interpolazio geoestatistikoko teknikak (*krigging*) erabili ziren. Teknika horiek espazioko puntudentsitatea kalkulatzeko erabiltzen dira, eta abiapuntutzat dute elkarren inguruko puntuek urrun daudenekiko baino balio antzekoagoetara jotzen dutela. Horrela, espezie bakoitzerako geruza espezifiko bat sortu zen, mendekotasun espazialeko balioetan oinarritua, 1 km^2-ko bereizmenean.

Espezie arrunten modelizazioa

Euskadiko hegazti-espezie arrunten banaketa geografikoa iragartzeko aplikatutako metodo estatistikoaren oinarria da onartzea espezie baten behaketa honen araberakoa dela: lagindutako herri bakoitzean dauden aldagai iragarleak (edo ingurumen-faktoreak). Gure kasu partikularrean, eta espezie bakoitzerako, presentziari/absentziari buruzko datuak (hau da, 1/0) behar dituzten estatistika-teknikak erabiltzen ditugu, zentsu estandarizatuen bidez bildutakoak. Ondoren, ebaluatu zen ea behaketa independenteetakoak ote ziren espezie bakoitzaren presentzia-probabilitatearen iragarpenak. Azkenik, aztertutako eremu osorako presentzia-probabilitatearen iragarpenak sortu ziren.

Deskribapen sakonetan sartu gabe, modelizazio-prozesua hiru urratsetan laburbiltzen da (4. ird.).


(Euskalmet) y regiones limítrofes (AEMET), que cuenta con series históricas de temperaturas y precipitación durante el periodo 1971-2000, con lo que se obtuvieron, mediante interpolaciones, capas de temperaturas media (Tg), mínima (Tn) y máxima (Tx) a resolución de 0,9 km; (2) modelo digital del terreno (portal www.geoeuskadi.eus), con lo que se obtuvieron capas topográficas de pendientes mínimas (Pn) y máximas (Px), a resolución de 25 m; (3) la capa de la red de cursos fluviales (geoeuskadi), con la que se calcularon la distancia al río más próximo (Dr) y a la línea de costa (Dc), a resolución de 100 m.

(3) Variables de contagio espacial. Al margen de los dos grupos de variables ya considerados, es posible que ninguno de ellos logre explicar adecuadamente la actual distribución. Esto ocurre a menudo en especies cuyas poblaciones no se encuentran en equilibrio con el ambiente que les rodea y en las que, en consecuencia, existen áreas del territorio con condiciones ambientales adecuadas pero en las que la especie se ausenta por razones demográficas o históricas. Por ejemplo, en las poblaciones que se encuentran en retroceso o expansión, puede haber zonas *a priori* adecuadas para ser ocupadas que, sin embargo, no lo están bien porque ha habido un proceso de extinción local, bien porque la especie todavía no ha colonizado la zona, respectivamente. Esta realidad, que es independiente del hábitat así como del clima o la topografía, en general se incorpora en los modelos con medidas de autocorrelación espacial. Esta determina que la presencia de una especie depende de si la especie aparece o no en otras zonas próximas[39]. Para incorporar esta realidad a los modelos que se llevaron a cabo en este Atlas se usaron técnicas de interpolación geoestadística o *krigging*, que son comúnmente utilizadas para la estimación de densidad de puntos en el espacio y que asumen que los puntos próximos tienden a valores más parecidos entre ellos que los puntos distantes. Así, para cada una de las especies se creó una capa, específica, basada en valores de dependencia espacial, a resolución de 1 km^2.

Modelización de especies comunes

El método estadístico aplicado para predecir la distribución geográfica en Euskadi de especies de aves comunes está basado en asumir que la observación de una especie depende de los factores ambientales o variables predictoras existentes en cada localidad muestreada. En nuestro caso particular y para cada especie, usamos técnicas estadísticas que requieren datos de presencia/ausencia (*i.e.*, 1/0), recolectados mediante censos estandarizados. Posteriormente, se evaluó si las predicciones de probabilidad de presencia de cada una de las especies se ajustó a observaciones independientes. Finalmente, se generaron predicciones de probabilidad de presencia para toda el área estudiada.

Sin entrar en una descripción exhaustiva, el proceso de modelización se resume en tres pasos (Fig. 4).



4. ird. Presentzia-probabilitatearen mapak sortzeko emandako urratsak laburbiltzen dituen eskema kontzeptuala.

Fig. 4. Esquema conceptual que resume los pasos dados para crear los mapas de probabilidad de presencia.

(1) **Kalibrazioa**. Lehen urrats honetan, espezie bakoitzaren presentzia/absentzia azaltzeko, aldagai iragarleen arteko egokitzapena kontuan hartzen duten arauak edo erlazioak formulatzen dira. Gorago proposatutako antzandobi arruntaren adibidea erabiliz, espero izatekoa da erlazio matematiko positiboa aurkitzea haren presentzia-probabilitatearen eta lagindutako herri bakoitzeko nekazaritza-baliabideen ugaritasunaren artean. Eredurik sinpleenean erlazio lineala edo proportzionala onar dezakegu, baina erlazio hori konplexuagoa izan daiteke, espeziearen presentziaren/absentziaren eta aldagai iragarlearen arteko erlazio ez-linealak sortuz. Adibidez, antzandobia aurkitzeko beharrezkoa da, lagindutako gelaxka bakoitzean, proportzio minimo bat nekazaritza-eremu izatea. Atalase horretatik aurrera, espezie horren ugaritasuna handitu egingo litzateke (aldaketa positiboa, beraz) nekazaritza-habitataren proportzioa handitzearekin batera. Metodo malgu bezain sendoa erabiltzeko, ikaskuntza automatikoan erabili ohi diren estatistika-tekniken bi multzo erabili ziren[40]: (1) *Boosted Classification Trees* (BCT) eta (2) *Random Forests* (RF). Atlas honetan, erantzun-aldagaia honela definitu zen: lagindutako herri bakoitzean espezie bakoitzak duen presentzia/absentzia (1×1 km-ko UTM gelaxka). Espezie bakoitzaren presentzia (1 balioa) honela definitu zen: gutxienez zentsu batean behaketa positiboa; aldiz, bi zentsuetako batean ere detektatu ez bazen, absentziatzat hartu zen (0 balioa). Datuak landan jasotzearen ondoriozko ziurgabetasuna edo zoria txertatzeko asmoz, eredu bakoitza 10 aldiz errepikatu zen lagin partzial (%70) eta ausazko batekin. Horren emaitza 20 simulazio independente izan ziren, eta landa-datuen parte bat azpilagintzea. Azkenik, kalibrazio horien guztien batezbesteko moduan, presentzia-probabilitatearen mapa iragarle bat lortu zen.

(2) **Ebaluazioa**. Aurreko urratsean lortutako iragarpenak AUC bidez ebaluatu ziren (ingelesezko *Area Under the ROC Curve*). AUCek kuantifikatzen du zenbateraino den zehatza eredu baten emaitza, presentziako/absentziako behaketa independenteen balioa iragartzean (adibidez, *AUC* = 0,95ek eredua bikaina dela adierazten du, baina *AUC* = 0,5 bada, berriz, ereduak ausaz egiten ditu sailkapenak). Gure kasuan, aurreko urratseko kalibrazioak egiteko erabili ez ziren datuen gainerako %30arekin kalkulatu ziren. Espezie bakoitzerako 20 kalibrazio egin zirenez, batez besteko *AUC* bat lortu zen espezie bakoitzerako. Era berean, espezie bakoitzarentzat metrika-multzo bat (1. eranskina) kalkulatu zen, batezbestekoa eman zuen eredu bakoitzaren errendimendua deskribatzeko.

(3) **Iragarpena**. Goian deskribatutako batez besteko ereduaren bidez lortutako erlazioetatik abiatuta, presentzia-probabilitatearen mapa bat sortu zen espezie bakoitzarentzat. Erlazio horiek lurralde osoko gelaxka guztietara proiektatu ziren, 1 km^2-ko bereizmenarekin. Lehen mapa horretan, gelaxka bakoitzerako 0tik 1era bitarteko balioa lortu zen (1ekoak espeziearen %100eko presentzia-probabilitatea adierazten du), eta bereizmen handiko (edo eskala txikiagoko: 250×250 m-ko gelaxkak)

(1) **Calibración**. Este primer paso consiste en formular reglas o relaciones entre la adecuación de las diferentes variables predictoras para explicar la presencia/ausencia de cada especie. Usando el ejemplo del alcaudón dorsirrojo propuesto más arriba, es esperable encontrar una relación matemática positiva entre su probabilidad de presencia y la cobertura de medios agrarios en cada localidad muestreada. En el modelo más simple podemos asumir una relación lineal, o proporcional, si bien es posible que dicha relación pueda ser más compleja, dando lugar a relaciones no lineales entre la presencia/ausencia de la especie y la variable predictora. Por ejemplo, para que el alcaudón esté presente es necesario un porcentaje mínimo de zona agrícola en cada una de las celdas muestreadas y, a partir de este umbral, su abundancia aumentaría positivamente con el incremento de la proporción o porcentaje de hábitat agrario. Con el fin de usar un método flexible, pero también robusto, se utilizaron dos grupos de técnicas estadísticas comúnmente empleadas en aprendizaje automático[40]: (1) *Boosted Classification Trees* (BCT) y (2) *Random Forests* (RF). En este Atlas se definió la variable respuesta como la presencia/ausencia de cada especie en cada localidad muestreada (celda UTM de 1×1 km). Para cada especie se definió la presencia (valor 1) como un contacto positivo en al menos uno de los censos, mientras que se asumió ausencia si no se detectó en ninguno de los dos censos (valor 0). Con el objetivo de incorporar la incertidumbre o azar derivado de la toma de datos en campo, cada uno de los modelos se repitió 10 veces con una muestra parcial (70%) y aleatoria, dando lugar a 20 simulaciones independientes que sub-muestrean una parte de los datos de campo. Finalmente, se obtuvo un mapa predictivo de probabilidad de presencia como promedio de todas estas calibraciones.

(2) **Evaluación**. Las predicciones que se obtuvieron en el paso anterior se evaluaron mediante el *AUC* (del inglés, *Area Under the ROC Curve*). El *AUC* cuantifica la precisión del resultado de un modelo a la hora de predecir el valor de observaciones independientes de presencia/ausencia (*e. g.*, un *AUC* = 0,95 indica que el modelo es excelente, mientras que si *AUC* = 0,5 el modelo está clasificando aleatoriamente). En nuestro caso particular se calcularon con el 30% restante de los datos que no se utilizaron para elaborar las calibraciones del paso anterior. Como se hicieron 20 calibraciones para cada una de las especies, se obtuvo un valor medio de *AUC* para cada una. Asimismo, para cada especie se calculó un conjunto de métricas descriptivas del rendimiento de cada modelo promediado (Apéndice 1).

(3) **Predicción**. Para cada una de las especies se generó un mapa de probabilidad de presencia a partir de las relaciones que se obtuvieron mediante el modelo promediado descrito arriba. Tales relaciones se proyectaron al conjunto de celdas de todo el territorio con una resolución de 1 km^2. De este primer mapa, donde para cada celda se obtuvo un valor de 0 a 1 (donde 1 es que la probabilidad de presencia de la especie es 100%), se generó otro mapa predictivo a alta resolución o de

beste mapa iragarle bat sortu zen. Mapa horretan, jotzen da mantendu egiten direla xede-aldagaiaren (presentzia/absentzia) eta aldagai iragarleen multzoaren arteko erlazioak. Adierazpena egiteko, esandakoaz gain leuntze bat aplikatu zen: 250×250 m-ko gelaxka bakoitzari balio berri bat egokitu zitzaion, aldameneko gelaxken batezbestekoa. Bereizmen handiko mapak, hasierako 1×1 km-ko gelaxka-eskalakoak ez bezala, irudi doiagoa ematen du, neurri handi batean espezie bakoitzaren benetako banaketa-patroiarekin bat datorrena. Nolanahi ere, aipatu behar da laginketa batetik abiatuta gelaxka-eskala larriago batean (1×1 km) kalkulatutako presentzia-probabilitatea ezin dela eskala xeheago batera estrapolatu. Izan ere, hegazti bat detektatzeko probabilitatea lagindutako eremukoaren frakzio bat da, bai laginketa-ahaleginaren ikuspegitik, bai alderdi matematikotik (kasu honetan, 250×250 m -ko gelaxkak dira, hau da, 1×1 km-ko gelaxkekin hartzen den eremuaren 1/16). Horrela, behin eskala murriztuta banaketa geografikoaren patroia aldatzen ez bada ere, bai, ordea, presentzia-probabilitatearen balioa. Horregatik, bereizmen handiko mapan koloreen eskala ez da 0 eta 1 artean aldatzen, baizik eta zero eta maximo baten artean, aldakorra espezietik espeziera. Horrek espezieak konparatzeko balio du, lurraldean duten bakantasuna alde batera utzita. Atlasean adierazitako banaketa-mapa modelizatua, azkenik, bereizmen handiko mapa bat da, zeinean gelaxken koloreak espezie bat egoteko probabilitatea –esanahi erlatiboa izango duena– islatzen baitu, haren presentzia edozein dela ere. Espezie bakoitzerako, halaber, mapa hori Euskadin duen ugaritasun erlatiboaren adierazle gisa erabil daiteke.

Gaueko harraparien modelizazioa

Gaueko harraparien banaketa iragartzeko, detekzio inperfektuko ereduak aplikatu ziren, hau da, ID (*Imperfect Detection*)[41] ereduak. Kontzeptu zabal horren azpian hainbat estatistika-teknika biltzen dira, onartzen dutenak detektatzeko gaitasuna ez dela ez perfektua ez konstantea, hainbat arrazoiren ondorioz, hala nola behatzaileari lotutako alborapenak, espezieen bakantasuna, bai eta detekzioa zailagotzen duten aldagaiak ere (adibidez, zarata handia dagoen eremu batean askoz zailagoa da hegazti baten kantua entzutea inguru isil batean baino). Horrela, detekzio inperfektua aintzat hartzen ez duten hurbilketek probabilitate-estimazio okerrak lortuko lituzkete, ez bailukete kontuan hartuko espezie horiek detektatzeko ahalmenari lotutako ziurgabetasuna kontuan hartzen duen osagairik. Espezie arruntak modelizatzerakoan bezala, jotzen dugu gaueko hegaztien presentzia azaldu daitekeela ingurumen-faktoreen (aldagai iragarleen) balioaren arabera. Gainera, detekzio-ahalmenari lotutako ziurgabetasuna leku berean zentsuak errepikatzearen ondorioz lortu zen –hegazti-talde horren laginketa-diseinuan deskribatzen den moduan–. Atlas honetan erabilitako estatistika-teknikek era honetako datuak eskatzen dituzte: presentziari/absentziari buruzkoak (1/0) eta ugaritasunari buruzkoak (hau da, zentsu bakoitzean detektatutako hegazti desberdinen kopurua). Ondoren, ebaluatu zen ea ereduek estimazio bidez iragarritako datuak bat etorri ote ziren lortutako balioekin. Azkenik, aztertutako eremu

reducción de escala (celdas de 250×250 m) en el que se asumió que se mantienen las relaciones entre la variable objeto (presencia/ausencia) y el conjunto de variables predictoras. De cara a su representación, se aplicó además un suavizado, consistente en atribuir a cada una de las celdas de 250×250 m un nuevo valor, resultado de promediar el valor de las celdas adyacentes. El mapa de alta resolución, a diferencia del que se generó originalmente a escala de celdas de 1×1 km, aporta una imagen más fina que se ajusta, en gran medida, al patrón de distribución real de cada especie. Se debe mencionar, en todo caso, que la probabilidad de presencia calculada a partir de un muestreo a una escala de celdas más gruesa (1×1 km) no se puede extrapolar a una escala más fina, ya que la probabilidad de detectar un individuo es una fracción del área muestreada, tanto desde el punto de vista de esfuerzo de muestreo cómo matemático (en este caso, celdas de 250×250 m, esto es, 1/16 de la superficie abarcada en la celda de 1×1 km). Así, aunque el patrón de distribución geográfica no cambia una vez llevamos a cabo la reducción de escala, sí lo hace el valor de probabilidad de presencia. Por ello, en el mapa de alta resolución la escala de colores no varía entre 0 y 1, sino entre cero y un máximo, variable entre especies, y que sirve para comparar especies obviando su rareza en el territorio. El mapa de distribución modelizada representado en el Atlas es, finalmente, un mapa de alta resolución donde el color de las celdas refleja la probabilidad, relativa, de que una especie esté presente independientemente de su prevalencia. Para cada especie, asimismo, dicho mapa puede utilizarse como un indicador de su abundancia relativa en Euskadi.

Modelización de rapaces nocturnas

Para la predicción de la distribución de rapaces nocturnas se aplicaron modelos de detección imperfecta, DI (*Imperfect Detection*)[41]. Bajo este paraguas se engloban varias técnicas estadísticas que asumen que la capacidad de detección ni es perfecta ni es constante, debido a causas diversas como sesgos asociados al observador, la rareza de las especies así como las variables que confunden dicha detección (*e. g.*, en una zona con gran cantidad de ruido es mucho más difícil oír el canto de un ave que en una zona silenciosa). Así, las aproximaciones que ignoren la detección imperfecta obtendrían estimas de probabilidad incorrectas debido a que no incorporarían componentes que tuviesen en cuenta la incertidumbre asociada a la capacidad de detección de dichas especies. Al igual que para la modelización de especies comunes, asumimos que la presencia de las aves nocturnas puede explicarse según el valor de factores ambientales o variables predictoras. Además, la incertidumbre asociada a la capacidad de detección se obtuvo a partir de la repetición de censos en el mismo lugar, tal y como se describe en el diseño de muestreo para este grupo de aves. En este Atlas se utilizaron técnicas estadísticas que requieren tanto de datos de presencia/ausencia (1/0) como de abundancia (esto es, el número de aves diferentes detectadas en cada uno de los censos). Posteriormente se evaluó si las predicciones que estiman los modelos se ajustaron a los valores observados. Finalmente, se generaron predicciones

osorako presentzia-probabilitatearen iragarpenak sortu ziren. Deskribapen sakonetan sartu gabe, hona hemen urratsak laburbilduta:

(1) **Kalibrazioa**. Espezie bakoitzaren erantzun aldakorra azaltzeko (hau da, presentzia/absentzia eta ugaritasuna), zenbait arau edo erlazio formulatzen dira, ingurumen-faktoreen (aldagai iragarleen) arteko egokitzapena kontuan hartzen dutenak. Zehatzago esanda, eredu hierarkikoen (*Hierarchical Models*) zerrenda bat erabili zen. Haren osagai diren ereduak erlazionatuta eta ordenatuta daude, probabilitate baldintzatuko egitura baten arabera[42]. Zehazki, N-mistoak erabili genituen (*N-mixture models*). Haien oinarria laginketa errepikatuak dira –espazioan nahiz denboran–, detekzio-probabilitatea eta ugaritasuna estimatzeko helburuz, betiere detekzio inperfektua onartuta. Zehazki, eredu N-mistoek bi prozesu hauek egokitzen edo lotzen dituzte, zeinek espezie bakoitzari egindako zenbaketak azaltzen baitituzte: (a) ugaritasun ekologikoari lotutako prozesuak egokitzen dituen eredua, eta (b) detekzio-ahalmenari edo -probabilitateari lotutako prozesuak egokitzen dituena[42]. Gure kasuan, eta espezie arrunten modelizazioan ez bezala, onartzen dugu erlazio linealak besterik ez daudela espezie bakoitzaren ugaritasunaren eta aldagai iragarleen artean, eta, beraz, Eredu Lineal Orokorrak (*Generalized Linear Models*) egokitzen ditugu. Eredu N-mistoak eraikitzeko prozesuak dituen muga metodologikoen ondorioa da aldagai iragarleen eta erantzunaren arteko erlazio horiek sinplifikatzea. Eredurik neurritsuena lortzeko helburuarekin, hau da, ahalik eta sinpleena, baina, era berean, lortutako datuek azaltzen duten aldakuntza kantitatea maximizatzeko bezain konplexua dena, informazioaren teoriatik (*Information Theoretical Approach*) eratorritako hurbilketak erabili ziren ereduak hautatzeko. Konputazio-mugak direla eta, gehienez sei aldagai iragarle zituzten ereduetara mugatu genuen bilaketa. Ondoren, eredurik hoberentzat hau hautatu genuen: Akaikeren Informazio Irizpidearen (*Akaike Information Criterion*, edo AIC) baliorik txikiena zuena. Azkenik, aldagai iragarleen eta erantzunaren arteko erlazio linealetan oinarrituta, espezie bakoitzaren presentzia- eta ugaritasun-proba-bilitatearen mapa iragarle bat lortu zen.

(2) **Ebaluazioa**. Aurreko urratsean lortutako iragarpenak Spearmanen korrelazio-koefizientearen bidez ebaluatu ziren. Hain zuzen, metrika hori erabiltzen da eredu estatistikoen –zenbaketa independenteetatik eratorritako behaketak iragartzekoak– emaitzen zehaztasuna kuantifikatzeko. Gure kasuan, balio bakar bat kalkulatu zen, eredu neurritsuenaren iragarpenetatik eratorria.

(3) **Iragarpena**. Espezie bakoitzerako, presentzia-probabilitatearen mapa bat egin zen, goian deskribatutako ereduetan lortutako erlazioetatik abiatuta. Erlazio horiek estrapolatu egin ziren, Atlas honek 1 km^2-ko bereizmenean hartzen duen lurralde osoko gelaxka guztietara. Eguneko hegazti arrunten mapekin egin bezala, bereizmen handiko presentzia-probabilitateen mapak egin ziren, baina espezie bakoitzerako aldagaien eta

de probabilidad de presencia para toda el área estudiada. Sin entrar en una descripción exhaustiva, los pasos se resumen a continuación:

(1) **Calibración**. Se formulan reglas o relaciones entre la adecuación de los diferentes factores ambientales o variables predictoras para explicar la variable respuesta o presencia/ausencia y abundancia de cada especie. Más concretamente, se usaron modelos jerárquicos (*Hierarchical Models*), que se caracterizan por una secuencia de modelos relacionados y ordenados por una estructura de probabilidad condicional[42]. En particular, usamos los N-mixtos (*N-mixture models*) que dependen de muestreos replicados tanto en el espacio como en el tiempo para estimar la probabilidad de detección y abundancia mientras asumimos detección imperfecta. En particular, los modelos N-mixtos ajustan o enlazan dos procesos que explican los conteos observados de cada especie: (a) un modelo que ajusta los procesos asociados a la abundancia ecológica y (b) un modelo que ajusta los procesos relacionados con la capacidad o probabilidad de detección[42]. En nuestro caso, y a diferencia de la modelización de especies comunes, asumimos que existen únicamente relaciones lineales entre la abundancia de cada especie y las variables predictoras y por lo tanto ajustamos Modelos Lineales Generalizados (*Generalized Linear Models*); esta simplificación de dichas relaciones entre variables predictoras y respuesta es consecuencia de limitaciones metodológicas derivadas del proceso de construcción de los modelos N-mixtos. Con el objetivo de obtener el modelo más parsimonioso, es decir lo más simple posible pero lo suficientemente complejo para maximizar la cantidad de variación explicada por los datos observados, se abordó la selección de modelos mediante aproximaciones derivadas de la teoría de la información (*Information Theoretical Approach*). Debido a limitaciones computacionales, restringimos la búsqueda a los modelos que tuviesen un máximo de seis variables predictoras. Posteriormente, seleccionamos el mejor modelo como aquel que tuviese el menor valor del Criterio de Información de Akaike (*Akaike Information Criterion*, o AIC). Finalmente, se obtuvo un mapa predictivo de probabilidad de presencia y abundancia de cada especie generado a partir de las relaciones lineales entre variables predictoras y respuesta.

(2) **Evaluación**. Las predicciones que se obtuvieron en el paso anterior se evaluaron mediante el coeficiente de correlación de Spearman. Dicha métrica se utiliza para cuantificar la precisión del resultado de los modelos estadísticos para predecir las observaciones derivadas de conteos independientes. En nuestro caso particular se calculó un valor único derivado de las predicciones del modelo más parsimonioso.

(3) **Predicción**. Para cada especie se elaboró un mapa de probabilidad de presencia a partir de las relaciones que se obtuvieron en los modelos que se describen arriba. Tales relaciones se extrapolaron al conjunto de celdas de todo el territorio abarcado en este Atlas a resolución de 1 km^2. Al igual que con los mapas de aves diurnas comunes se generaron mapas de probabilidad de presencia predichas a alta resolución pero que, previsiblemente,

erantzunaren arteko erlazioak mantentzen zituztenak. Jatorrizko ereduak ugaritasun-iragarpenak sortzen dituenez (erantzun-aldagaia zentsu-puntu bakoitzean egiten den banakoen zenbaketa da), mapakAtlas honetako gainerako espezieenekin homogeneizatze aldera, eraldaketa bat egin zen, zeinaren ondorioz aukera ematen baita ugaritasun-probabilitatearen mapatik abiatuta presentzia-probabilitatearen mapa bat sortzeko. Bereizmen handiko mapen bertsio berria egiteko, espezie arruntetarako erabilitako teknika eta metodoen baliokideak erabili ziren. Zehazki, 250×250 m-ko bereizmen handiko presentzia-probabilitateko mapak egin ziren.

aún mantienen las relaciones entre variables y respuesta para cada especie. Puesto que el modelo original genera predicciones de abundancia (la variable respuesta es un conteo de individuos en cada punto de censo), para homogeneizar los mapas con el del resto de especies en este Atlas, se realizó una transformación que permite generar un mapa de probabilidad de presencia a partir del mapa de probabilidad de abundancia. La nueva versión de mapas a alta resolución se realizó mediante técnicas y métodos equivalentes a las de las especies comunes. Concretamente, se obtuvieron mapas de probabilidad de presencia de alta resolución a 250×250 m.

Aldaketa-mapa

Ohar orokorrak

Gure natura-ondarearen kontserbazio- eta kudeaketa-egoera ebaluatzeko, ezinbestekoa da ezagutza izatea espezieen banaketaren aldaketari eta epe luzerako populazio-joerei buruz[43]. Testuinguru horretan, hain zuzen ere, edozein atlas modernoren helburu garrantzitsuenetako bat da aztertutako eremuan ugaltzen diren espezieen banaketa-eremuan izandako aldaketa kuantifikatzea[1,3]. Informazio-mota horren garrantziaz jabetuta, atlas honetan Euskadin ugaltzen diren hegaztien banaketaren aldaketa estimatzen da. Horretarako, 2016-2020 eperako lortu diren datuak eta 1998-2001 eperako Espainiako hegazti habiagileen atlaserako (2003an argitaratua) lortu zirenak alderatu ziren[6].

Edozein aldaketa-estimaziotan, erronketako bat izaten da ongi bereiztea zein diren benetako aldaketak eta zein diren laginketa-ahalegina aldatzearen eta landako datuak hartzeko metodologia aldatzearen ondoriozkoak[44]. 2003ko atlasaren eta egungoaren artean aldaketa-estimazio sendoak eta, ondorioz, alderagarriak lortzeko, aldez aurretik analisi eta eredu batzuk egin behar izan ziren metodologia bera ez zuten bi lan horien emaitzak alderatzeko.

2003ko atlasean, datuak 10×10 km-ko UTM gelaxken sare baten gainean hartu ziren. Atlas horretan, behatzaileei proposatutako landa-metodologia hau izan zen: gelaxkako habitat guztiak zeharkatzea, denbora-mugarik gabe, ahalik eta espezie gehien detektatzeko. Datuak biltzeko zentsu-metodoari buruzko xehetasunak Purroyn aurki daitezke[45]. Garai hartan erabilitako beste metodologia batzuetan oinarritzen dira, hala nola 1990eko hamarkadan garatutako Europako hegazti ugaltzaileen atlasean deskribatu eta aplikatutakoak[46]. Gaur egungo Euskadiko Atlasean, behatzaile bakoitzak 1×1 km-ko bi gelaxka zeharkatu behar izan zituen, 5×5 km-ko gelaxkako habitat adierazgarrienak bilduko zituztenak, 4 orduko zentsatze-denboran. Horri beste laginketa kuantitatibo bat gehitu zitzaion, 0,5 orduko zentsatze-denboran, 1 km^2 baino gehiagoko gelaxka batean. Horrez gain, hainbat iturritatik 5×5 km-ko gelaxka bakoitzerako sortutako aipamen guztiak bildu ziren. Horrela, bada, bi atlasen arteko alderik nabarmenena lan-eskala da –10×10 km eta 5×5 km lehenengoan eta bigarrenean, hurrenez hurren–, eta horren ondoriozko laginketa-ahaleginen arteko aldea.

Mapa de cambio

Generalidades

El conocimiento sobre el cambio de la distribución de las especies así como de sus tendencias poblacionales es imprescindible para evaluar estados de conservación y gestionar nuestro patrimonio natural[43]. En este contexto, precisamente uno de los objetivos más importantes de cualquier atlas moderno es cuantificar el cambio en el área de distribución de las especies que se reproducen en la zona estudiada[1,3]. Conscientes de ello, en el presente Atlas se estima el cambio en la distribución de las aves que se reproducen en Euskadi, comparando los datos que se han obtenido en el periodo 2016-2020 con los que se obtuvieron para el atlas de aves nidificantes en España en el periodo 1998-2001[6].

Uno de los retos que se han de afrontar en cualquier estima de cambio es la distinción entre los cambios reales y los que se producen por las variaciones en el esfuerzo de muestreo y la metodología de toma de datos en campo[44]. Para obtener estimas de cambio robustas y comparables entre el atlas de 2003 y el actual, se realizaron algunos análisis previos y modelos para comparar los resultados de dos trabajos que no compartieron metodologías.

El atlas de 2003 se desarrolló sobre una malla de celdas UTM de 10×10 km, con una metodología consistente en recorrer todos los hábitats que había en la celda, sin limitación temporal, con el fin de detectar el mayor número posible de especies presentes. Detalles sobre el método de censo para la recolección de datos se pueden encontrar en Purroy[45] y se basan en otras metodologías utilizadas durante aquel periodo, como las descritas y aplicadas en el atlas de aves reproductoras de Europa desarrollado en la década de 1990[46]. En el actual Atlas de Euskadi, cada observador tuvo que recorrer dos celdas de 1×1 km, que contuvieran los hábitats más representativos de la celda de 5×5 km en la que se situaban, durante un periodo total de censo de 4 h, al que se sumó otro muestreo, cuantitativo, durante un periodo total de censo de 0,5 h en cada una de las dos celdas cuantitativas de 1 km^2, más la recopilación de todas aquellas citas generadas para cada una de las celdas de 5×5 km a partir de diversas fuentes. Así pues, la diferencia más destacable entre ambos atlas es la escala de trabajo, de 10×10 km y 5×5 km en el primero y segundo, respectivamente, y el consiguiente desigual esfuerzo de muestreo.

Atlas honetan (Denbora-tartea: 2016-2020)	2003ko atlasa (Denbora-tartea: 1998-2001)
Carduelis citrinella	*Serinus citrinella*
Chloris chloris	*Carduelis chloris*
Curruca iberiae	*Sylvia cantillans*
Curruca communis	*Sylvia communis*
Curruca conspicillata	*Sylvia conspicillata*
Curruca hortensis	*Sylvia hortensis*
Curruca melanocephala	*Sylvia melanocephala*
Curruca undata	*Sylvia undata*
Dryobates minor	*Dendrocopos minor*
Hieraaetus pennatus	*Aquila pennata*
Iduna opaca	*Hippolais pallida*
Linaria cannabina	*Carduelis cannabina*
Mareca strepera	*Anas strepera*
Picus sharpei	*Picus viridis*
Spatula clypeata	*Anas clypeata*
Tachymarptis melba	*Apus melba*

2. taula. 2003ko atlasean[6] zein atlas honetan detektatu diren espezieen artean aldaketa taxonomikoak izan dituztenen korrespondentzia (oro har, generoaren edo espeziearen izenean gertatutako aldaketak dira).

Atlas actual (Periodo: 2016-2020)	Atlas de 2003 (Periodo: 1998-2001)
Carduelis citrinella	*Serinus citrinella*
Chloris chloris	*Carduelis chloris*
Curruca iberiae	*Sylvia cantillans*
Curruca communis	*Sylvia communis*
Curruca conspicillata	*Sylvia conspicillata*
Curruca hortensis	*Sylvia hortensis*
Curruca melanocephala	*Sylvia melanocephala*
Curruca undata	*Sylvia undata*
Dryobates minor	*Dendrocopos minor*
Hieraaetus pennatus	*Aquila pennata*
Iduna opaca	*Hippolais pallida*
Linaria cannabina	*Carduelis cannabina*
Mareca strepera	*Anas strepera*
Picus sharpei	*Picus viridis*
Spatula clypeata	*Anas clypeata*
Tachymarptis melba	*Apus melba*

Tabla 2. Correspondencia en la nomenclatura de las especies que fueron detectadas tanto en el atlas de 2003[6] como en el actual y que han sido objeto de modificaciones de carácter taxonómico (en general, cambios en el nombre genérico o específico).

Aldaketa taxonomikoak eta espezie berriak

Aztertutako denbora-tartean, ez da gertatu Euskadin ugaltzen diren espezieen arteko konbergentzia edo desados-tasun taxonomikorik, eta horrek erraztu egin du denbora-tarteen arteko alderaketa. Aldiz, 15 espezietan aldaketa taxono-mikoak gertatu dira, eta haien sinonimia bat egin da (2. taula).

Atlasen artean aldera daitekeen eremua mugatzea


Bi atlasen arteko edozein analisi konparatibo egin aurretik, alderatu beharreko espazioa definitu behar izan zen. Izan ere, erabaki zen egungo Euskadiko Atlasean lurralde horretako eremua bakarrik lagintzea (Trebiñuko Konderria eta Villaverde Turtzioz barnean sartuta); 2003ko atlasean, berriz, estatukoa zenez, 10×10 km-ko UTM gelaxken eskalako laginketak ez zuen kontuan hartu gelaxka horien zati batzuk Euskadin zeuden ala ez. Errealitate hori alde batera utziz gero, mugakide diren gelaxketan alborapenak sortu litezke. Izan ere, Euskadin ugaltzen ez diren espezieak egongo lirateke haietan, eta horrek ekarriko luke, gaur egungo atlasarekin alderatuta, detektatutako espezieen kopurua gainestimatzea –atlas honetan aztertutako eremua Euskadira mugatzen baita–. Horrela, bada, egungo Atlasean zentsatutako 10×10 km-ko 109 gelaxketatik (5×5 km-ko lau gelaxkak gehitu ondoren), mugan dauden gelaxkak baztertzea erabaki zen; horretarako, atalase gisa eremuaren %60 Euskadi barruan egon beharra ezarri zen (hau da, eremuaren %40 baino gehiago Euskaditik kanpo zuten gelaxkak kendu egin ziren). Irizpide hori aplikatuta, 10×10 km-ko 23 UTM gelaxka kendu ziren (5. ird.). Halaber, Kantauri itsasoarekin mugan zeuden 5 gelaxka kendu ziren, haien %10 baino gutxiago baitzen lurrazala.

Cambios taxonómicos y nuevas especies

Durante el periodo de tiempo analizado, no ha habido convergencias ni divergencias taxonómicas de las especies que se reproducen en Euskadi, lo cual ha facilitado la comparación entre periodos. Pero sí ha habido, no obstante, cambios taxonómicos en 15 especies para las que se ha establecido una sinonimia (Tabla 2).

Delimitación de la superficie comparable entre atlas

Antes de realizar cualquier análisis comparativo entre los dos atlas, hubo que definir el espacio que iba a ser objeto de la comparación, ya que en el actual Atlas de Euskadi se optó por muestrear sólo el área dentro de este territorio (incluido el Condado de Treviño y el Valle de Villaverde), mientras que, en el atlas de 2003, por ser estatal, el muestreo a escala de celdas UTM de 10×10 km ignoró si parte de estas celdas se encontraba o no dentro de Euskadi. Ignorar esta realidad daría lugar a posibles sesgos en celdas limítrofes, ya que en las mismas habría especies que no crían en Euskadi, lo cual daría lugar a sobreestimas en el número de especies detectadas respecto al actual Atlas, cuya área de estudio sí se limita a Euskadi. Así pues, de las 109 celdas de 10×10 km censadas en el actual Atlas (tras la agregación de las cuatro celdas de 5×5 km incluidas), se optó por excluir las celdas limítrofes, estableciendo como umbral el valor de 60% de superficie dentro de Euskadi (esto es, las celdas que tenían más del 40% de su superficie fuera de Euskadi se eliminaron). La aplicación de este criterio supuso la eliminación de 23 celdas UTM de 10×10 km (Fig. 5). Se eliminaron también 5 celdas limítrofes con el mar Cantábrico, las cuales tenían un porcentaje inferior al 10% de superficie terrestre.



5. ird. Atlas honetarako lagindutako 10×10 km-ko 109 UTM gelaxken adierazpena. Gris ilunez markatzen dira eremuaren %40 edo gehiago Euskaditik kanpo duten gelaxkak (*n* = 23). Ez ziren kontuan hartu 2003ko Espainiako hegazti ugaltzaileen Atlaseko[6] datuak eta egungo atlasekoak alderatzerakoan (espezieen banaketan izandako aldaketak estimatzeko egindako alderaketan). Gris argiz markatzen dira Kantauri itsasoaren mugan zeuden gelaxkak, zeinak ez baitziren kontuan hartu alderaketarako.

Fig. 5. Representación de las 109 celdas UTM de 10×10 km muestreadas para este Atlas. En gris oscuro se marcan las celdas con un 40% o más de superficie fuera de Euskadi. Estas celdas (*n* = 23) no se consideraron a la hora de comparar los datos del atlas de aves reproductores de España de 2003[6] y los del actual Atlas con el fin de estimar cambios en la distribución de especies. En gris claro se marcan las celdas limítrofes con el mar Cantábrico que tampoco se tuvieron en cuenta para la comparativa.

Gelaxka alderagarriak identifikatzea

Eremu geografiko alderagarria identifikatu ondoren, gelaxka bakoitzean egindako zentsu-ahaleginak ere alderagarriak ote ziren aztertu zen. 2003ko atlasean, espezieen presentziaren datazio kualitatiboan ez zen laginketa-ahalegina kuantifikatu, eta, beraz, bi atlasen arteko estandarizazioa ezinezkoa da. Europako hegazti ugaltzaileen atlas berriko[1] banaketa-eremuan aldaketa-mapak egiteko aplikatutako metodologia konparatiboari jarraituz, gure kasuan, garai bakoitzeko (2003ko eta 2020ko atlasak) laginketa-ahalegina inferitzeko, behatutako espezie-kopurua eta 10×10 km-ko UTM gelaxka bakoitzerako iragarritako espezie kopurua hartu ziren oinarritzat[47] .

Horretarako, espezieen iragarritako aberastasuna estimatzeko, modelizazio bat garatu zen, zeinak, Euskadiko ingurumen-gradienteak definitzen dituzten ingurumen-aldagai nagusietatik abiatuta, behatutako espezieei zegokien balioa iragarriko baitzuen. Ariketa hori egiteko, eredu misto lineal orokortuak (EMLO) erabili ziren bi atlas horietako bakoitzerako. Zehazki, aldagai mendeko gisa, gelaxka eta atlas bakoitzean behatutako espezieen aberastasuna hartu zen, eta, independente gisa, urtea, itsasertzerako distantzia, prezipitazioa (batez bestekoa), tenperatura (batez bestekoa

Identificación de celdas comparables

Una vez identificada el área geográfica comparable, se determinó si el esfuerzo de censo por celda era, también, comparable. En la datación cualitativa de la presencia de especies en el atlas de 2003 no se cuantificó el esfuerzo de muestreo, por lo que la estandarización entre los dos atlas no es posible. Siguiendo el método de análisis aplicado en el nuevo atlas de aves reproductoras de Europa para hacer los mapas de cambio de la distribución de especies[1], se infirió el esfuerzo de muestreo en cada periodo (atlas de 2003 y 2020) a partir del número de especies observadas y el número predicho de especies para cada una de las celdas UTM de 10×10 km[47].


Para ello, se desarrolló una modelización que estimara el número de especies observadas a partir de las principales variables ambientales que definen los gradientes ambientales en Euskadi. Este ejercicio se realizó usando modelos mixtos lineales generalizados (MMLG) para cada uno de los dos atlas. Concretamente, se incluyó la riqueza de especies en cada celda y atlas como variable dependiente y, como independientes, el año, distancia a la costa, precipitación (media), temperatura (media y máxima), cobertura de bosques de coníferas y frondosas, vegetación arbustiva,

eta maximoa), konifero- eta hostozabal-basoen estaldura, zuhaixka-landaredia, eremu artifiziala eta ur-eremua, baita aldagai horien eta urtearen arteko interakzioak ere. Azkenik, probintzia sartu zen ereduan, ausazko faktore gisa. Ondoren, ereduak hautatu ziren, AIC balioen bidez[48] .

Datuetara ondoen egokitu zen eredua hautatu ondoren, aberastasun-balioa iragarri zen, zeinean %90eko konfiantza-tartearen barruko batezbestekoa eta aberastasun-balioak baitzeuden. Ondoren, %5 eta % 95eko hondar-balioa baino txikiagoa eta handiagoa zuten gelaxkak identifikatu ziren. Balio horiek gelaxka bakoitzerako behatutakoekin alderatu ziren, halako moldez non behatutakoa iragarpenaren konfiantza-tartearen barruan bazegoen, orduan gelaxka bi atlasen artean alderagarritzat hartzen baitzen. Bestela, behatutako balioa estatistikoki iragarritako baliotik kanpo zuten gelaxkak *alderaezintzat* hartu ziren, hau da, *azpilagindu* edo *gainlagindu* gisa, iragarritako balioaren azpitik edo gainetik bazeuden, hurrenez hurren. Gelaxka hauek, *alderaezintzat* sailkatuak, kolore argiagoekin adierazten dira banaketa-aldaketaren mapan eta ez ziren kontuan hartu aldaketa-indizea kalkulatzeko orduan. Prozesu horren ondoren, 38 gelaxka "alderagarri" identifikatu ziren; hain zuzen, haiek erabili ziren banaketa-eremuko aldaketa-ehunekoa kalkulatzeko (6. ird.).

superficie artificial y superficie de agua; así como las interacciones entre estas variables con el año. Posteriormente se abordó la selección de modelos mediante valores AIC[48].

Seleccionado el modelo que mejor se ajustó a los datos, se predijo el valor de riqueza, donde se incluía la media y los valores de riqueza que se incluían dentro del intervalo de confianza del 90%. Posteriormente, se identificaron las celdas que presentaron un valor residual menor o mayor a los percentiles 5 y 95. Estos valores se compararon con los observados para cada una de las celdas, de tal modo que si el observado estaba dentro del intervalo de confianza del predicho, entonces la celda se consideraba como 'comparable' entre los dos atlas. Alternativamente, aquellas celdas en donde el valor observado se encontraba estadísticamente fuera del valor predicho se consideraron como 'no comparables'; esto es, 'infra-muestreadas' o 'sobre-muestreadas' si se encontraban por debajo o por encima del valor predicho, respectivamente. Estas celdas, clasificadas como 'no comparables', se representan con colores más claros en el mapa de cambio de distribución y no se tuvieron en cuenta a la hora de calcular el índice de cambio. Tras este proceso, se identificaron 38 celdas "comparables", que son las que se han empleado para calcular el porcentaje de cambio en el área de distribución (Fig. 6).



6. ird. Euskadiko 109 gelaxken adierazpena. Grisez, alderaketarako kontuan hartu ez diren muga-gelaxkak. Berdez, alderaketarako fidagarriak diren 38 gelaxkak, aldaketa-ehunekoa kalkulatzeko erabilitakoak. Hutsik dauden gelaxketan badaude hegaztien presentziako datuak, baina espezieen aberastasunari buruzko ereduaren osteko alderaketa egiteko, ez-fidagarritzat sailkatu dira.

Fig. 6. Representación de las 109 celdas de Euskadi. En gris las celdas limítrofes no tenidas en cuenta para la comparativa. En verde, las 38 celdas fiables para la comparativa y utilizadas para el cálculo del porcentaje de cambio. Las celdas en blanco son aquellas con datos de presencia de aves, pero clasificadas como no fiables para la comparativa tras el modelo relativo a la riqueza de especies.

Banaketa-aldaketaren ehunekoa eta aldaketa-mapa

Banaketa-aldaketa mapa bidez bisualki adierazteaz gain, banaketa-aldaketaren ehuneko bat kalkulatu zen, konparatutako bi atlasen artean dagoen 15 urteko tartean izandako aldaketa kuantifikatzeko (1998-2001koa eta 2016-2020koa baitira). Horretarako, aldaketa-ehunekoa kalkulatu zen, ekuazio honen bidez:

$$\text{Aldaketa-ehunekoa} = 100\times[(N_2 - N_1)/(N_1)]$$

non, espezie bakoitzerako, N_1 2003ko atlasean okupatutako 10×10 km-ko gelaxken kopurua baita, eta N_2 egungo atlasean okupatutako 10×10 km-ko gelaxken kopurua.

Lehen aipatu bezala, ehuneko hori ahalik eta sendoena izan zedin, gelaxka alderagarriak erabiliz kalkulatu zen, hau da, soilik honelako datuak erabili ziren: ereduak iragarritako espezie-aberastasunaren antzeko espezie-kopurua duten gelaxken datuak. Gainera, aldaketa-ehunekoari konfiantza-maila bat emate aldera, *bootstraping*eko teknikak erabili genituen, zeinekin aberastasunerako konfiantza-tarte bat sortzen baita. Zehazki, 1.000 errepikapen egin ziren (ordezkapen bidezko ausazko birlaginketak), bai eta aldaketa-indizearen balio guztien batezbestekoa eta haien %90eko konfiantza-tartea kalkulatu ere (beraz, era kontserbatzaileagoan, kontuan hartuta kontserbazio-biologiaren ikuspegitik banaketa-eremua murrizteak duen garrantzia), Keller *et al*-en hurbilketa erabiliz[3].

Banaketa-aldaketaren estimazio-mapa bakoitzean (adibidez, 7. ird.), 10×10 km-ko UTM gelaxken sare baten gainean sortua, tonu laranjetako gelaxkek erakusten dute non detektatu zen espeziea 1998-2001 epean, baina ez 2016-2020 epean (hau da, espezieak gelatxo horretan izandako desagerpena behatu da). Aldiz, urdinezko gelaxkek adierazten dituzte 1998-2001eko atlasean espeziea detektatu ez arren egungo Atlasean detektatu den eremuak (hau da, kolonizazioa islatzen dute). Gelaxka hutsek adierazten dituzte bi atlasetan espeziea absente egon zen eremuak, eta gelaxka grisek, berriz, bi atlasetan espeziea detektatu zen eremuak. Kolore bakoitzerako (laranja, urdina eta grisa) bi tonalitate desberdin erabili dira, bata ilunagoa eta bestea argiagoa. Horrela, gelaxka *alderagarriak* (ilunak) eta *ez-alderagarriak* (argiak) bereizten dira; bigarren horien oinarria da, bi atlas horien artean espezie-kopuru hain desberdina detektatu izanaren ondorioz, aldaketak estimatzeko ez-fidagarritzat hartzen ditugula. 2003ko atlasean erregistratu gabeko 13 espezie detektatu dira Atlas berrian; kasu horietan guztietan tonu urdin ilunagoa aplikatu da.

Porcentaje de cambio de distribución y mapa de cambio

Además de la representación visual del cambio de distribución a través de un mapa, se calculó un porcentaje de cambio de distribución con el fin de cuantificar el cambio para el intervalo de 15 años que dista entre los dos atlas comparados (1998-2001 a 2016-2020). Para ello, se calculó el porcentaje de cambio, mediante la ecuación:

$$\text{Porcentaje de cambio} = 100\times[(N_2 - N_1)/(N_1)]$$

donde, para cada una de las especies, N_1 es el número de celdas de 10×10 km ocupadas en el Atlas de 2003 y N_2 es el número de celdas de 10×10 km ocupadas en el actual Atlas.

Como se ha mencionado antes, para que este porcentaje sea lo más robusto posible, se calculó sólo utilizando los datos de las celdas en las que el número de especies observado era similar al de la riqueza de especies predicha por el modelo, esto es, usando las celdas comparables. Además, para dar una medida de confianza al porcentaje de cambio, utilizamos técnicas de *bootstraping* con las que se genera un intervalo de confianza para la riqueza. En particular, se generaron 1000 repeticiones o remuestreos aleatorios con reemplazo para calcular la media de todos los valores de índice de cambio y su intervalo de confianza al 90% (*i.e.*, de un modo más conservador teniendo en cuenta la relevancia, desde un punto de vista de la biología de la conservación, de una reducción del área de distribución), usando la aproximación de Keller *et al.*[3].

En cada mapa de estima del cambio de la distribución (*e. g.,* Fig. 7), creado sobre una malla de celdas UTM de 10×10 km, las celdas en tonos naranjas muestran dónde la especie se detectó durante el periodo 1998-2001 y no durante el periodo 2016-2020 (esto es, desaparición -observada- de la especie en la celda). Por el contrario, las celdas en azul representan zonas donde la especie no se detectó en el atlas de 1998-2001 y sí en el actual Atlas (esto es, reflejan colonización). Las celdas en blanco representan zonas donde la especie estuvo ausente en ambos atlas y las celdas en gris zonas donde la especie se detectó en ambos atlas. Para cada uno de los colores (naranja, azul y gris) se han utilizado dos tonalidades diferentes, una más oscura y otra más clara, distinguiendo así las celdas "comparables" (oscuras), con las que, debido al desigual número de especies detectadas entre ambos atlas, consideramos que no son fiables para estimar cambios por ser "no comparables". En el Atlas se detectan 13 especies no registradas en el atlas de 2003; en todos estos casos se ha aplicado un tono azul más oscuro.

Populazio-estimazioak


Hegaztien detektagarritasuna trantsektu linealetan

Hegaztien inbentarioak egitean, ez dira banako guztiak detektatzen. Detekzio-probabilitatea hainbat arrazoirengatik txikitzen da: behatzaileaganako distantzia, eguneko ordua, urteko garaia, hegaztiaren jarduera-maila, sexua eta meteorologia, besteak beste[49]. Horregatik, trantsektu linealak– Atlas honen ugaritasun-kalkulu osorako oinarriak– egiteko, hegaztien jarduera gorena zuten eguneko uneak eta euririk

Estimas poblacionales

Detectabilidad de aves en transectos lineales

Al efectuar inventarios de aves, no todos los individuos son detectados. La probabilidad de detección disminuye por causas tan diversas como la distancia al observador, la hora del día, la época del año, el nivel de actividad del ave, su sexo o la meteorología, entre otras[49]. Este es el motivo por el que los transectos lineales en los que se basa todo el cálculo de abundancias de este Atlas fueron realizados en



7. ird. Adibidea: zikoina zuriaren Euskadiko banaketaren aldaketa-mapa, 1998-2001eko atlasaren[6] eta gaur egungoaren (2016-2020) arteko bitartean. Gelaxka laranjek desagerpena erakusten dute, eta, urdinek, kolonizazioa. Hutsik, bi atlasetan espeziea falta zen eremuak, eta, grisez, bi atlasetan aipatutako espeziea. Gelaxken tonalitateak fidagarritasun-maila adierazten du: kolore ilunak, bi atlasen arteko alderaketa fidagarria duten gelaxkak; argiak, alderaketa fidagarria ez dutenak.

Fig. 7. Ejemplo de mapa de cambio en la distribución de la cigüeña blanca en Euskadi para el intervalo entre los atlas de 1998-2001[6] y el actual, 2016-2020. Las celdas naranjas muestran desaparición y las celdas azules, colonización. En blanco, zonas donde la especie estuvo ausente en ambos atlas y, en gris, zonas donde la especie se citó en ambos atlas. La tonalidad de las celdas indica el nivel de fiabilidad: colores oscuros, celdas para las que la comparación entre ambos atlas es fiable; claros, donde dicha comparación no es fiable.

eta haizerik gabeko egunak hautatu ziren. Hala ere, arrek eta emeek ugaltze-garaian betetzen dituzten zeregin desberdinek detekzio diferentzialerako probabilitatea eragiten dute; adibidez, txitatzen emeek arrek baino denbora gehiago ematen duten kasuetan.

Ugaritasunak kalkulatu aurretik, bi analisi-mota egin ziren:

(1) Detekzio-probabilitatea eta zentsu-distantzia efikaza kuantifikatu ziren, horretarako hegaztiak behatu edo entzun ziren distantziak erabiliz.

(2) Arren eta emeen detekzio-probabilitatearen sexu arteko alborapena zuzendu zen, espezie bakoitzerako, sexu bakoitzaren behaketen proportzioa kontuan hartuta.

Detekzio-probabilitatea eta zentsu-distantzia efikaza kalkulatzeko erabili behar diren landa-datuek, nahitaez, hegaztia zein distantziatara detektatu den kontuan hartu behar dute. Atlas hau herritarrek parte hartzen zuten zientzia-programa bat zenez, hurbilketa hori lortzea zaila zen, eta, beraz, behatzaileei hegazti bakoitza 25 metro baino gehiagora edo gutxiagora detektatu ote zen zehaztea baino ez zitzaien eskatu. Zentsu-zerrendak erabiliz egindako hegazti-laginketa (atlas honetan erabilitako 25 m-koaren modukoa) aspaldidanik erabiltzen den protokoloa da hegaztien atlas kuantitatiboak egiteko[50,51]. Nahiz eta detekzio-probabilitatea estimatzeko erregistro bakoitzetik behatzaileraino dagoen

los momentos del día en que la actividad de las aves fue máxima y en días sin lluvia ni viento apreciable. Aun así, los diferentes papeles desempeñados por machos y hembras durante el periodo reproductivo conducen a una probabilidad de detección diferencial (por ejemplo las hembras dedican más tiempo a la incubación que los machos).

Previamente al cálculo de abundancias se llevaron a cabo los siguientes dos tipos de análisis:

(1) Cuantificar la probabilidad de detección y la distancia eficaz de censo utilizando las distancias a las que las aves fueron observadas u oídas.

(2) Corregir el sesgo inter-sexual de probabilidad de detección de machos y hembras para cada especie, teniendo en cuenta la proporción de contactos de cada sexo.

Para calcular la probabilidad de detección y la distancia eficaz de censo se parte, necesariamente, de datos de campo en los que se ha tenido en cuenta la distancia a la que el ave se detecta. Debido a la dificultad de esta aproximación en un programa de ciencia ciudadana, como ocurre en este Atlas, sólo se requirió a los observadores establecer si los individuos fueron detectados dentro o fuera de una banda de censo de 25 m[50,51]. Aunque la probabilidad de detección se estima teniendo en cuenta la distancia exacta de cada registro al observador[52,53], cabe aproximarse a ella mediante procedimientos más sencillos que consideran únicamente el balance de los contactos que se ubican

distantzia zehatza kontuan hartu behar den[52,53], prozedura sinpleagoen bidez hurbildu daiteke balio hori: zentsu-zerrenda baten barruan edo kanpoan dauden behaketen balantzea besterik kontuan hartu gabe. Adibidez, detekzio-probabilitatea behatzailerainoko distantziarekin linealki txikitzen dela onartuz[54,56], edo Montecarloko eta erregresioaren simulazioen bidez, behaketetarako distantzien banaketa-funtzioen aukera zabalarekin[57]. 2. eranskinak erakusten ditu: 464 trantsektuetan behatutako banakoen kopurua, trantsektuaren lerrotik 25 m baino gutxiagora perpendikularki detektatutako banakoen proportzioa eta zentsu-dentsitate absolutuak estimatzeko aukera ematen duten bi metodologiaren bidez lortutako zentsu-distantzia efikazak (ZDE). ZDE hau betetzen duen distantzia da: berdinak dira distantzia horretatik harago detektatutako banakoen ehunekoa eta landalana egin zen bitartean hor zeuden arren distantzia horretatik behera detektatu ez ziren banakoen ehunekoa. Bi prozeduren bidez lortutako ZDEen estimazioek lotura estua dute elkarren artean (r = 0,999, n = 89 espezie). Detekzio-probabilitateak eta ZDE, halaber, *Distance*[53] metodoaren bidez kalkula daitezke, zentsu-zerrendak erabiliz. Kasu horretan, behaketa-kopuru handi batetik abiatuta, detekzio-distantzia maximoak (DDM) ezarri behar dira. Prozedurak laginen tamaina handiak eskatzen ditu, kalkuluak egiteko parametro asko behar baitira (hala ere, Järvinenek[56] 20 behaketa gomendatzen ditu metodologia erraz baten bidez emaitza egonkorrak lortzeko). Distantzia horiek landan neurtzeko zailak dira, eta, beraz, halakorik ez badago, estimatu egin behar dira. Metodo horren bidez DDM aldatzean detekzio-probabilitatea ere aldatzen den arren, lortzen diren ZDE balioak oso antzekoak dira. Hori gertatzen da erlazio estua ezartzen delako distantzia maximoaren eta muga horretaraino detektatzeko probabilitatearen artean. Adibidez, erregetxo bekainzuriarentzat 31,4 metroko ZDE balioa lortuko litzateke, eta 28,6-34,2 m-ko konfiantza-tartea %95eko konfiantza-mailarekin, bai 75 bai 100 m-ko detekzio-distantzia maximoetarako. Txonta arrunterako, estimatutako ZDEren batez besteko balioa 73,8 m-koa da (68,7-78,9 m), 100 m-ko detekzio-distantzia maximorako, eta 73,2 m-koa (68,3-78,1 m) 150 m-ko distantzia maximorako.

Dentsitatea (D), detektagarritasuna distantziarekiko murriztzen dela kontuan hartuta, ekuazio honen bidez estimatzen da: $D = N/(L \times ZDE \times 2)$, non: N detektatutako banakoen kopurua baita; L, trantsektuaren luzera; *ZDE*, zentsu-distantzia efikaza; eta ×2 biderkatzea hegaztiak detektatzeko behatzaileak egiten duen ibilbidearen bi aldeei baitagokie.

ZDE erabiltzen duten analisietan, 2. eranskinean erakusten diren %95eko konfiantza-tarteetatik ausaz ateratako balioak[54,57] erabili dira. Tarte horiek hobeto informatzen dute espezie bakoitza detektatzeko dagoen probabilitatearen aldakortasunari buruz. Arestian esan bezala, aldakortasun hori eragiten duten faktore ugari daude.

Sexuen arteko detekzio diferentzialerako probabilitatearen zuzenketa

Atlas honetan lortutako ZDEek espezie bakoitzaren behaketak kontuan hartzen dituzte, baina sexua ez. Beraz, ZDEren balioek dentsitate absolutuak kalkulatzeko balio dute, benetan behatutako arren eta emeen frakzio horren detekzio-

dentro o fuera de la banda de censo. Esto se hace asumiendo que la probabilidad de detección disminuye linealmente con la distancia al observador[54,56], o mediante simulaciones de Monte Carlo y regresión con un amplio espectro de funciones de distribución de las distancias a los contactos[57]. El Apéndice 2 muestra el número de individuos observados en los 464 transectos, la proporción de ellos detectados perpendicularmente a menos de 25 m de la línea del transecto así como las distancias eficaces de censo (DEC) obtenidas por dos metodologías que permiten estimar densidades absolutas. DEC se define como la distancia a la cual el porcentaje de individuos detectados más allá de ella equivale al porcentaje de individuos que, aun estando presentes durante el trabajo de campo, no se detectan a menos de esa distancia. Las estimas de DEC obtenidas mediante los dos procedimientos están estrechamente relacionadas entre sí (r = 0,999, n = 89 especies). Las probabilidades de detección y la DEC también pueden estimarse mediante el método *Distance*[53], utilizando bandas de censo. En este caso se requiere establecer las distancias máximas de detección (DMD) a partir de un número grande de contactos. El procedimiento demanda elevados tamaños muestrales debido al alto número de parámetros requeridos al efectuar los cálculos (no obstante, Järvinen[56] recomienda 20 contactos para alcanzar resultados estables con su aproximación metodológica sencilla). Estas distancias son difíciles de medir en el campo, por lo que si no existen hay que asumirlas. Aunque variar la DMD genera probabilidades de detección diferentes aplicando este método, los valores de DEC obtenidos son muy similares. Esto se debe a la estrecha relación que se establece entre distancia máxima y probabilidad de detección hasta ese límite. Por ejemplo, para el reyezuelo listado se obtendría un valor de DEC de 31,4 m y un intervalo de confianza al 95% de 28,6-34,2 m, tanto para distancias máximas de detección de 75 m como de 100 m. Para el pinzón vulgar, el valor medio de DEC estimado es 73,8 m (68,7-78,9 m) con una distancia máxima de detección de 100 m, y 73,2 m (68,3-78,1 m) con una distancia máxima de 150 m.

La densidad (D), teniendo en cuenta la disminución de la detectabilidad con la distancia, se estima mediante la ecuación $D = N/(L \times DEC \times 2)$, donde: N es el número de individuos detectados, L es la longitud del transecto, *DEC* es la distancia eficaz de censo y el producto ×2 se refiere a los dos lados del observador cuando al caminar detecta aves.

En los análisis que hacen uso de la DEC se han utilizado valores extraídos al azar dentro de los intervalos de confianza al 95% mostrados en el Apéndice 2[54,57]. Esos intervalos informan mejor sobre la potencial variabilidad en la probabilidad de detección de cada especie, al existir numerosas fuentes de variación que contribuyen a ello tal como ya se ha señalado.

Corrección de la probabilidad de detección diferencial entre sexos

Las DEC obtenidas en este Atlas tienen en cuenta los contactos con cada especie pero no tienen en cuenta el sexo. Por tanto, los valores de DEC son válidos para estimar densidades absolutas, controlando la probabilidad de detección,

probabilitatea kontrolatuz. Hasiera batean sexuen arteko 1:1eko ratioa har genezakeen arren, espezie gehienetan behaketen proportzio handiena arrak izaten dira (izan ere, sarritan behatzen dena kantari ari diren arrak izaten dira). Behatutako bi sexuen proportzioa (arren itxurazko proportzioa *pI* izanik) ez bada populazioarentzat benetakotzat onartzen den %50:%50 (arrentzat, benetako proportzioa *pE* = 0,5), dentsitatea azpiestimatu egiten da (orduan eta gehiago, laginean emeen proportzioa zenbat eta txikiagoa izan). Adibidez, urretxoriaren kasuan, detektatu ziren banakoen %100 arrak izan ziren. Hori horrela izanik, ZDEren balioak arren dentsitatea kalkulatzeko aukera ematen du, baina ez populazio osoarena. Horren arabera, beraz, eme adina ar daudela onartuz gero, dentsitatea bikoiztu egin beharko litzateke.

Ekuazio matematiko batzuk ebazteari esker, arazo horren indize zuzentzaileak kalkula daitezke. Oro har, populazioan dauden arren benetako proportzioaren (*pE*) balioa ez da ezagutzen, baina espezie-kopuru handi batean %50 ingurukoa da. Montecarloko simulazioen bidez (arrak eta emeak detektatzeko probabilitate-agertoki ugari sortuz, betiere 1:1 sexu-ratioaren arabera), indize biderkatzaile bat (IB) kalkulatzen duen ekuazio bat lor daiteke, landa-laneko ar-proportzio alboratua (pI; hau da, sexuen arteko itxurazko proportzioa) zuzentzen duena[58]:

$$IB = 2 - 4\times pI + 4\times pI^2$$

Detektatutako arren eta emeen proportzioa berdin-berdina bada (*pI*= 0,5), orduan *IB* = 1 da, eta beraz, praktikan, zuzenketa ez da beharrezkoa. Baina detektatutako arren proportzioa %67koa bada (*pI* = 0,67), orduan *IB* = 1,116 da, eta, beraz, dentsitateak %11,6 handitu behar dira. *IBren* azken balioa (*IBA*) kalkulatzeko, kontuan hartu zen sexua identifikatu gabeko hegazti-kopurua (*p*) eta aldez aurreko *IB* indizea, formula honen bidez:

$$IBA = p\times 1 + (1-p)\times IB$$

Ikus daitekeenez, azken ekuazio horretan 1:1eko sexuen ratioa (hau da, *pI* = 0,5) onartzen da sexua identifikatu gabeko hegaztien laginean.

3. eranskinak espezie bakoitzaren behaketen banaketa erakusten du, honen arabera: zentsatutako sexu bakoitzeko banakoen kopurua eta sexua identifikatu gabekoen kopurua.

Trantsektu linealek estalitako eremua

Guztira 464 trantsektu lineal egin ziren, 500 m-ko luzerakoak, 1×1 km-ko 464 UTM gelaxkatan, 5×5 km-ko 247 UTM gelaxkaren barruan (batez beste, 1,88 trantsektu/5×5 km-ko gelaxka). Hau izan da Atlas honen laginketa-ahalegina 7.534 km^2-ko eremuan (Euskadi: 7234 km^2; Trebiñu: 280 km^2; Villaverde Turtzioz: 20km^2). Testuinguru honetan, galde dezakegu: Zein izan da 464 trantsektuek benetan estali duten lurraldearen ehunekoa?

Alderdi horrek ugaritasunaren estimazio kuantitatiboari lotutako laginketa-ahaleginaren berri ematen du. Hari ekiteko, ZDEren balioez baliatu gara –2. eranskinean erakusten dira–. 2. eranskinaren amaieran, estimatzen da trantsektuek 1×1 km-ko UTM gelaxketan estalitako azaleraren ehunekoa, kontuan hartuta espezie bakoitzaren detekzio-probabilitatea %95eko konfiantza-tartean. Adibidez, erregetxo

para aquella fracción de machos y hembras realmente observados. Aunque en principio podríamos asumir un ratio de sexos 1:1, en la gran mayoría de las especies una gran proporción de los contactos son machos (*e. g.*, porque lo que se observa a menudo son machos cantando). Si la proporción de ambos sexos observada (*i.e.*, aparente de machos, *pA*) difiere del 50%:50% real asumido para la población (*pR*=0,5 para machos), entonces la densidad se subestima, tanto más cuanto menor sea la proporción de hembras en la muestra. Por ejemplo, en el caso de la oropéndola el 100% de los individuos que se detectaron fueron machos. Siendo así, el valor de DEC permite estimar la densidad de machos, pero no de toda la población, de manera que si asumimos que hay tantos machos como hembras, la densidad se debería multiplicar por dos.

Mediante la resolución de ecuaciones matemáticas sencillas es posible calcular índices correctores de este problema. Generalmente, el valor de la proporción de machos real (*pR*) en la población se desconoce, aunque en un gran número de especies se sitúa en torno al 50%. Mediante simulaciones de Monte Carlo, generando numerosos escenarios de probabilidades de detección de machos y hembras bajo el escenario de un ratio de sexos 1:1, es posible obtener una ecuación que calcula un índice multiplicativo (*IM*) que corrige la proporción sesgada de machos (*pA*) en el trabajo de campo (*i.e.*, relación de sexos aparente)[58]:

$$IM = 2 - 4\times pA + 4\times pA^2$$

Si la proporción de machos y hembras detectados es idéntica (*pA* = 0,5), entonces *IM* = 1, lo que supone que, en la práctica, la corrección no es necesaria. Pero si el porcentaje de machos detectados es de un 67% (*pA* = 0,67), entonces *IM* es 1,116, lo que implica que hay que incrementar las densidades un 11,6%. El valor final de *IM* (*IMF*) se computó teniendo en cuenta la proporción de aves cuyo sexo no se identificó (*p*) y el índice previo *IM* mediante la fórmula:

$$IMF = p\times 1 + (1-p)\times IM$$

Como puede verse, en esta última ecuación se asume un ratio de sexos igual a 1:1 (esto es, un *pA* = 0,5) en la muestra de aves no sexadas.

El Apéndice 3 muestra para cada especie el reparto de contactos atendiendo a la cantidad de individuos censados de cada sexo, así como de aquellos cuyo sexo no se pudo determinar.

Superficie cubierta por los transectos lineales

Se efectuaron un total de 464 transectos lineales de 500 m de longitud, en idéntico número de celdas UTM de 1×1 km, dentro de 247 celdas de 5×5 km (promedio de 1,88 transectos/celda de 5×5 km). Éste ha sido el esfuerzo de muestreo aplicado a la superficie de 7534 km^2 abarcada en este Atlas (Euskadi: 7234 km^2; Treviño: 280 km^2; Villaverde: 20 km^2). En este contexto cabe preguntarse: ¿cuál ha sido el porcentaje de la superficie del territorio realmente cubierta por los 464 transectos?

Para abordar este aspecto, que informa del esfuerzo de muestreo asociado a la estima cuantitativa de la abundancia, contamos con los valores de DEC mostrados en el Apéndice 2. Al final del mismo se estima el porcentaje de la superficie cubierta por el transecto en celdas de 1×1 km, teniendo en cuenta la probabilidad de detección de cada especie en su

bekainzuria detektatzen zaila da (txikia delako, oso trinkoa delako okupatzen dituen habitaten landaretza eta haren kantua eta deia oso entzungarriak ez direlako); horren arabera, zentsu-distantzia efikaza 26 eta 36 m-en artekoa da, kontuan hartuta 464 trantsektuetan 440 ale detektatu direla. Trantsektu batek 26.000 m^2 (26 m × 500 m-ko luzera ×2 zerrenda) eta 36.000 m^2 artean estaliko luke. Trantsektu horren bidez adierazi nahi den 1 km^2-ko azaleraren %2,6 eta %3,6 artean dago balio hori. Lurralde osora hedatuz, Atlas honetan estali den eremuaren %0,16 eta %0,22 artekoa da hori. Espezie handiago baterako, eta, beraz ZDE handiagokoa, hala nola antzandobi arrunta (ZDE = 31-59 m), %3,1 eta %5,9 artekoa da 1×1 km-ko gelaxken eskalara era efikazean estalitako eremuaren ehunekoa, eta, aztergai den lurraldearen osotasunerako, %0,19 eta %0,36koa.

Adibide horiek nabarmentzen dute atlas honetarako itxuraz egin den ahalegin handia kontuan hartuta estalitako eremuaren azalera oso txikia dela. Laginketa kuantitatiboko programa baten bidez eremuen %25eko estaldura efikazak lortzeko, trantsektu-kopurua ×125 biderkatu beharko genukeen erregetxoaren kasurako (hau da, 58000 trantsektu zeharkatu), eta, antzandobiaren kasurako, ×86. Ahalegin horri, agerikoa denez, ez dago ekiterik, baita finantzaketa handia edukita ere. Ondorioz, ugaritasunaren estimazioa, bai lurralde osoko mailan (eskualdeko eskala), bai 5×5 km-ko UTM gelaxken eskalan, oso ziurgabetasun handiari lotua egongo da. Eta espezie bat zenbat eta urriagoa eta detektatzen zailagoa izan, orduan eta handiagoa izango da ziurgabetasun hori.

Erregistratutako espezie-kopurua, arakatze-denboraren arabera

Laginketa-ahaleginaren araberakoa da eskualde jakin batean behatutako espezieen kopurua: zenbat eta denbora gehiago erabili araketan, orduan eta espezie gehiago detektatzen dira. 5×5 km-ko UTM gelaxketako bakoitzean espezieen araketa egiteko erabili den denbora bost ordukoa izan da gehienez, soilik 1×1 km-ko lau gelaxkatan banatuak. Ahalegin hori, proportzionalki, txikia da araketa ornitologiko baterako. Horrela, 2 km/h-ko abiaduran oinez joanez eta arreta osoa hegaztiak behatzera bideratuz, 100 m-ko detekzio-distantzia maximoko espezie batentzat (kaskabeltz txikia, adibidez), eremuaren %8 arakatzen da (25 km^2-etatik, 2 km: 2 km/h × 5 h × 100 m × 2 zerrenda = 2 km^2). Balio hori %2ra jaisten da, kontuan hartzen badugu espezie horren 26 m inguruko ZDE izateak determinatzen duen detekzio-probabilitatea. Espezie detektagarriago baterako, adibidez, belabeltzerako, zeinak 240 m-ko detekzio-distantzia maximoa baitu, eremuaren %19 arakatzen da. Hau da, 5×5 km-ko gelaxkako eremuaren %50 modu efikazean estali nahi izan balitz, espezie ez oso nabari zein txikientzat araketa ornitologikoko orduen kopurua 25 aldiz biderkatzea beharrezkoa izango zatekeen (125 ordu ingurura iritsiz), eta, era berean, espezie handiago eta nabariagoetan (entzumenaren bidez zein ikusmenaren bidez), estaldura-maila hori lortzeko eskaini zaizkion orduak 5 aldiz biderkatu beharko ziratekeen (25 ordu ingurura iritsiz).

Landa-lanak ahalegin handia eskatzen duenez, ez zen egin zentsatutako gelaxka bakoitzean denboraren poderioz detektatutako espezie-kopuruaren zenbaketa metatua. Beraz, intervalo de confianza al 95%. En el reyezuelo listado, un ave pequeña que a menudo pasa desapercibida dada la densidad de la vegetación de los hábitats que ocupa y la poca audibilidad de su canto, la DEC varía entre 26 y 36 m considerando los 440 ejemplares detectados. Un transecto cubriría de 26000 m^2 (26 m × 500 m de longitud × 2 bandas) a 36000 m^2. Esta superficie supone el 2,6-3,6 % de la superficie de 1 km^2 donde se lleva a cabo el transecto. Referido a todo el territorio, esto supone el 0,16-0,22 % de la superficie cubierta en este Atlas. Para una especie más grande, con un mayor valor de DEC, como el alcaudón dorsirrojo (DEC = 31-59 m), el porcentaje de superficie cubierta eficazmente a escala de celdas de 1×1 km es 3,1-5,9% y, para el conjunto de Euskadi, 0,19-0,36 %.

Los anteriores ejemplos subrayan la escasa superficie del territorio cubierto por el aparentemente gran esfuerzo de trabajo llevado a cabo en la realización de un Atlas como el presente. Para haber obtenido coberturas eficaces del 25% del territorio en un programa de muestreo cuantitativo tendríamos que multiplicar el número de transectos ×125 para el reyezuelo (esto es, recorrer 58000 transectos) o ×86 para el alcaudón dorsirrojo. Tal esfuerzo es, obviamente, inabordable incluso si se contara con una gran cantidad de financiación. En consecuencia, la estima de la abundancia, tanto a nivel de todo el territorio (escala regional) como a escala de celdas UTM de 5×5 km, inevitablemente va a ir asociada a una incertidumbre muy alta. Tanto mayor cuanto menos detectable sea una especie y más escasa sea en la región.


Número de especies registradas en función del tiempo de prospección

La cantidad de especies observadas en una región determinada es función del esfuerzo de muestreo, de manera que cuanto más tiempo se invierte prospectando más especies se detectan. El tiempo dedicado a prospectar especies en cada una de las celdas UTM de 5×5 km ha sido, como máximo, de cinco horas, repartidas en solamente cuatro celdas de 1×1 km. Esa dedicación supone un proporcionalmente escaso esfuerzo de prospección ornitológica. Así, si se camina a 2 km/h prestando toda la atención a la observación de aves, para una especie con una distancia de detección máxima de unos 100 m (como el carbonero palustre) se prospecta el 8% de la superficie (2 km/h × 5 h × 100 m × 2 bandas = 2 km^2 sobre 25 km^2). Valor que disminuye al 2% si tenemos en cuenta la probabilidad de detección que determina una DEC de unos 26 m para esta especie. Para otra especie más detectable, con una distancia de detección máxima de unos 350 m y DEC de unos 240 m (como la corneja negra) se prospecta el 19% de la superficie. Esto es, si se hubiese deseado cubrir eficazmente el 50% de la superficie de la celda de 5×5 km, hubiese sido necesario multiplicar por ca. 25 el número de horas de prospección ornitológica para especies poco conspicuas y de pequeño tamaño (unas 125 h), mientras que en el caso de otras de mayor tamaño y conspicuas auditiva y visualmente, ese nivel de cobertura se lograría multiplicando por 5 las horas actualmente dedicadas (unas 25 h).

Debido al esfuerzo que implica el trabajo de campo, no se solicitó un recuento acumulado del número de especies

ezin da kalkulatu erregistratutako espezieen kopurua zenbateraino dagoen egonkortuta, gelaxka bakoitzean zentsua egin zen garaia kontuan hartuta. Hala ere, 500 m-ko trantsektu linealen laginak aukera ematen du detektatutako espezie berrien kopuruaren hazkundea baloratzeko, igarotako denboraren arabera. Fenomeno horri ekiteko, espezieen aberastasunaren kurba metatuak ditugu. Adibide grafiko bat emateko, zenbaki bidez, Euskadiko erdiko herena hautatu dugu, 4750000 eta 4770000 latitudeen artean, non 122 trantsektu egin baitira (61 ordu eskatu dituztenak). Gogoan izan trantsektu horiek birritan errepikatu zirela eta bakoitzari 15 minutu inguru eskaini zitzaizkiola, 2 km/h-ko abiaduran oinez joanez. Sektore horretako habitat erabilgarriak oso ongi ordezkatu ziren zentsuan; izan ere, estaldura-ehunekoak benetako erabilgarritasunaren antzekoak izan ziren (%90,2ko antzekotasuna bi banaketen artean). Hala, guztira, 122 trantsektu horietan 102 hegazti-espezie erregistratu ziren, eta, era berean, Euskadiko erdialdeko heren horretan arakatutako 5×5 km-ko 58 UTM gelaxketan, balio metatua 174 espeziekoa izan zen, 290 orduko laginketaren ondoren (kontuan hartuta ordubeteko bi zentsu kualitatiboak gehi 15 minutuko bi kuantitatiboak, bi errepi-kape-nekin). 5×5 km-ko gelaxketan, espezieen batezbestekoa 61,1 da (tartea: 40-84), 5 orduko araketa ornitologikoaren ondoren. Beraz, argi dago 1×1 km-ko lau UTM gelaren araketak ez duela zehatz-mehatz estimatzen 5×5 km-ko gelaxketan dauden espezie-aberastasuna. 122 trantsektu horiek aleatorizatzearen eta birlagintzearen bidez, kurba bat lortu zen, zeinak trantsektuen kopurua handitzen den heinean espezie-kopuruaren hazkundea islatzen baitu. Prozesu hori 250 aldiz egin zen, eta 8. irudiko kurba izan zen horren emaitza. Argi eta garbi ikus daiteke bost orduko araketarekin kurba ez dagoela oso egonkortuta; izan ere, 45-68ko espezie inguru aurkitzea espero da %95eko probabilitatearekin. Goian aipatutako latitude-hereneko 5×5 km-ko UTM gelaxketan erregistratutako espezieen batezbestekoa lortzeko (61,1 espezie) 6,25 h beharko lirateke (5etik 6,5 h arteko aldearen zergatia da Ornitho Euskadi atariak emandako espezieak gehitu direla). Arakatze-denbora seikoiztuz gero (30 ordura arte, beraz), horrela 1×1 km-ko 24 gelaxka betetzeko, 68-85 espezie detektatuko lirateke, baina kurba oraindik egonkortu gabe egongo litzateke. Beraz, 5×5 km-ko gelaxka bakoitzean zentsu estandarizatuen araberako araketetan 10 ordu baino gutxiago erabili izanaren ondorioz, banaketa-eremua azpiestimatu egin da, nagusiki, detektagarritasun baxuko espezierik txikienetan (tokiko ugaritasun txikiko eta gelaxken barruko banaketa mugatuko egoeretan zeudenak). Hau da, 5×5 km-ko gelaxkei eskainitako bost orduek ez dute aukerarik ematen eremu erabilgarri guztia zehatz-mehatz zentsatzeko. Laginketarako muga horrek honako hauek modelizatzeko beharra justifikatzen du: (1) presentzia-probabilitatea (ikus gorago), (2) eskualde osoko ugaritasun-maila eta (3) ale-kopurua 5×5 km-ko gelaxka-eskalan; guztiak, laginketa-lekuetan lortutako datuetatik abiatuta (datu espazialki esplizituak, kontuan hartuta kokapen geografikoa, altitudea eta habitaten estaldura). Horrela, hegaztiak behatuz estali ezin izan zen eremu guztira inferitu ahal izango da emaitza.

detectadas con el paso del tiempo en cada una de las celdas censadas. Con lo cual, no es factible estimar cómo de estabilizado está el número de especies registradas en relación al tiempo de censo por celda. No obstante, la muestra de los transectos lineales de 500 m brinda la posibilidad de valorar el aumento de nuevas especies detectadas en función del tiempo transcurrido. Este fenómeno se puede abordar mediante curvas acumuladas de riqueza de especies. Para ejemplificarlo gráfica y numéricamente se ha elegido el tercio central de Euskadi, entre las latitudes 4750000 y 4770000, en el que se han realizado 122 transectos que demandaron 61 h. Recuérdese que dichos transectos fueron repetidos en dos ocasiones, dedicando en cada uno de ellos ca. 15 minutos, caminando a unos 2 km/h. La representación censal de hábitats disponibles en ese sector fue muy buena, ya que los porcentajes de cobertura fueron similares a la disponibilidad real (90,2% de parecido entre ambas distribuciones). Así, en total se registraron 102 especies de aves en esos 122 transectos, mientras que el acumulado en las 58 celdas UTM de 5×5 km prospectadas en ese tercio central de Euskadi ascendió a 174 especies, tras 290 h de muestreo (teniendo en cuenta los dos censos cualitativos de 1 h cada uno más los dos cuantitativos de 15 min cada uno, con dos repeticiones). El promedio de especies por celda de 5×5 km es 61,1 (rango: 40–84), tras 5 h de prospección ornitológica. Es por tanto obvio que la prospección de cuatro celdas UTM de 1×1 km no estima exhaustivamente la riqueza de especies en celdas de 5×5 km. Mediante aleatorización y re-muestreo de esos 122 transectos se obtuvo una curva que refleja el aumento en el número de especies conforme se incrementa el número de transectos. Este proceso se repitió 250 veces, dando finalmente lugar a la curva de la Fig. 8. Puede constatarse claramente que la curva está muy poco estabilizada con cinco horas de prospección, donde es esperable encontrar, con el 95% de probabilidad, un rango de especies de 45-68. Para alcanzar el promedio de especies registrado en celdas UTM de 5×5 km en el tercio latitudinal arriba considerado (61,1 especies) se necesitarían 6,5 h (la diferencia de 5 a 6,5 h se debe a la adición de especies aportada por el portal Ornitho Euskadi). Si se sextuplica el tiempo de prospección hasta 30 horas, cubriendo 24 celdas de 1×1 km, se detectarían de 68-85 especies sin que aún la curva se estabilizara. Por tanto, haber invertido <10 h de prospección de censos estandarizados en cada una de las celdas de 5×5 km ha conducido a subestimar el área de distribución de, principalmente, las especies más pequeñas con una detectabilidad baja y en situaciones de baja abundancia local y distribución restringida dentro de la celda. Esto es, las cinco horas que se invierten en cada una de las celdas de 5×5 km no permiten censar pormenorizadamente toda el área disponible. Esta limitación de muestreo justifica la necesidad de modelizar (1) la probabilidad de presencia (ver más arriba), (2) el nivel de abundancia en toda la región y (3) los efectivos de población a escala de celdas de 5×5 km, a partir de los datos obtenidos en los lugares de muestreo (espacialmente explícitos, considerando su posición geográfica, altitud y cobertura de hábitats), para así poder inferir en toda la superficie que no se pudo cubrir registrando aves.



8. ird. Hegazti-espezieen aberastasunaren kurba metatua, araketa ornitologikoko ordu-kopuruaren arabera, bi errepikapenetan metatutako 500 m-ko luzerako eta 30 minutuko iraupeneko 122 trantsektuen lagina oinarri hartuta. Kurba lodiak erregresio-ereduaren batezbestekoa adierazten du, eta kurba etenek, berriz, %95eko konfiantza-tartea. Gezi bertikalak zentsuko bost orduak egin diren uneko erregresio-kurba mozten du; gezi horizontalak 122 trantsektuetan erregistratutako espezieen guztizko kopurua adierazten du (102 espezie 61 ordutan bi aldiz zeharkatutako 61 kilometrotan).

Fig. 8. Curva acumulada de riqueza de especies de aves según el número de horas de prospección ornitológica a partir de la muestra de 122 transectos de 500 m de longitud y 30 minutos de duración acumulados en dos repeticiones en el tercio central de Euskadi. La curva gruesa indica la media del modelo de regresión, mientras que las curvas discontinuas denotan el intervalo de confianza al 95%. La flecha vertical corta la curva de regresión cuando se han efectuado las cinco horas de censo; la flecha horizontal indica el número total de especies registrado en los 122 transectos (102 especies en 61 km recorridos dos veces a lo largo de 61 horas).

Ugaritasunaren aldaketa espazialaren modelizazioa


Espezieen ingurumen-lehentasunak faktore hauen araberakoak dira: aldagai klimatikoei eta produktiboei, paisaiaren egiturari eta landarediaren ezaugarriei espezieek ematen dieten erantzuna, bai eta beste espezie batzuekiko interakzioa ere[59-62]. Aldagai argigarri edo iragarle horiek kontuan hartuta, espezieen ugaritasuna modelizatu daiteke (9. ird.). Abstrakzio matematiko horiek ugaritasunaren aldakuntza-eredu espazialak definitzen dituzte. Haietatik abiatuta, arakatu gabeko lekuetan zer gertatuko litzatekeen iragar daiteke.

Ausazko erregresio-basoak (*Regression Random Forests*, RRF)[63-64] erabili dira bi hauen arteko erlazioa modelizatzeko: 500 metroko luzerako trantsektuetara egindako bi joanalditan hautemandako espezie bakoitzeko banako-kopurua eta 17 ingurumen-aldagai. RRF *datu-meatzaritza* bidezko metodo bat da. Erregresio-zuhaitz ugari eraikitzen ditu, entrenamenduko datu-multzo askotarikoekin, laginunitateen (hau da, 500 m-ko luzerako trantsektuak) ordezkapen bidezko laginketa eginez, eta aldagai iragarleen azpimultzo baten ausazko aukeraketa eginez (aldagai iragarleen heren bat zuhaitzaren *adarkatze* bakoitzean). Prozedura horri esker, eredua ez da gainegokitzen aztertu beharreko datuetara, iragarpenen bariantza murrizten du eta erregresio-zuhaitzen errendimendua hobetu, haien arteko korrelaziorik gabe eraikitzen baititu. Era horretan, iragarpen sendoak lortzen ditu, alborapen eta bariantza

Modelización de la variación espacial de la abundancia

Las preferencias ambientales de las especies son determinadas por su respuesta a variables climáticas, productivas, paisajísticas, características de la vegetación o la existencia de relaciones interespecíficas[59,62]. Mediante la consideración de esas variables explicativas, o predictoras, es posible desarrollar modelos para estimar la abundancia de especies (Fig. 9).

En este Atlas se han utilizado los bosques aleatorios de regresión (*Regression Random Forests*, RRF)[63,64] para determinar la relación matemática entre el número de individuos detectados en las dos visitas a transectos de 500 m de longitud y 17 variables ambientales. RRF es un método de 'minería de datos' que construye múltiples árboles de regresión con diferentes conjuntos de datos de entrenamiento, mediante el muestreo con reemplazo de las unidades muestrales (*i.e.*, transectos de 500 m de longitud) y la elección aleatoria de un subconjunto de variables predictoras (una tercera parte de ellas en cada 'ramificación del árbol'). Este procedimiento evita el sobreajuste del modelo a los datos sujetos a análisis, reduce la varianza de las predicciones y mejora el rendimiento de los árboles de regresión al descorrelacionarlos, generando así predicciones robustas con bajo sesgo y baja varianza. La selección aleatoria de predictores en cada división de los árboles de regresión que componen el "bosque" minimiza los problemas



9. ird. Ugaritasun-estimazioak lortzeko emandako pausoen eskema kontzeptuala.

Fig. 9. Esquema conceptual que resume los pasos para obtener estimas de abundancia.

baxukoak. *Basoa* osatzen duten erregresio-zuhaitzen atal bakoitzeko iragarleak ausaz hautatzeak minimizatu egiten ditu aldagai iragarleen arteko multikolinealtasunarekin lotutako arazoak. Alderdi hori oso kezkagarria da eredu orokortu linealetan; izan ere, bariantzaren puzte-balio handiak (VIF, *variance inflaction factor*) lortu ohi dira, edo, bestela, ereduak murrizteko prozedura luzeak eskatzen ditu urratsen bidezko prozeduren bidez (adibidez, *backward* edo *forward*). RRF metodoa, halaber, iragarleen eta erantzun-aldagaiaren arteko erlazio ez-linealez arduratzen da (hau da, erlazioak ez ditu linealtzat lehenesten, nahiz eta horrelakorik balego txertatzeko gai izango litzatekeen), eta, aldi berean, iragarleen arteko interakziorik garrantzitsuenak identifikatzen ditu. Hiru alderdi horiek (multikolinealtasuna murriztea, erlazio ez-linealak estimatzea eta aldagai iragarleen arteko interakzioak kalkulatzea) garrantzitsuak dira, errealistak direlako (nahiz eta normalean ez diren kontuan hartzen modelizazioetan). Horrela, oso gertagaitza da hegaztiek ingurumen-aldagaiei emandako erantzunen arteko asko linealak izatea. Gainera, egoera batzuetan, espezie baten tokiko ugaritasunaren aldakuntza ez da aldagai iragarle bakoitzaren eragin esklusiboen baturaren emaitza, baizik eta haien arteko interakzioaren ondorioa, eta, beraz, erregresio-gainazalen konbinazioak identifika daitezke, zeinetan aldagai horietan gertatzen diren aldakuntza-tarte jakin batzuek gehiago esplikatzen baitute aztertzen den espeziearen ugaritasunaren aldakuntza. Beraz, hegaztien banaketa- eta ugaritasun-ereduekiko hurbilketa hobetu dezakegu, tresna estatistiko ez-linealak erabiliz, zeinek ingurumen-faktoreen arteko interakzio esanguratsuak estimatzen baitituzte.

Espezie bakoitzerako, egindako 464 trantsektuetan RRF ereduak eraiki ziren, eta 1.000 erregresio-zuhaitz erabili ziren. Batez beste, trantsektu horietako bakoitza ez zen kontuan hartu zuhaitzen %36,7an (hau da, OOB *–Out Of Bag–* lagina, asintotikoki estimatua $[(N\text{-}1)/N]^N$ formularen bidez, non N lagin-unitateen kopurua baita). 1.000 erregresio-zuhaitzetako bakoitzean ausaz hartu eta analizatu gabeko UTM gelaxken lagin horiek OOB iragarpen-errorea estimatzeko erabili ziren, bai eta espezie bakoitzaren ugaritasunaren aldakuntza espazialaren RRF ereduko aldagai iragarleen garrantzia ere. OOB errore-tasa orokorra ereduaren iragarpen-potentziala neurtzeko erabili zen. Hau da, RRF eredua eraikitzen erabili gabeko UTM gelaxketan esplikatzen den bariantzaren ehunekoa. 1.000 erregresio-zuhaitzetako bakoitzaren *hazkundearen* kontrol-parametroak honako hauek izan ziren: gehienez ere 100 *hosto* zuhaitz bakoitzeko (hau da, iragarritako balio desberdinetako bakoitza), eta, gutxienez, hiru trantsektu zuhaitzaren hosto bakoitzeko (tokiko minimo eta maximoetara gehiegi egokitzea saihesteko).

Kontuan hartutako aldagai iragarleak honako hauek izan ziren:

(1) Geografikoak: trantsektua zegoen 1×1 km-ko gelaxkako barizentroaren latitudea eta longitudea.

(2) Orografikoak: 1×1 km-ko gelaxkaren batez besteko altitudea eta altitude-tartea.

(3) Habitaten tipologia (CLC 2018): 1×1 km-ko gelaxketan honako habitat hauez estalitako eremuaren ehunekoak: baso hostoerorkorrak (BCA), koniferoak (BCO), mistoak (BMI) edo esklerofiloak (BES); mendi garaia (MON, baso

relacionados con la multicolinealidad entre las variables predictoras, aspecto de gran preocupación en modelos generalizados lineales debido a los elevados valores de inflado de la varianza (VIF, *variance inflation factor*) que se suelen obtener o demandan prolijos procedimientos de reducción de modelos mediante procedimientos por pasos (*e. g., backward o forward*). RRF también se ocupa de las relaciones no lineales entre los predictores y la variable respuesta (*i.e.*, no asume relaciones lineales, aunque es capaz de estimarlas si existiesen), al tiempo que identifica las interacciones más relevantes entre los predictores. Estos tres aspectos (reducir la multicolinealidad, estimar relaciones no lineales y calcular las interacciones entre variables predictoras) son relevantes por ser realistas, aunque generalmente suelen ser ignorados en los ejercicios de modelización. Así, es altamente improbable que muchas respuestas de las aves a las variables ambientales sean lineales. Además, hay situaciones en las que la variación en la abundancia local de una especie no es el resultado aditivo de los efectos exclusivos de cada una de las variables predictoras, sino que es consecuencia de la interacción entre ellas, de manera que se identifican combinaciones de superficies de regresión, en donde determinados rangos de variación acotados en esas variables explican más variación de la abundancia de la especie sometida a análisis. Por tanto, podemos mejorar nuestra aproximación a los patrones de distribución y abundancia de aves mediante el empleo de herramientas estadísticas no lineales que estimen las interacciones relevantes entre factores ambientales.

Para cada especie, en los 464 transectos realizados, se construyeron modelos RRF usando 1000 árboles de regresión. En promedio, cada uno de los transectos no se consideró en el 36,7% de los árboles (es decir, la muestra OOB *–Out Of Bag–*, estimada asintóticamente como $[(N\text{-}1)/N]^N$, donde N es el número de unidades muestrales). Esas muestras de celdas UTM extraídas al azar y no analizadas en cada uno de los 1000 árboles de regresión, se utilizaron para estimar el error de predicción OOB y la importancia de las variables predictoras en el modelo RRF de la variación espacial de la abundancia de cada especie. La tasa de error OOB general se utilizó para medir el potencial predictivo del modelo. Es decir, el porcentaje de varianza explicado en aquellas celdas UTM no utilizadas en la construcción del modelo RRF. Los parámetros de control del "crecimiento" de cada uno de los 1000 árboles de regresión fueron: máximo de 100 "hojas" por árbol (*i.e.*, valores diferentes predichos) y un mínimo de tres transectos por "hoja" del árbol (para evitar el ajuste excesivo a mínimos y máximos locales).

Las variables predictoras consideradas fueron las siguientes:

(1) Geográficas: latitud y longitud del baricentro de la celda de 1×1 km en la que se incluía el transecto.

(2) Orográficas: altitud media y rango altitudinal de la celda de 1×1 km.

(3) Tipología de hábitats (CLC 2018): porcentajes de superficie de la celda de 1×1 km cubiertos por bosques caducifolios (BCA), de coníferas (BCO), mixtos (BMI) o esclerófilos (BES); monte alto (MON, compuesto por lo que serían las etapas de sustitución de un bosque, con

bat ordezteko etapa modukoek osatua, sastrakadiaz goragoko landarediaren garapen-maila duena, baina baso edo landaketa heldu batena baino garapen txikiagokoa, zuhaiztiak ez baitu 4 m-ko altuera gainditzen); sastrakadiak (MAT, larreak eta belardiak (PAS), larre eta sastraka dezente dituzten eremu garaietako harkaitz alpinizatuak (ALP; 3. taulako ROQ eta PAS kodeak biltzen ditu); laborantza-eremuak (AGR), lurzoru urbano trinkoak (URD), berdeguneak dituzten lurzoru urbanoak (URV); hezeguneak (HUM) eta ur-masa libreak (EMB).

un nivel de desarrollo de la vegetación superior al matorral, pero inferior a un bosque o plantación madura, en el cual el arbolado no supera una altura de 4 m); matorrales (MAT), herbazales (pastizales y praderas, PAS), roquedos con cierta cantidad de pastizal y matorral en zonas altas, de carácter alpinizado (ALP; agrupa los hábitats con código ROQ y PAS de la Tabla 3), espacios agrarios (AGR), suelo urbano denso (URD) y urbano con espacios verdes (URV), humedales (HUM) y masas de aguas libres (EMB).

Kodea Código	Habitata Hábitat	EST_{lagina} $COB_{muestra}$	$EST_{eskualdea}$ $COB_{región}$	Pisua Peso
BCA	Baso hostoerorkorrak / Bosques de caducifolios	23,80	24,62	1,03
BCO	Baso koniferoak / Bosques de coníferas	16,60	22,46	1,35
BMI	Baso mistoak / Bosques mixtos	4,02	4,23	1,05
BES	Baso esklerofiloak / Bosques esclerófilos	2,53	1,93	0,76
MON	Mendi garaia / Monte alto	3,17	4,26	1,34
MAT	Sastrakadiak / Matorrales	4,01	3,16	0,79
PAS	Larreak / Pastizales	3,95	2,76	0,70
PMO	Mendi-larreak / Pastizales montanos	0,81	0,82	1,02
ROQ	Harkaitzak / Roquedos	0,11	0,10	0,86
AGR	Laborantza-eremuak / Medios agrarios	32,77	28,14	0,86
HUM	Hezeguneak / Humedales	0,13	0,11	0,87
EMB	Urtegiak, urmaelak / Embalses, lagunas	0,82	1,57	1,92
URV	Berdeguneak dituen urbanoa / Urbano ajardinado	2,97	1,75	0,59
URD	Urbano trinkoa / Urbano denso	4,06	3,28	0,81

3. taula: Hauen estaldura (eremuaren ehunekoa): populazio-tamainak kalkulatzeko trantsektu linealak egin ziren 1×1 km-ko 464 gelaxkako laginean behatutako 14 habitat-kategoria nagusiena (EST_{lagina}) eta Euskadi osokoa ($EST_{eskualdea}$).

Tabla 3: Cobertura (porcentaje de superficie) de las 14 categorías de hábitats principales observados en la muestra de 464 celdas de 1×1 km en las que se hicieron transectos lineales para estimar tamaños poblacionales ($COB_{muestra}$) y para el conjunto de Euskadi ($COB_{región}$).

Bi aldagai geografikoak sartzeak ahalbidetu du animalien banaketa modelizatzeko garrantzitsuak diren bi alderdi jorratzea. Lehenik eta behin, autokorrelazio espaziala kontrolatzea trantsektuetan egiten diren hegazti-zenbaketen balioetan, haien hurbiltasun geografikoa kontuan hartuta[65]; mota honetako lan askotan alde batera utzi da alderdi hori. Eta, bigarrenik, posizio geografikoaren osagarri diren alderdiak sartzea –aldagai jakinekin kuantifikatu gabekoak–. Adibidez, prezipitazioa eta tenperatura, idortasuna, lehen mailako produktibitatea, aztertutako eskualdetik kanpo negua igarotzen duten espezieen fluxuak dakartzaten migrazio-ibilbide nagusiekiko distantzia[66].

Lagin-unitateak erabiltzen ez direnean (R^2 OOB) ereduak azaldutako bariantza handia bada, orduan RRF eredu horrek iragapen-ahalmen handia du. Hau da, ereduaren sinesgarritasun-maila eta hortik ondorioztatzen den informazioaren neurri bat eman daiteke. RRF ereduak 5×5 km-ko UTM laukietan dauden espezieen ugaritasuna iragartzeko diseinatu zirenez (lauki horietako 1×1 km-ko bi gelaxkatan 500 m-ko luzerako trantsektu bana eginez), modelizatutako 464 trantsektuak 20 taldetan multzokatu ziren, ereduaren iragarpen-ahalmena neurtzeko. Trantsektuen multzokatze hori egiteko, kontuan hartu ziren kokaleku geografikoa

La inclusión de las dos variables geográficas ha permitido abordar dos aspectos importantes en la modelización de la distribución animal. En primer lugar, controlar la auto-correlación espacial en los valores de conteos de aves en los transectos atendiendo a su proximidad geográfica[65], aspecto obviado en bastantes trabajos de esta naturaleza. Y en segundo lugar, introducir aspectos subrogados a la posición geográfica que no han sido cuantificados con variables concretas. Por ejemplo, precipitación y temperatura, aridez, productividad primaria, distancia a las principales rutas migratorias que traen flujos de especies que invernan fuera de la región de estudio[66].

Si la varianza explicada por el modelo es alta cuando las unidades muestrales no son utilizadas (R^2 OOB), entonces ese modelo RRF tiene un alto poder predictivo. Esto es, se puede proporcionar una medida de cuán creíble es el modelo y la información que de él se derive. Como los modelos RRF fueron diseñados para predecir la abundancia de las especies en cuadrículas UTM de 5×5 km (equivalente a un transecto de 500 m de longitud por cada una de las dos celdas de 1×1 km que incluyen), los 464 transectos modelizados fueron agrupados en 20 grupos diferentes para estimar su poder predictivo. Esta agrupación de los transectos se realizó

(latitudea, longitudea eta altitudea) eta habitataren ezaugarriak. 4. taulak ematen ditu modelizatutako 89 espezieetako bakoitzerako iragarpen-ahalmenaren balioak (OOBko R^2), baita 464 trantsektuetan benetan behatutako banakoen kopurua eta RRF ereduek iragarritako guztizko kopurua ere. Oro har, RRF ereduek egokitze-maila handia sortzen dute behatutako eta iragarritako balioen artean: %69ko R^2, batez beste, eta gainestimatzeko edo azpiestimatzeko joera argirik gabe (%2ko batez besteko hazkundea, baina beti %20ko murrizketaren edo %15eko hazkundearen artean). Espezie batzuetan, OOBko R^2 balioak baxuak izan ziren (hau da, bariantzaren %25 baino gutxiago), detekzio zaileko oso espezie urriak izatearen ondorioz (adibidez, etze-txinboa edo euli-txori grisa), edo, laburra denez trantsektuak egiteko denbora, ziurgabetasunez estimatzen diren tokiko multzoetan detektatzen direlako (adibidez, enara azpizuria eta haitz-enara). Baina hegazti-mota askorentzat OOBko R^2 balioak oso altuak izan ziren (47 espezietan, > %75). Hautemandako hegazti-kopuruaren (*N* erreala 4. taulan) eta iragarritakoaren (OOBko *N* iragarriak) arteko zatidurak erabili dira RRF ereduak kalibratzeko, eta, horrela, haren iragarpenenek gainestimatzea edo azpiestimatzea saihestu da.

RRF ereduak erabili ziren Euskadiko 1×1 km-ko gelaxketan bi aldiz egindako trantsektu bakoitzean banakoen batez besteko kopurua iragartzeko. Iragarritako banakoen kopurua bitan zatitu zen, eta, horrela, trantsektu bakoitzeko batez besteko hegazti-kopurua lortu zen. Kopuru horri zentsu-distantzia eraginkorrak (ZDE) aplikatu zitzaizkion, espezie bakoitzak gelaxka bakoitzean zuen dentsitatea kalkulatzeko: 1×1 km, hegazti/km^2-tan adierazia. Estimazio horiek ar eta emeen detekzio diferentzialerako probabilitatearen mende daudenez, horren ondoren zuzendu egin ziren koefiziente biderkatzaileak (IBA) aplikatuz. Koefiziente horiek kontuan hartzen dituzte lagineko arren ehuneko alboratua eta ornitologoek sexua bereizi gabe behatutako hegaztien proportzioa. Amaitzeko, 5×5 km-ko UTM bako-itza osatzen zuten 1×1 km-ko gelaxkak bildu ziren, banakoen kopurua kalkulatzeko.

5×5 km-ko UTM bloke bakoitzean iragarritako ugaritasuna berrikusi egin zen, hiru informazio-iturriren arabera: (1) benetan erregistratutako presentzia, (2) 5×5 km-ko UTM bakoitzeko presentziaren probabilitatea eta (3) espezie bakoitzarekin lotuagoak dauden aldagai giltzarriak (adibidez, 750 metrotik gorako altitudea mendi-tuntunarentzat, edo latitudearekiko alderantzizko erlazioa kutturlio arruntean, bai eta haien presentzia minimorako atalase-balioak ere). Halaber, honako hau gaineratu zen, onargarritzat jota: RRF ereduek bi banako (edo bikote ugaltzaile bat) baino gutxiago iragartzen zituzten kasuetan, 5×5 km-ko UTM blokean 0 banako zenbatu ziren; irizpide hori banako batera murriztu zen hegaldatze-eremu zabala duten tamaina handiko espezieentzat, hala nola zapelatza, okil beltza eta erroia.

Iragarritako banakoen balio txikienetarako (hau da, <25 hegazti/25 km^2) zein Euskadiren mugakide diren UTM gelaxkekin lotutakoetarako, espeziea detektatu bazen, iragarritako banako-kopurua mantendu egin zen (gogora dezagun 5×5 km-ko UTM bakoitzeko 1×1 km-ko lau gelaxka arakatu direla eta bost bat ordu erabili direla, eta,

atendiendo a su posición geográfica (latitud, longitud y altitud) y características del hábitat. La Tabla 4 proporciona los valores del poder predictivo (R^2 de la muestra OOB) para cada una de las 89 especies modelizadas, así como el número de individuos realmente observados en los 464 transectos y la cantidad total predicha por los modelos RRF. Globalmente, los modelos RRF producen un alto nivel de ajuste entre valores observados y predichos, con un promedio de R^2 del 69%, no tendiendo claramente a la sobre o subestima (promedio de incremento de un 2%, pero dentro del rango de disminución del 20% o incremento del 15%). En algunas especies los valores de R^2 de OOB fueron bajos (*e. g.*, <25% de la varianza) como consecuencia de ser especies muy escasas de difícil detección (*e. g.*, curruca rabilarga o papamoscas gris) o que ocurren en concentraciones locales que son estimadas con incertidumbre durante el poco tiempo que dura la realización de los transectos (*e. g.*, avión común o avión roquero). Pero para una gran variedad de aves los valores de R^2 OOB fueron muy altos (> 75% en 47 especies). Los cocientes entre el número de aves detectadas (*N* real en la Tabla 4) y el número de ellas predicho (*N* predichos OOB) se han utilizado para calibrar los modelos RRF, evitando así la sobreestima o subestima de sus predicciones.

Los modelos RRF fueron utilizados para predecir el número medio de individuos por transecto realizado dos veces en cada una de las celdas de 1×1 km de Euskadi. El número de individuos predicho se dividió entre dos para así obtener el número medio de aves por transecto. A esa cantidad se le aplicaron las distancias eficaces de censo (DEC) para estimar las densidades de cada especie en cada celda de 1×1 km, expresada en aves/km^2. Como esas estimas están sometidas a la probabilidad de detección diferencial de machos y hembras, finalmente fueron corregidas aplicando los coeficientes multiplicativos (IMF) que tienen en cuenta el porcentaje sesgado de machos en la muestra y la proporción de aves observadas que no fueron sexadas por los ornitólogos. Para concluir, se reunieron las celdas de 1×1 km que componían cada UTM de 5×5 km con el fin de calcular el número de individuos.

La abundancia predicha en cada bloque UTM de 5×5 km se revisó considerando tres fuentes de información: (1) presencia realmente registrada, (2) probabilidad de presencia en cada UTM de 5×5 km y (3) variables clave más asociadas con cada especie (*e. g.*, altitud por encima de 750 m para el acentor alpino, o relación inversa con la latitud en la cogujada común, con los valores umbrales que hacen mínima la ocurrencia). Además, se añadió una asunción plausible: se computaron valores de 0 individuos cuando en el bloque UTM de 5×5 km los modelos RRF predecían menos de dos individuos (o una pareja reproductora); este criterio fue reducido a un individuo para especies de gran talla y amplias áreas de campeo, como el busardo ratonero, el picamaderos negro o el cuervo grande.

Para los valores más bajos de individuos predichos (*i.e.*, <25 aves/25 km^2), o asociados a celdas UTM limítrofes de Euskadi, si la especie fue detectada se mantuvo el número de individuos predicho (recuérdese que se han prospectado cuatro celdas de 1×1 km invirtiendo unas cinco horas por UTM de 5×5 km y se han añadido las citas de Ornitho

Espezieak / Especies	$N_{erreala}$ / N_{real}	$N_{iragarriak}$ / $N_{predichos}$	R^2 OOB
Aegithalos caudatus	292	317	0,26
Alauda arvensis	178	175	0,75
Alectoris rufa	72	79	0,97
Anthus campestris	18	19	0,82
Anthus spinoletta	48	45	0,94
Anthus trivialis	229	244	0,36
Apus apus	1428	1498	0,42
Buteo buteo	101	106	0,70
Calandrella brachydactyla	40	34	0,95
Carduelis carduelis	696	715	0,66
Certhia brachydactyla	334	343	0,71
Cettia cetti	115	112	0,76
Chloris chloris	465	472	0,90
Cisticola juncidis	52	53	0,57
Columba livia	520	523	0,32
Columba palumbus	498	523	0,93
Corvus corax	40	43	0,17
Corvus corone	848	873	0,78
Coturnix coturnix	144	145	0,83
Cuculus canorus	434	444	0,90
Curruca iberiae	22	22	0,73
Curruca communis	26	27	0,46
Curruca melanocephala	66	71	0,88
Curruca undata	23	25	0,17
Cyanistes caeruleus	483	500	0,69
Delichon urbicum	237	245	0,03
Dendrocopos major	198	207	0,64
Dendrocoptes medius	16	15	0,71
Dryocopus martius	18	18	0,36
Emberiza calandra	377	389	0,91
Emberiza cia	12	13	0,86
Emberiza cirlus	334	341	0,97
Emberiza citrinella	54	58	0,44
Erithacus rubecula	1566	1577	0,55
Falco tinnunculus	32	34	0,73
Fringilla coelebs	1994	2014	0,87
Galerida cristata	28	27	0,90
Galerida theklae	8	9	0,95
Garrulus glandarius	207	214	0,79
Hippolais polyglotta	326	329	0,94
Hirundo rustica	323	356	0,79
Jynx torquilla	10	10	0,30
Lanius collurio	91	99	0,58
En 1982 se citó como reproductor probable en Uribarri-Ganboa, sin descartar que, dada su escasez, pudiera ocupar también otras zonas húmedas [APV1]. Posteriormente, a principios de la década de 1990 se confirmó su reproducción en Salburua, al observarse una pareja con dos pollos (G. Belamendia, com. per.). En 1996, la especie también se citó, esta vez como posible reproductora, en la vega de Astrabudua (Erandio, Bizkaia)[600]. Desde entonces no ha habido nuevas observaciones de aves reproductoras, aunque sí varias observaciones de aves en paso incluso hasta finales de mayo [Ornitho], lo que sugiere que en el pasado pudieron darse como citas de aves reproductoras posibles o probables lo que en realidad eran ejemplares en paso, habida cuenta además de que los individuos sedimentados pueden llegar a cantar y permanecer en un mismo humedal durante largo tiempo. En este contexto, la reproducción de esta polluela en Euskadi debe tratarse como ocasional (o, incluso, excepcional).



Kurlinta handia
Zarapito real

Numenius arquata

Limikola handia, zeinaren ugalketa-eremua Europa mendebaldetik ia Txinaren kostalderaino hedatzen baita [HBW]. Espainian bada multzo ugaltzaile minimo bat Galiziaren barnealdean (Lugon) [AES3]. 2007-2008 biurtekoan, multzo hori soilik 3 bikotek osatzen zuten, eta, gaur egun, kopuru horretan jarraitzen du [AES3]. Iraganean, espezie hori Galiziako beste alderdi batzuetan ere ugaldu zen (Ourenseren barnealdean eta A Illa de Arousan[601]. Lehenago, kurlinta handia Asturiasen ere ugaldu izan zen, eta saiakera egin izan zuen Guadalquivirreko paduretan eta Camino de Villafrancan (Ciudad Real)[601].

Euskadiren kasuan, konfirmatutako ugalketa-kasu bakarra dokumentatu da; hain zuzen, 1982an Lertutxeko urtegian (Bizkaian) errun zuen bikote batena[600]. Ordutik, ez da gisa horretako aipamen gehiagorik izan; beraz, espeziea lurraldean ugaltzea salbuespenezkotzat jo behar da.

Limícola de gran tamaño cuya área de cría se extiende desde el oeste de Europa hasta prácticamente la costa de China [HBW]. En España existe un núcleo reproductor mínimo localizado en el interior de Galicia (Lugo) [AES3]. En el bienio 2007-2008 este núcleo estaba conformado por tan solo 3 ps., cifra que se mantiene en la actualidad [AES3]. En el pasado la especie también crió en otras zonas de Galicia (interior de Orense y la isla de Arousa)[601]. Anteriormente el zarapito real se reprodujo, también, en Asturias y lo intento en las marismas del Guadalquivir y el Camino de Villafranca (Ciudad Real)[601].

En el caso de Euskadi se documenta un solo caso de reproducción, confirmada, de una pareja que llegó a hacer puesta en 1982 en el embalse de Lertutxe (Bizkaia)[600]. Desde entonces no ha habido nuevas citas de esta naturaleza, por lo que la reproducción de la especie en el territorio debe considerarse como excepcional.



Istingor arrunta
Agachadiza común

Gallinago gallinago

Ugalketako aipamen bakarra 1984ko uztailekoa da. Behin eta berriz, bikotetzat hartu ziren bi ale behatu ziren Gorbeiaren inguruko mendietako belardi istildu batzuetan [APV1]. Hamarkada berean, Elosegik ugalketa-aipamen bat konfirmatu zuen antzeko habitat batean, Lekunberrin (Nafarroa)[602]. Orduz geroztik, ez dira behatu ugaltzaile posible moduan har litezkeen hegazti gehiago; beraz, espeziea lurraldean ugaldu bada, salbuespena izan da.

Única cita de reproducción, no confirmada, en julio de 1984, cuando se observan, reiteradamente, dos ejemplares que se consideran pareja en unos prados encharcados en las estribaciones del Gorbeia [APV1]. En aquella misma década Elósegui confirmó cita de cría en un hábitat similar en Lekunberri (Navarra)[602]. Desde entonces no ha habido nuevas observaciones de aves que pudieran ser consideradas como posibles reproductores, por lo que la reproducción de la especie en el territorio, de haber sido el caso, sería excepcional.



Kuliska iluna
Andarríos grande
Tringa ochropus

Limikola horren banaketa-eremua, ugaltze-garaian, Europa ekialdetik Siberiaraino zabaltzen da [HBW]. Europa hegoaldean, Bulgariaraino eta Kaukasoraino hedatzen da [AEU2]. Iberiar penintsula paseko eremu garrantzitsua da negua Afrikan igarotzen duten mendebaldeko populazioentzat. Aldi berean, horien zati bat penintsulan bertan geratzen da negua igarotzera[71].

Euskadin, Lertutxeko urtegian (Bizkaia) ugaltzaile gisa aipatu zen. Hegan egiten hasi aurreko lau txita zenbatu ziren, baina horietako bat nerabe batek jaurtitako harrikada batez hil zen[600]. Ondoren, 2008an, bikote bat ikusi zen Kadagua ibaiaren ertz batean eztei-errituala egiten (La Cuadra, Bizkaia, Zuberogoitiaren behaketa pertsonala), eta, 2019an, ibai horretan bertan, Balmasedan, bikote bat detektatu zen berriro, eztei-errituala egiten hura ere [I. Zuberogoitia, Ornithon]; handik bi aste ingurura eremu berean jarraitzen zuen; hala ere, ezin da baztertu azken kasu horiek paseko hegaztiak izatea. Beraz, Euskadin, limikola horren ugalketa salbuespenezkoa da, eta Bizkaiko hezegune bakar batean aipatu da.

Limícola cuya área de distribución durante el periodo de cría ocupa desde Europa oriental hasta Siberia [HBW]. En Europa llega por el sur hasta Bulgaria y el Cáucaso [AEU2]. La península ibérica constituye un área de paso importante para las poblaciones más occidentales que invernan en África, a la vez que una parte de ellas se queda a invernar en la propia Península[71].

En Euskadi, en 1996 se citó su reproducción en el embalse de Lertutxe (Bizkaia), llegando a contabilizarse cuatro pollos volantones, uno de los cuales murió por causa de una piedra que fue lanzada por un adolescente[600]. Posteriormente, en 2008 se detectó una pareja realizando parada nupcial en una orilla del Kadagua (La Cuadra, Bizkaia, Zuberogoitia obs. per.) y, en 2019, en ese mismo río, en Balmaseda, se volvió a detectar una pareja con comportamiento de parada nupcial [I. Zuberogoitia en Ornitho], que dos semanas después seguía en la zona sin descartarse que estos últimos casos sean aves en paso. Así pues, la reproducción de esta limícola en Euskadi, es excepcional y ha sido reportada únicamente en un humedal de Bizkaia.



Antzandobi handi iberiarra
Alcaudón real
Lanius meridionalis

1990ko hamarkadan, ipar-artzandobitik (*L. excubitor*) bereizi zen espezie hori. Hegoaldeko artzandobia Paleartikoaren hegoaldean endemikoa da, eta haren taxonomia oraindik eztabaidagai dago[603]. Antzandobi handi iberiarra Iberiar penintsulan eta Frantzia hegoaldean ugaltzen da[604], eta sedentarioa da.

Euskadin, 1980ko hamarkadan, 10 x 10 km-ko 12 gelaxkatan aipatzen zen, batez ere Ebro ibarreko beheko mailetan eta Araba hegoaldeko mendien (Kantabria mendilerroa, Toloño, etab.) hegoaldean, bai eta Lautadan eta Añanan sakabanatutako puntuetan, eta, salbuespen gisa, Gipuzkoako kostaldeko puntu batean ere [APV1]. Hamarkada bat geroago, Araba hegoaldeko eremu horietan bertan aipatu zen berriro, eta, gainera, Gorlizko (Bizkaia) txilardi-iraleku batean ugaltze-kasu bat ere konfirmatu zen[398]. 2003ko atlasean, Gorlizeko aipamenaz gain, Arabako hainbat gelax-

Especie separada del alcaudón norteño (*L. excubitor*) en la década de 1990. El meridional es endémico del sur del Paleártico y su taxonomía es, todavía, objeto de debate[603]. El alcaudón real se reproduce en la península ibérica y el sur de Francia[604] y es sedentario.

En Euskadi, en la década de 1980 se citaba en un total de 12 celdas de 10x10 km, mayoritariamente en las cotas bajas del valle del Ebro y cara sur de las montañas meridionales de Araba (sierra de Cantabria, Toloño, etc.), además de puntos dispersos en la Llanada y Añana y, excepcionalmente, en un punto de la costa de Gipuzkoa [APV1]. Una década después todavía se citaba en estas mismas zonas del sur de Araba, además de un caso de reproducción, confirmada, en un brezal-helechal en Gorliz (Bizkaia)[398]. En el atlas de 2003 se citaba en varias celdas alavesas, además de la de Gorliz [AES2]. En censos llevados a cabo en 2012/13 en el sur de

katan aipatu zen [AES2]. 2012/13an Araba hegoaldean egindako zentsuetan ez zen espeziea detektatu[128], ezta Atlas honetarako 2016-2020an egindako zentsuetan ere. Ornitho Euskadi atarian, espeziea 2015etik aurrera urri baina erregulartasunez aipatzen da, Araban batez ere, baina gehienbat neguan. Horrek adieraz lezake jatorri ezezaguneko hegaztien neurri bateko sakabanatzea –agian probintzia mugakideetan kokatutako ugalketa-eremu hurbiletatik etorriak–[398,603]. Hala ere, badago ugaltze-garaian behatutako hegaztien aipamen isolaturen bat, baina haietarako ez dago ugalketa ziurraren ebidentziarik [Ornitho]: Araban, ale bat 2017ko eta 2019ko maiatzean Gasteizen, ale bat 2019ko ekainean Uribarri-Ganboan eta bikote bat 2021eko ekainean Gaubean; Bizkaian, ale bat 2020ko uztailaren hasieran Sopuertan. Beraz, oro har, antzandobi handi iberiarra ugaltzaile erregular gisa desagertutzat jo daiteke Euskadin; hala ere, ezin da baztertu noizbehinka bikoteren bat ugaltzea, bereziki Arabako zenbait tokitan. Espezie hori bakantzearen ardura nekazaritzako paisaiaren sinplifikazioari eta bioziden erabileraren eraginari egotzi behar zaie[603]. Arabako Errioxaren kasuan, desagerpena erlaziona daiteke mahastien azalera handitzearekin –ze-realen, lugorrien eta larre iraunkorren kaltetan–, bai eta landu gabeko eremuetan sastrakak garatzearekin ere, artzaintza ia erabat desagertzearen ondorioz[128].

Araba no se detectó la especie[128], como tampoco lo fue durante los censos llevados a cabo en este Atlas en 2016-2020. En el portal Ornitho Euskadi la especie se cita a partir de 2015 de manera escasa pero regularmente en, principalmente, Araba, aunque mayoritariamente en invierno, lo cual podría reflejar cierta dispersión de aves de origen desconocido, tal vez de zonas de reproducción cercanas, situadas en provincias limítrofes[398,603]. Existe no obstante alguna cita, aislada, de aves observadas en época de cría, pero para las que no se reportan evidencias de reproducción segura [Ornitho]: en Araba un ejemplar en mayo de 2017 y 2019 en Vitoria-Gasteiz, un ejemplar en junio de 2019 en Uribarri-Ganboa así como una pareja en junio de 2021 en Valdegovía/Gaubea; en Bizkaia un ejemplar a primeros de julio de 2020 en Sopuerta. Así pues, en términos globales el alcaudón real puede darse como extinguido en Euskadi como reproductor regular, sin descartar que, ocasionalmente, alguna pareja pueda criar en puntos de, principalmente, Araba. La rarefacción de esta especie debe atribuirse a la simplificación del paisaje agrario así como la incidencia del uso de biocidas[603]. En el caso de Rioja Alavesa, su desaparición puede relacionarse con el aumento de la superficie de viñedos en detrimento de cultivos de cereal, barbechos y pastos permanentes, así como al desarrollo de matorral en zonas no cultivadas debido a la práctica desaparición del pastoreo de ovino[128].



Txio horia
Mosquitero musical

Phylloscopus trochilus

Paseriforme eurosiberiarra, Paleartikoan oso hedatua, Frantziaren kostaldetik Kamchatkaraino [HBW]. Egungo atlasean, Euskadin ez da ugaltzaile gisa aipatzen, ezta Estatuan ere [AES3]. Multzo ugaltzailerik hurbilena Frantziako mendebaldeko kostaldean dago, Garonaren estuarioaren iparraldean [AEU2].

Europan udako espezie bat da, eta Euskadin ohikoa da migrazio-pasean[24,605]; udaberrian, ohikoa izaten da kantuan ari diren hegazti egokituak aurkitzea –hori, iraganean, egiaztatu gabeko ugalketa-zantzutzat hartu izan da–. Hala ere, Euskadiko hainbat tokitan hegazti ugaltzaileak konfirmatu izan dira, guztiak Kantauri isurialdean. 1980ko hamarkadako atlasean hegazti ugaltzaile posible gisa aipatzen zen, ugalketa ziurraren zantzurik ez zegoelako [APV1]. 1990eko hamarkadan, Bizkaiko zenbait tokitan ugaldu zela konfirmatu zen[596], besteak beste, Durangaldean[398]. Gipuzkoaren kasuan, kostaldeko bi gelaxkatan aurkitu zen, baina horietako bakar batean ere ez zen ugalketa konfirmatu[5] Bi puntu horiek izan ziren agertu 2003ko Espainiako hegazti habiagileen atlasean agertu zirenak [AES2]. Ornitho Euskadi atarian –2015ean irekitakoa–, ez dago espeziea lurraldean ziur ugaldu delako aipamenik

Paseriforme de carácter eurosiberiano, ampliamente distribuido en el Paleártico, desde la costa francesa hasta Kamchatka [HBW]. En el actual Atlas no se cita como reproductora en Euskadi; tampoco en el Estado [AES3]. El núcleo reproductor más cercano se sitúa en la costa occidental francesa al norte del estuario del Garona [AEU2].

En Europa es una especie estival que es común en Euskadi durante el paso migratorio[24,605]; en primavera es habitual hallar aves sedimentadas y cantando, lo que en el pasado ha podido interpretarse como indicios de reproducción no confirmada. No obstante, sí que se llegaron a confirmar aves reproductoras en diferentes puntos de la geografía vasca, todos ellos en el área cantábrica. En el atlas de la década de 1980 se mencionaba como un ave de reproducción posible dada la ausencia de indicios de reproducción segura [APV1]. En la década de 1990 se confirmó su reproducción en puntos de Bizkaia[596], entre ellos el Duranguesado[398]. En el caso de Gipuzkoa se localizó en dos celdas del área costera, aunque en ninguno de ellas se llegó a confirmar la reproducción[5]. Estos dos fueron los puntos que aparecieron en el atlas de aves nidificantes de España de 2003 [AES2]. En el portal Ornitho Euskadi, abierto en 2015, no consta cita

[Ornitho] Horrela, bada, espezie hori aldian-aldian lurraldean ugaldu da, baina ziurrenik ez da urtero ugaltzen, eta, beraz, Euskadin ugaltze irregularrekoa dela jo behar da.

alguna de reproducción segura de la especie en el territorio [Ornitho]. Así pues, se trata de una especie que ocasionalmente sí ha criado en el territorio, pero que muy probablemente no lo hace todos los años, por lo que su reproducción en Euskadi debe considerarse como irregular.



Tarina
Jilguero lúgano
Spinus spinus

Fringilidoa, Europa mendebaldetik Ekialde Urruneraino hedatuta dagoena [HBW]. Europan modu erregular eta egonkorrean ugaltzen da kontinentearen erdialdetik iparraldera, baita britainiar uharteetan ere, baina zenbat eta hegoalderago, orduan eta bakanagoa da edo desagertu egiten da [AEU2]. Espainian habiagile irregularra da, batez ere erdialdetik iparralderako mendietan (Pirinioak, Kantauriar mendikatea eta Sistema Iberiarra, batez ere) [AES3]. Neurri batean hegazti nomada denez eta bat-batean azaltzen denez[548], ugaltze-eremuarekiko ez da oso leiala, eta haren ugalketa ezin da aurreikusi, bereziki Europa hegoaldeko herrialdeetan [AEU2]. Euskadiren kasuan, ugalketa probableko edo ziurreko zenbait behaketa ditu; horietako gehienak, kantauriar eremuko konifero landaketetan[4,5,398,606,607]. Atlas hau egiteko aipamenen bilketa egin zen epean (2016-2020), hala ere, ugalketa probable edo ziurra adieraz zezakeen aipamen bat bera ere ez zen izan. Beraz, fringilido horren ugalketa aldizkakoa da lurraldean.

Fringílido presente desde el oeste de Europa hasta el Extremo Oriente [HBW]. En Europa se reproduce de manera regular y estable en la mitad norte del continente así como las islas británicas, mientras que se rarifica o desaparece cuanto más al sur [AEU2]. En España nidifica irregularmente, sobre todo en zonas montañosas de la mitad norte (Pirineos, cordillera Cantábrica y Sistema Ibérico, fundamentalmente) [AES3]. Al ser un ave de carácter hasta cierto punto nómada, irruptiva[548], es poco fiel al área de cría y su reproducción, particularmente en los países del sur de Europa, es impredecible [AEU2]. En el caso de Euskadi, es una especie que cuenta con varias observaciones de reproducción probable y segura en el pasado, la mayoría en plantaciones de coníferas de la zona cantábrica[4,5,398,606,607]. Para el periodo de recolección de citas de este Atlas (2016-2020), no obstante, no se obtuvo ninguna que pudiera considerarse como un caso de cría probable o segura. La reproducción de este fringílido en el territorio es, así, ocasional.

EUSKADIKO HEGAZTI HABIAGILEEN BANAKETA ETA HAIEN ABERASTASUNAREN ALDAKETA

DISTRIBUCIÓN Y CAMBIO DE LA RIQUEZA DE AVES NIDIFICANTES EN EUSKADI

Juan Arizaga, Maite Laso, Javier Rodríguez-Pérez, Olatz Aizpurua, Gorka Belamendia, Aitor Galarza, Luis M. Carrascal

Sarrera

Azken kapitulu honen helburua da Euskadiko hegazti-faunaren banaketa-patroia (espezie-kopurua; aurrerantzean, aberastasuna) modu integratuan aztertzea, bai eta banaketa hori hobekien azaltzen duten faktoreak aztertzea ere, eta, baita ere, azken 20 urteetan izan diren aldaketak laburbiltzea, 2003ko Espainiako hegazti habiagileen atlasarekiko [AES2] alderaketan oinarrituta. Emaitza orokorrak analizatzeko ikuspuntua hau izan da: arriskuan dauden espezieen presentziari erreparatuta, lurraldeko hegaztiak kontserbatzeko eremu garrantzitsuenak identifikatzea. Testuinguru horretan, kapitulu hau sintesi-ahalegin gisa interpretatu behar da, hegaztiak babestera bideratua, espezierik mehatxatuenak non biltzen diren jakiteko, eta, ondorioz, kontserbatzeko lehentasuna eman behar zaien habitatak edo eremuak identifikatzeko.

Metodologia

Aberastasunaren banaketa-patroia eta Euskadin hegazti-fauna kontserbatzeko eremu giltzarriak identifikatzea.

Analisi hori egiteko, lehenik eta behin, 5×5 km-ko UTM gelaxka bakoitzean detektatutako (zentsatutako) espezie ugaltzaileen kopurua kalkulatuko dugu. Eremu batean biodibertsitatea kontserbatzeak duen garrantzia zehazteko aplikatu den irizpideetako bat da bertan dauden espezieen mehatxu-mailari erreparatzea. Testuinguru horretan, zenbat eta handiagoa izan mehatxatutako espezieen kopurua eta haien mehatxu-maila, orduan eta garrantzitsuagoa izango da eremua. Irizpide hori hartu da kontuan Euskadin hegazti-fauna kontserbatzeko eremu garrantzitsuenak identifikatzeko. Zehazki, espezie bakoitzari kontserbazio-indize bat esleitu zaio, honako lehentasun-kategoria hauen arabera (kategoria horiek mehatxu-mailari erantzuten diote eta puntuazio handienetik txikienera ordenatuta daude;

Introducción

Desarrollamos este último capítulo con el fin de estudiar de manera integrada el patrón de distribución de la avifauna de Euskadi (número de especies; en adelante, riqueza), los factores que potencialmente mejor explican dicha distribución, así como resumir los cambios registrados durante los últimos 20 años, basados en la comparación con el atlas de aves nidificantes de España de 2003 [AES2]. Los resultados globales se analizan desde el punto de vista de la identificación de las zonas más importantes para la conservación de las aves del territorio en función de la presencia de especies amenazadas. En este contexto, este capítulo debe interpretarse como un esfuerzo de síntesis, orientado, además, a la preservación de las aves con el fin de conocer dónde se concentran las especies más amenazadas y, en consecuencia, identificar cuáles son los hábitats o zonas donde debe priorizarse la conservación.

Metodología

Patrón de distribución de la riqueza e identificación de zonas clave para la conservación de la avifauna en Euskadi.

Para llevar a cabo este análisis, primeramente calculamos el número de especies reproductoras detectadas (censadas) en cada una de las celdas UTM de 5×5 km. Uno de los criterios aplicados para determinar la importancia de una zona para la conservación de la biodiversidad es atender al grado de amenaza de las especies allí presentes. En este contexto, cuanto más alto sea el número de especies amenazadas y su nivel de amenaza, más importante será la zona. Este criterio ha sido tenido en cuenta con el fin de identificar las áreas más relevantes para la conservación de la avifauna en Euskadi. Concretamente, a cada una de las especies se le ha asignado un índice de conservación, teniendo en cuenta las siguientes categorías de prioridad, según su inclusión en el CVEA (Catálogo Vasco de Especies Amenazadas) o en

Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) edo 2009/147/EE Zuzentarauaren 1. eranskinean (Hegaztiak) sartuta dauden hartzen dute kontuan):

(1) **Maximoa**: EMEKen arabera «Galtzeko arriskuan daudenak». Kontserbazio-indizea: 4.

(2) **Altua**: EMEKen arabera «Kalteberak». Kontserbazio-indizeak: 3.

(3) **Ertaina**: EMEKen arabera «Bakanak». Kontserbazio-indizea: 2.

(4) **Baxua**: aipatutako EMEKen inongo kategoriatan ez egon arren, 2009/147/EE Zuzentarauaren 1. eranskinean sartuta dauden espezieak. Kontserbazio-indizea: 1.

VC kontserbazio-indizea VC = $\Sigma vc/vc_{max}$ gisa kalkulatzen da, non Σvc 5×5 km-ko UTM gelaxka bakoitzean dauden espezieen kontserbazio-balioen batura baita, eta, vc_{max}, aztertutako eskualdean kontserbazio-baliorik handiena lortu den gelaxkaren balioa. Indize hori bi kasutarako kalkulatu zen: batetik, espezie guztietarako, eta, bestetik, laginketa eskasa izan zuten espezieak kenduta geratu zen multzorako. Laginketa eskasekoen taldea hauei dagokie: detektagarritasun txikiko espezie urriei eta detekzioa maximizatzera bideratutako zentsu espezifikorik izan ez duten espezieei, hala nola eguneko zenbait baso-harrapari. Kontserbazio-indizea kalkulatzeko, bi kasu hartu ziren kontuan: batetik, espezie guztiak, eta, bestetik, detektagarritasun eskasa eta zentsu espezifikorik ez izatearen ondorioz (adib., eguneko baso-harrapari batzuk) analisian alboraketak sortu zitzaketenak (adibidez, arreta handiagoa jaso zuten gelaxken eraginez).

Euskadiko hegaztien aberastasunaren banaketa azaltzen duten faktoreen analisia.

Lurraldeko espezie ugaltzaileen kopurua azaltzen zuten aldagaiak zein izan ziren zehazteko, eredu prediktibo bat aplikatu zen ausazko erregresio-basoen tekniken bidez (*Regression Random Forest*, RRF); atlas honen atal metodologikoan azaldua dago eredu hori. Nahiz eta analisimota horretarako beste eredu batzuk ere erabili ohi diren (adibidez, eredu lineal eta gehigarri orokortuak, GLM eta GAM gisa laburtuak), lan honetan homogeneotasun metodologikoari eusteko erabili dugu teknika hori.

Analisi honen xede-aldagai gisa ez zen zuzenean erabili 1×1 km-ko UTM gelaxken eskalan detektatutako edo zentsatutako espezieen kopurua, baizik eta banaketa modelizatuko mapak sortzeko garatu ditugun ereduetatik iragartzen den espezieen kopurua. Eredu horiek, espezie bakoitzarentzat, 1×1 km-ko UTM gelaxka bakoitzerako probabilitate-balio bat sortzen dute; beraz, balio hori presentziazko/absentziazko beste bat bihurtu behar izan zen (1/0). Horretarako, *True Skill Statistic* (TSS) estatistikoa erabili genuen. Metrika bat da, eta espezieen presentziaren banaketa-ereduetan diskriminazio-gaitasuna (hau da, presentziak eta absentziak behar bezala sailkatzeko ahalmena) lortzeko erabiltzen da. Espezie bakoitzerako, TSS atalasetik beherako presentzia-probabilitateen balioak absentzia gisa sailkatu ziren (0), eta

El Anexo 1 de la Directiva 2009/147/CE (Aves) y que responden al nivel de amenaza, ordenados de mayor a menor puntuación:

(1) **Máxima**: especies 'En Peligro' en el CVEA. Índice de conservación: 4.

(2) **Alta**: especies 'Vulnerables' en el CVEA. Índice de conservación: 3.

(3) **Media**: especies 'Raras' en el CVEA. Índice de conservación: 2.

(4) **Baja**: especies no incluidas en ninguna de las categorías del CVEA que se mencionan arriba, pero incluidas en el Anexo 1 de la Directiva 2009/147/CE. Índice de conservación: 1.

El índice de conservación, VC, se calcula como VC = Σvc / vc_{max}, donde Σvc es la suma de valores de conservación para el conjunto de especies comprendidas en cada una de las celdas UTM de 5×5 km y vc_{max} es el valor de la celda donde se ha obtenido el mayor valor de conservación en la región de estudio. Este índice se obtuvo tanto para todas las especies como excluyendo aquellas para las que el muestreo fue deficiente. Estas últimas se corresponden con especies escasas de baja detectabilidad o aquellas para las que no se han desarrollado censos específicos orientados a maximizar su detección, como por ejemplo fue el caso de varias rapaces forestales diurnas. Para calcular el índice de conservación se tuvo en cuenta tanto todas las especies como excluyendo aquellas especies que, por su baja detectabilidad y ausencia de censos específicos (*e. g.*, varias rapaces forestales diurnas), podrían generar sesgos en el análisis (por ejemplo por el efecto de las celdas que fueron objeto de mayor atención).

Estudio de los factores que explican la distribución de la riqueza de aves en Euskadi.

Para determinar cuáles fueron las variables que explicaban el número de especies reproductoras en el territorio, se aplicó un modelo predictivo mediante técnicas de bosques aleatorios de regresión (*Regression Random Forest*, RRF), ya detallado en el apartado metodológico de este Atlas. Aunque existen otros modelos comúnmente usados para este tipo de análisis (*e. g.*, los lineales o aditivos generalizados, abreviados como GLM y GAM), utilizamos esta técnica para mantener la homogeneidad metodológica aplicada en esta obra.

Como variable objeto para este análisis no se empleó directamente el número de especies detectadas o censadas a escala de celdas UTM de 1×1 km, sino el número de especies predicho a partir de los modelos que desarrollamos para crear los mapas de distribución modelizada. Estos modelos generan para cada una de las especies un valor de probabilidad para cada una de las celdas UTM de 1×1 km, por lo que se transformó dicho valor en otro de presencia/ausencia (1/0). Para ello empleamos el estadístico *True Skill Statistic* (TSS), que es una métrica que se utiliza para obtener la capacidad discriminatoria (esto es, la facultad de clasificar correctamente presencias y ausencias) en modelos de distribución de la presencia de especies. Para cada especie,

TSS atalasetik gorakoak presentzia gisa sailkatu ziren (1). Azkenik, 1×1 km-ko UTM gelaxketan iragarritako espezie-kopurua zehazteko, gelaxkako espezie bakoitzerako iragarritako presentzia-balioak gehitu ziren.

Hegazti-aberastasunaren banaketa iragartzeko erabiltzen diren aldagaien garrantzia estimatzeko, «Aldagaiaren garrantzia» deritzona erabili genuen (ingelesez, *Variable Importance*, VIM). Metrika bat da, aldagai bakoitza ezabatzean zenbateko iragarpen-ahalmena galtzen den zehazten duena –edo, alderantziz, ereduan sartzean zenbateko ahalmena gehitzen den–.

valores de probabilidad de presencia inferiores al umbral TSS se clasificaron como ausencias (0), mientras que aquellos superiores al umbral TSS se clasificaron como presencias (1). Finalmente, para determinar el número predicho de especies en celdas UTM de 1×1 km se sumaron los valores predichos de presencia para cada una de las especies de la celda.

Para estimar la importancia de las variables usadas para predecir la distribución de la riqueza de aves, empleamos la denominada 'Importancia de la Variable' (en inglés, *Variable Importance*, VIM), que es una métrica que determina cuánta capacidad predictiva se pierde al eliminar cada variable o, a la inversa, cuánta se añade al incluirla en el modelo.

Euskadiko hegazti habiagileen banaketa-eremuan izandako aldaketaren analisi orokorra.

Euskadin aldaketarik handienak –bai kolonizazioaren bai tokiko desagertzearen ondorioz– izaten dituzten espezie-multzoak eta habitatak identifikatzeko, sintesi bat ere egin da atlas honetan hauteman ditugun espezieen banaketa-eremuaren aldaketei buruz. Horretarako, konparatu ziren 2003ko atlasean espezierik behatu ez ziren eremuak (gelaxkak) eta oraingoan espezieak behatu diren eremuak, edo alderantziz. Zehazki, hauek kuantifikatu genituen: bi atlas horien arteko epean banaketa-eremua (1) aldatu ez duten espezieen kopurua, (2) handitu dutenena eta (3) murriztu egin dutenena, bai oro har, bai habitaten arabera: baso-inguruneak (basoei eta/edo baso-landaketei lotutako espezieak), hezeguneak (barrualdeko hezeguneak, padurak eta ibaiak), itsasoak, nekazaritza-sistemak, zuhaixka-inguruneak (baso-masetarako trantsizio-etapak: iratzeak, txilardiak, kostaldeko otalurrak, eta abar), mendietako ingurune alpinizatuak (mendi-larreak eta harkaitz-lurrak), hiriguneak eta harkaitzak (ez nahitaez mendietan kokatuak). Gainera, habitat bakoitzerako, aldaketa-indizearen batez besteko balioa kalkulatu genuen (± % 95eko konfiantza-tartea).

Análisis global del cambio en el área de distribución de las aves nidificantes en Euskadi.

Con el objeto de identificar, a escala de Euskadi, cuáles son los grupos de especies y hábitats en los que se observan cambios mayores, tanto por colonización como por extinción locales, también se ha llevado a cabo un análisis de síntesis relativo a los cambios del área de distribución de las especies que detectamos en este Atlas. Para ello se compararon las zonas (celdas) donde las especies no fueron observadas en el atlas de 2003 pero sí en el actual, o *viceversa*. Particularmente, cuantificamos el cómputo de especies cuyo área de distribución (1) no ha cambiado, (2) se ha incremento o (3) se ha reducido durante el periodo que dista entre ambos atlas, tanto en su conjunto como por hábitats: medios forestales (especies ligadas a bosques y/o plantaciones forestales), humedales (incluyendo humedales interiores, marismas y ríos), marinos, sistemas agrarios, medios arbustivos (etapas de transición hacia masas forestales, incluyendo helechales, brezales, landas costeras, etc.), 'alpinizados' en montañas (pastizales montanos y suelos de roca), núcleos urbanos y roquedos (no necesariamente situados en montañas). Además, calculamos el valor medio (± intervalo de confianza al 95%) del índice de cambio para cada uno de los hábitats.

Emaitzak

Euskadiko hegazti habiagileen aberastasunaren banaketa-patroia eta kontserbatzeko lehentasunezko eremuak.

Oro har, 175 hegazti habiagile autoktono detektatu ziren; horiei exotiko gisa sailkatutako beste bost espezie gehitu behar zaizkie. Gainera, nabarmendu genituen 12 espezie, duela gutxi desagertuak edo lurraldean ugalketa zalantzazkoa, irregularra edo noizbehinkakoa dutenak. Horrela, jarraian aurkezten diren kalkuluetarako, bakarrik hartu dira kontuan 180 espezie autoktonoak eta ugalketa erregularreko exotikoak.

Euskadin, 5×5 km-ko UTM eskalako gelaxketako aberastasuna (behatutako espezieen batezbestekoa) 64,12koa

Resultados

Patrón de distribución de la riqueza y zonas prioritarias para la conservación de la avifauna nidificante en Euskadi.


En conjunto, se detectaron 175 especies de aves nidificantes autóctonas, a las que se deben sumar otras cinco clasificadas como exóticas. Además, destacamos 12 especies extintas recientemente o cuya reproducción en el territorio es dudosa, irregular u ocasional. Así, para los cálculos que se presentan a continuación solo han sido consideradas las 180 especies autóctonas y exóticas de reproducción regular.

La riqueza (número promedio de especies observadas) a escala de celdas UTM de 5×5 km en Euskadi es de 64,12 especies (rango: 1-101 especies; el límite inferior está

da (tartea: 1-101 espezie; beheko muga Euskadiren ertz geografikoaren gelaxkei lotua dago: itsasertzekoak eta eskualdearen oso azalera txikiak estaltzen dituenak). 25 km^2-tik beherako azalera duten gelaxkak kenduz gero (hau da, azaleraren zati bat Euskaditik kanpoko eremu mugakideetan edo itsasoan dutenak), batezbesteko hori 67,42 espeziera igotzen da, eta tartea 49-101 espeziera.

Euskadiko hegazti-fauna ugaltzailearen aberastasunaren banaketa geografikoa heterogeneoa da (1. ird.). Oro har, handiagoa da Araban; balio handienak leku hauetan daude: Gasteizen (batez ere Salburuako hezegunearen eraginez), Arabako Mendialdean, Kantabria mendilerroan eta Ebro bailarako herrietan. Gipuzkoaren kasuan, aberastasunaren maximoak leku hauetan gertatzen dira: probintziaren ipar-ekialdean (batez ere Txingudiko paduragatik), kostaldeko eremuetan eta hego-mendebaldean (Debagoiena). Bizkaian, espezie asko leku hauetan ikusten dira: Urdaibaiko estuarioan, mendebaldeko kostaldeko alderdi batzuetan eta probintziaren ipar-mendebaldean (Enkarterriak). Aldiz, balio minimoak baso-landaketa ugari dauden barrualdeko eremuetan atzematen dira, hala nola Gipuzkoako erdialdean, mendebaldean eta hegoaldean, eta Bizkaiko ekialdean, erdialdean eta hegoaldean. Espezie-kontzentrazio handieneko guneak hezegune handiak dituztenak dira, hala nola Salburua, Uribarri-Ganboa, Txingudi eta Guardiako aintzirak. Horrek agerian uzten du eremu horiek garrantzi itzela dutela hegazti-faunaren gordailu gisa, eta, ondorioz, agerian geratzen da espezie horiek kontserbatzeko Euskadik duen garrantzia ere. Azpimarratzekoa da, gainera, hezegune horietako batzuk azken urteetan sortu edo lehengoratu direla. Lurraldeko hezegune gehienek, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako legediaren testuinguruan asociado con celdas del borde geográfico de Euskadi, tanto marinas como aquellas cubiertas por muy poca superficie regional). Si eliminamos las celdas con una superficie inferior a 25 km^2 (esto es, las que tienen cierta cantidad de su superficie en zonas limítrofes fuera de Euskadi o en el mar), este promedio asciende a 67,42 especies y el rango a 49-101 especies.

La distribución geográfica de la riqueza de la avifauna reproductora en Euskadi es heterogénea (Fig. 1). En términos globales es mayor en Araba, con valores máximos que se concentran en Vitoria-Gasteiz (debido principalmente al efecto de la zona húmeda de Salburua), Montaña Alavesa, Sierra de Cantabria y localidades del valle del Ebro. En el caso de Gipuzkoa la riqueza alcanza máximos en el noreste de la provincia (debido a la marisma de Txingudi, fundamentalmente), zonas de costa y suroeste (Debagoiena). En Bizkaia, el número de especies observadas es alto en el estuario de Urdaibai, otras zonas costeras hacia el oeste y el noroeste de la provincia (Encartaciones). Por el contrario, los valores mínimos son detectados en zonas interiores donde existe gran cantidad de plantaciones forestales, como es el centro, oeste y el sur de Gipuzkoa y el este, centro y sur de Bizkaia. Los puntos de máxima concentración de especies son aquellos que coinciden con la existencia de grandes zonas húmedas, como es el caso de Salburua, Uribarri-Ganboa, Txingudi o las lagunas de Laguardia, lo cual pone de manifiesto la enorme relevancia de estas zonas como reservorios de avifauna y, en consecuencia, la importancia para su conservación en Euskadi. Cabe destacar, además, que varias de estas zonas húmedas se crearon o restauraron durante los últimos años. Aun estando la mayoría de los humedales del territorio protegidos en el contexto de la legislación



1. ird. Atlas honetan behatutako espezie-kopurua, 5 x 5 km-ko UTM gelaxken eskalan.

Fig. 1. Número de especies observadas en este Atlas a escala de celdas UTM de 5×5 km.

babestuta dauden arren, giza presio handia jasaten jarraitzen dute, batez ere jolas-jarduerei lotua, horrek hegazti-fauna hartzeko gaitasuna nabarmen mugatzen baitu[235].

Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan («Bakana», «Kaltebera» eta «Galtzeko arriskuan daudenak» kategorietan aipatuak) eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 1. eranskinean dauden espezieen artetik, 52 detektatu dira atlas honetarako. Horietatik, 20 espezie daude «Bakan» gisa katalogatuta, 11 «Kaltebera» gisa eta 3 «Arriskuan»; horretaz gain, 37 espezie ageri dira Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 1. eranskinean (xehetasun gehiagorako, ikusi 1. taula).

5×5 km-ko UTM eskalako gelaxka bakoitzari mehatxumailaren edo -kategoriaren arabera ematen zaion kontserbazio-balioa kontuan hartuta, espezie guztientzat osoki hartuta ikusten denaren antzeko patroi bat sumatzen dugu (2. ird.). Ez alferrik, oso korrelazio esanguratsua eta positiboa dago aberastasun-balioaren eta kontserbazio-indizearen artean (R^2 = 0,6, P<0,001). Era berean, kontserbazio-indizea kalkulatzeko, lurraldean era ez-homogeneoan edo eskasean ordezkatuta dauden espezieak (adibidez, errolda estandarizatuak egin ez zaizkielako) baztertzen baditugu, are gehiago nabarmentzen da aberastasun-balioaren eta kontserbazio-indizearen arteko korrelazioa (R^2 = 0,8, P<0,001). Hau da, espezietan aberatsenak diren eremuak dira, halaber, arriskuan dauden espezie gehien hartzen dituztenak. Hori dela eta, oro har, eremu batek espezierik mehatxatuenen kontserbazioaren ikuspegitik duen garrantziaren adierazlea da, Euskadin, espezie-kopurua. Oro har, kontserbazio-indizeak balio maximoak erakusteko joera du honako hauetan: hezegune handietan (argi eta garbi Txingudin, Urdaibain edo Arabako Lautadako hezegune handietan), Arabako Lautadako ekialdean, Arabako Mendialdean, Kantabria mendilerroan eta Ebro ibarreko behealdeko zenbait puntutan. Aldiz, Gipuzkoako mendebaldea eta Bizkaiko ekialdea dira kontserbaziorako balio txikiena duten eremuak; gutxienez, espezie mehatxatuen katalogo eta zerrendetan jasota dauden hegazti-espezieen kopuruari dagokionez.

Aberastasunaren banaketaren modelizazioa.

Lurraldeko aberastasunaren banaketa modelizatua 3. irudian adierazten da. Oro har, eredua nahiko ondo egokitzen zaio 1. irudiko mapan ikusten dugunari, baina zenbait ñabardurarekin (jarraian azalduko ditugu). Gogoan izan behar dugu eredu hori garatzeko abiapuntua hau izan zela: presentzia-probabilitatearen banaketa modelizatuaren mapa guztietako informazioa. Ondorioz, mapa hau espezie ugarienetarako bakarrik garatu da. Espezie horietarako, presentzia/absentziaren banaketa modelizatuaren mapak egin ziren, bereizmen-maila txikiagoan (1×1 km-ko UTM gelaxkak). Horrela, espezie ohikoenen banaketaren sintesi bat erakusten du, baina kanpoan uzten ditu, besteak beste, hegazti urtar gehienak, harrapari gehienak eta mendiko hegazti urri gehienak.

Eredu horren arabera, Euskadiren aberastasun-balio maximoak (espezie-kopurua) eskualde hauetan azaltzen dira:

autonómica, estatal y europea, muchos continúan sometidos a una gran presión humana, principalmente ligada a actividades recreativas, que limitan considerablemente su capacidad para albergar avifauna[235].

El número de especies detectadas para este Atlas incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (con las categorías de 'Rara', 'Vulnerable' o 'En Peligro'), así como en el Anexo 1 de la Directiva Aves, asciende a 52. De todas ellas, hallamos 20 catalogadas como 'Raras', 11 'Vulnerables' y 3 'En Peligro', además de 37 incluidas en el Anexo 1 de la Directiva Aves (para más detalles ver la Tabla 1).

Atendiendo al valor de conservación otorgado a cada una de las celdas UTM de 5×5 km según el nivel o categoría de amenaza, observamos un patrón similar al que se observa para el conjunto de especies (Fig. 2). No en vano, existe una correlación muy significativa y positiva entre el valor de riqueza y el índice de conservación (R^2 = 0,6, P<0,001). Asimismo, si descartamos las especies con un nivel de representatividad desigual o deficiente en el territorio para calcular el índice de conservación (*e.g.* por no haber sido objeto de censos estandarizados), se enfatiza aún más la correlación entre el valor de riqueza y el índice de conservación (R^2 = 0,8, P<0,001). Es decir, las zonas más ricas en especies son, también, las que acogen mayor número de especies amenazadas, por lo que en términos globales el número de especies en Euskadi representa un índice del valor que una zona puede tener desde el punto de vista de la conservación de las especies más amenazadas. Globalmente, el índice de conservación tiende a mostrar valores máximos en: grandes zonas húmedas (claramente en Txingudi, Urdaibai o las grandes zonas húmedas de la Llanada Alavesa), zona oriental de la Llanada Alavesa, Montaña Alavesa, Sierra de Cantabria y varios puntos de las zonas bajas del valle del Ebro. Por el contrario, el occidente de Gipuzkoa y el este de Bizkaia son las zonas con menor valor para la conservación, al menos en cuanto al número de especies de aves incluidas en catálogos y listados de especies amenazadas.

Modelización de la distribución de la riqueza.

La distribución modelizada de la riqueza en el territorio se re-presenta en la Fig. 3. En términos globales, el modelo se ajusta bastante bien al patrón que observamos en el mapa de la Fig. 1, aunque con matices que comentaremos a continuación. Debemos recordar que este modelo se desarrolló teniendo como información de partida cada uno de los mapas de distribución modelizada de la probabilidad de presencia. En consecuencia, este mapa se desarrolla únicamente para las especies más abundantes, para las cuales se elaboraron mapas de distribución modelizada de presencia/ausencia a un nivel menor de resolución (celdas UTM de 1×1 km). Representa, así, una síntesis de la distribución de las especies más comunes, aunque deja al margen a la mayoría de las aves acuáticas, rapaces o especies escasas de montaña, entre otras.


Según el modelo, Euskadi alcanza valores máximos de riqueza (número de especies) en el entorno del valle del Ebro

Espeziea	EMEK	HZ1E	Lehentasuna	Kontserbazio-indizea
Aquila fasciata	PE	Bai	Maximoa	4
Gypaetus barbatus	PE	Bai	Maximoa	4
Milvus milvus	PE	Bai	Maximoa	4
Aquila chrysaetos	VU	Bai	Handia	3
Charadrius dubius	VU		Handia	3
Circus pygargus	VU	Bai	Handia	3
Dendrocoptes medius	VU	Bai	Handia	3
Gulosus aristotelis	VU		Handia	3
Lanius senator	VU		Handia	3
Neophron percnopterus	VU	Bai	Handia	3
Pandion haliaetus	VU	Bai	Handia	3
Phoenicurus phoenicurus	VU		Handia	3
Riparia riparia	VU		Handia	3
Upupa epops	VU		Handia	3
Accipiter gentilis	RA		Ertaina	2
Acrocephalus scirpaceus	RA		Ertaina	2
Actitis hypoleucos	RA		Ertaina	2
Ardea purpurea	RA	Bai	Ertaina	2
Asio flammeus	RA	Bai	Ertaina	2
Bubo bubo	RA	Bai	Ertaina	2
Certhia familiaris	RA		Ertaina	2
Ciconia ciconia	RA	Bai	Ertaina	2
Circaetus gallicus	RA	Bai	Ertaina	2
Circus aeruginosus	RA	Bai	Ertaina	2
Dryocopus martius	RA	Bai	Ertaina	2
Falco peregrinus	RA	Bai	Ertaina	2
Falco subbuteo	RA		Ertaina	2
Ficedula hypoleuca	RA		Ertaina	2
Hieraaetus pennatus	RA	Bai	Ertaina	2
Hydrobates pelagicus	RA		Ertaina	2
Ixobrychus minutus	RA	Bai	Ertaina	2
Nycticorax nycticorax	RA	Bai	Ertaina	2
Pernis apivorus	RA	Bai	Ertaina	2
Rallus aquaticus	RA		Ertaina	2
Tachybaptus ruficollis	RA		Ertaina	2
Aegolius funereus		Bai	Txikia	1
Alcedo atthis		Bai	Txikia	1
Burhinus oedicnemus		Bai	Txikia	1
Calandrella brachydactyla		Bai	Txikia	1
Caprimulgus europaeus		Bai	Txikia	1
Circus cyaneus		Bai	Txikia	1
Curruca undata		Bai	Txikia	1
Egretta garzetta		Bai	Txikia	1
Emberiza hortulana		Bai	Txikia	1
Galerida theklae		Bai	Txikia	1
Gyps fulvus		Bai	Txikia	1
Himantopus himantopus		Bai	Txikia	1
Lanius collurio		Bai	Txikia	1
Lullula arborea		Bai	Txikia	1
Melanocorypha calandra		Bai	Txikia	1
Milvus migrans		Bai	Txikia	1
Pyrrhocorax pyrrhocorax		Bai	Txikia	1

1. taula. Kontserbatzeko lehentasuna duten Euskadiko hegazti habiagileak, mehatxu-mailaren arabera sailkatuak. Lehentasuna zehazteko, indize bat kalkulatu da Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa (EMEK) eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 1. eranskina (HZ1E) kontuan hartuta. EMEKen araberako kategoriak: PE, Galtzeko arriskuan daudenak; VU, Kaltebera; RA, Bakana.


Especie	CVEA	AIDA	Prioridad	Índice de conservación
Aquila fasciata	PE	Sí	Máxima	4
Gypaetus barbatus	PE	Sí	Máxima	4
Milvus milvus	PE	Sí	Máxima	4
Aquila chrysaetos	VU	Sí	Alta	3
Charadrius dubius	VU		Alta	3
Circus pygargus	VU	Sí	Alta	3
Dendrocoptes medius	VU	Sí	Alta	3
Gulosus aristotelis	VU		Alta	3
Lanius senator	VU		Alta	3
Neophron percnopterus	VU	Sí	Alta	3
Pandion haliaetus	VU	Sí	Alta	3
Phoenicurus phoenicurus	VU		Alta	3
Riparia riparia	VU		Alta	3
Upupa epops	VU		Alta	3
Accipiter gentilis	RA		Media	2
Acrocephalus scirpaceus	RA		Media	2
Actitis hypoleucos	RA		Media	2
Ardea purpurea	RA	Sí	Media	2
Asio flammeus	RA	Sí	Media	2
Bubo bubo	RA	Sí	Media	2
Certhia familiaris	RA		Media	2
Ciconia ciconia	RA	Sí	Media	2
Circaetus gallicus	RA	Sí	Media	2
Circus aeruginosus	RA	Sí	Media	2
Dryocopus martius	RA	Sí	Media	2
Falco peregrinus	RA	Sí	Media	2
Falco subbuteo	RA		Media	2
Ficedula hypoleuca	RA		Media	2
Hieraaetus pennatus	RA	Sí	Media	2
Hydrobates pelagicus	RA		Media	2
Ixobrychus minutus	RA	Sí	Media	2
Nycticorax nycticorax	RA	Sí	Media	2
Pernis apivorus	RA	Sí	Media	2
Rallus aquaticus	RA		Media	2
Tachybaptus ruficollis	RA		Media	2
Aegolius funereus		Sí	Baja	1
Alcedo atthis		Sí	Baja	1
Burhinus oedicnemus		Sí	Baja	1
Calandrella brachydactyla		Sí	Baja	1
Caprimulgus europaeus		Sí	Baja	1
Circus cyaneus		Sí	Baja	1
Curruca undata		Sí	Baja	1
Egretta garzetta		Sí	Baja	1
Emberiza hortulana		Sí	Baja	1
Galerida theklae		Sí	Baja	1
Gyps fulvus		Sí	Baja	1
Himantopus himantopus		Sí	Baja	1
Lanius collurio		Sí	Baja	1
Lullula arborea		Sí	Baja	1
Melanocorypha calandra		Sí	Baja	1
Milvus migrans		Sí	Baja	1
Pyrrhocorax pyrrhocorax		Sí	Baja	1

Tabla 1. Aves nidificantes en Euskadi prioritarias para la conservación, clasificadas según su nivel de amenaza. La prioridad se deriva de calcular un índice a partir del Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (CVEA) y el Anexo 1 de la Directiva aves (A1DA). Categorías para el CVEA: PE, En Peligro; VU, Vulnerable; RA, Rara.



2. ird. Kontserbazio-indizea 5 x 5 km-ko UTM gelaxken eskalan. Indize hori lortu da Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 1. eranskinean edo Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan gelaxketako bakoitzean espezie mehatxatuek ("Arriskuan", "Kaltebera" eta "Bakana" kategoriak) duten presentziatik abiatuta. A: arriskuan dauden espezie guztietarako kalkulatua; B: lurralde osoan laginketa-ahalegin konparagarria izan ez duten espezieak analisitik kanpo utzita.

Fig. 2. Valor de conservación a escala de celdas UTM de 5×5 km, obtenido a partir de la presencia en cada una de las celdas de especies amenazadas, incluidas en el Anexo 1 de la Directiva Aves o en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (categorías 'En Peligro', 'Vulnerable' y 'Rara'). A: calculado para el conjunto de especies amenazadas; B: excluyendo del análisis las especies que no contaron con un esfuerzo de muestreo comparable en todo el territorio.



3. ird. Euskadiko hegazti-espezieen aberastasunaren banaketa modelizatua, 1×1 km-ko UTM gelaxken bereizmenaren araberako banaketa modelizatuko mapak sortzeko egin ziren ereduen bidez egina.

Fig. 3. Distribución modelizada de la riqueza de aves en Euskadi, obtenida a partir de los modelos que se llevaron a cabo para crear los mapas de distribución modelizada, a resolución de celdas UTM de 1×1 km.

Araba hegoaldeko Ebro haranaren inguruan (Arabako Errioxa) eta lurraldearen mendebaldereneko landazabaletan (Bizkaiko eremu batzuk eta Aiarako harana). Bigarren mailan, aberastasuna handia da nekazaritzako paisaiak nagusi diren eremuetan, batez ere landazabaletan, lehorreko laboreetan eta nekazaritza eta basogintzako mosaiko mediterraneoetan, hala nola Kantauri aldeko zenbait haranetan (Gipuzkoako ipar-ekialdean, Oria, Urola eta Debako arroen goiko aldeetan, baita Bizkaiko landazabaltan ere), Arabako iparraldeko laborantza-lautadetan, Trebiñun eta Kantabria mendilerroaren hegoaldeko nekazaritza-inguruneetan. Irudi osoago bat izate aldera, lurraldeko hezeguneei lotutako aberastasun handiko puntuak gehitu beharko genituzke mapa honetan –zeinaren oinarria baita banaketa modelizatuaren mapak egin ahal izandako espezieak–. Hauek dira puntu horiek: bereziki, Txingudiko eta Urdaibaiko estuarioak (neurri txikiagoan beste estuario txiki batzuk, hala nola Orio, Iñurritza, Plentzia, Barbadun...), bai eta barne-hezegune hauek ere: Salburua, Uribarri-Ganboa eta Guardiako aintzirak. Aldiz, aberastasuna murriztu egiten da baso-izaerako eremuetan, eta balio minimoetara heltzen da Kantauri aldeko eta uren banalerroko mendietako kota altuenetan.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar aberastasuna ez dela indize ekologiko ugarietako bat besterik –leku baten interes ornitologikoa ebaluatzeko hegazti-multzoen edo -komunitateen eskalan estimatu daitezkeenen arteko bat–. Badira habitat edo eremu batzuk, hala nola gure mendi nagusietako larre menditarrak eta harkaitzak, zeinak aberastasun txikikoak izan arren balio ekologiko handikoak baitira, bertan dauden espezieak oso esklusiboak direlako (ingurune horietatik kanpo agertzen ez diren hegazti menditarrak).

